

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXI Zenbakia.

1992

Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

Orr.

Euskerazko izenak.- Latiegi'tar Bixente	1
Goí Yakintzaruntz.- Umandi	11
Itxasoko ura.- S. Onaindia	14
Itxas bizitza eta gure euskera.- Zubíkarai'tar A	25
A. Zubikarai'ri erantzuna.- Arrinda'tar Anes	34
Aita Lino'ren idazlan guztiak.- Julen Urkiza	37
Senar emazteak ala esposoak.- L. Akesolo	38
Erri euskeraren azterketa.- Olazar'dar Martin	42
Erri Miñez.- "Txori Erreka"	49
Alos Torrea.- Arrinda'tar Anes	53
Gabon kantak Euskalerrian.- Zubegi	60
Mungia'ko kantak eta esakerak.- Asier Legarreta	70
Esaera zarrak.- Malaxetxebarria'tar Jon	73
Okerrak ugari.- Urrestarazu'tar A.	75
Euskaldunak maite ete dogu gure euskera?- "Kalamua"	78
Saski Naskí.- X.X	80
Euskerea nora...?- Iñaki Zubíri (Azalean)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

Ondarroa'k Udal batzarrean ao batez artutako erabakiz, Erriko
Seme Txit Argi izendatu du gure adiskide eta batzarkide
Zubikarai tar Augustin.

Omenaldiko argazki batzuk argitaratzen ditugu, ziñaldari.
EUSKERAZAINTZA an agertu zan erriarekin batean ornen jaietan.




EUSKERAZAINTZA

ISBN: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition, Bilbao

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAZ



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN (872'ko Larruki Bat)

Jarrai dezagun IX mendean 872'garren urtekoak ote diran lau larrukien azterketa, eta amai dezagun lendabizi, uztaillaren 4'ean Paul abatak, Jon apaizak eta Nuño elizgizonak idatzierazi zutenarena.

Sei toki izen gelditu zitzaizkigun aztertzeke. Auetxek:

TRESORES PURON FOCE FOCILIO CASTELLEENSE

TRESORES.- "Sancti Emjliani in Tresores": "Donemillian'en (eliza) Tresores'en".

Larrukiak damaigun eran, itz orrek zentzurik ez du. Lateraz dago, eta pluralean, ots, ugaritasun-eran.

Baiñan "IRU" adierazteko aurrizkia, lateraz "TRI" zan; ez, "TRE". Badakit erdiaroan "I" izkia "E" idazten zutela, baiñan ori, "E" ori "I" agoskatzen zuten itzetan bakarrik. Gure aurrizkiaren oiñarri dan "TRES" itzaren "E" ori, beti, "E" agoskatzen zuten: _ "Tres" _ beti. Iñoiz ere ez "TRIS".

IX mendekoa dalako eta orduan lurralde artan euskera besterik itzegiten ez zalako, eskierki izen euskaldun baten later-itzulpena dugu izen ori.

Zer izenaren itzulpena?

Larrukiak damaigun izen gazteleratu orrek, aurrizki lez, "IRU" itza darama; eta, atzizki lez, lateraz ugaritasun-adierazlea dan "S" bat, ("Tres-Ore-S"). Seguruaski, "S" ori, "ETA" atzizki euskaldun ugaritasun-adierazlearen itzulpena da.

Ori guztia ontzat artzen ba'dugu, — eta lurralde ura IX mendean euskaldun utsa zala oroiturik, naitanaiez orrelako zerbait onartu bearko dugu —, "Tres-Ore-S" trakets ori IRU-ORE-TA biurtuko zaigu.

Itz orrek, enbor lez, "ORE" darama bere barruan: "Iruoreta.

"Ore" enbor duten toki-izenak eta abizenak Euskalerra guztian daude zabaldurik, Adibidez: Ore-a, Naparroa'n; Ore-aba, Bizkai'n, Etxeberria'ko Donander'en; Ore-gar, Benaparroa'n; Ore-gi (Or-egi?), Bergara'n; Ore-itia, Araba'n; Ore-ndain (Oren-dain?) Gipuzkoa'n; Ore-lla Naparroa'ko Araitz-ara-nean; Ore-ja, Ore-xa, Ori-xe, Gipuzkoa'n.

"ORE" orrek zer esan nai duan ez dakit. Kerexeta'ren ustez, gazteleraz "solar" esaten dan "Oru"ren aldakuntza da. Lopez Mendizabal'en iritziz, "avena" esan nai duan "Olo"ren aldakuntza dan "Oro"ren aldakuntza dugu.

Beraz "oru">"ore" itz-katea ontzat artzen ba'dugu, "Lugar de Tres Solares" izango litzake "Iruoeta". Eta, "olo">"oro">"ore"> itz-kate ba'da ontzat artzen duguna, "Lugar de Tres Avenales" izango litzake.

Ez zaizkit ordea neri, ez bata eta ez bestea, atsegiñegiak gertatzen.

"Iruoeta" izenak beste ebakuntza bat ere artu bait dezake: IRU-OR-ETA.

Orain "OR" dugu itzaren enborra. Ta, "O" oso errez biurtzen bait zaigu "U", agian larrukiak damaigun "OR" ori, ez ote dugu "UR" izango? "UR" dar-maten itzak, aneika ezagutuko dituzu. Ur-a-n(eufonikoa)-tzu, Gipuzkoa'ko Irun zarraren izena; Ur-ederra, Naparroa'n ibai bat; Ur-bi-eta; D'-ur-a-n(goxa-garria)-go?; Ur-bi-a Aizkorri'ren maldan; Ur-bi-on Soria'n Duero ibaia jaiotzen dan lekuan; Ur-bi-ona abizena eta Ur-arte erri-izena, Araba'n.

IRUURETA, elisis egiñez IRURETA, izan ote zan bá lumalari zar aietakoren batek TRESORES lez lateratu zuan egiazko izena, erriak asmatutako izena?.

Bi eragozpen ikusten ditut, ori ezpairik gabe egia lez aurkezteko:.

- Toki artan iru "ur" ba'diranik ez jakitea. Badakit ur aundi bat badala: Ibero edo Ebro ibaia ainzuzen. Eta beste bat, iparretik Ibero ibaian datorkion Puron izeneko ibaitxo txikia. Irugarren urik ez dut toki artan ezagutzen.

- Jatorriz "O" bat duten itzetan jatorrizko "O" ori oso errez "U" biurtzen dan bezala, alderantziz, jatorrizko "U" bat ez dala ain errez "O" biurtzen. Orrela, "berA" errez biurtzen da "beru", baiñan "buru" ez da "buro" biurtzen.

Era berean gure IRUURETA'k bigarren "u" ori jatorrizkoa izan ba'lu, lumalariak ez zuan noski IRUURETA idatziko.

Gauza zailla dala, adiskide, etimologigintza!

ETA atzizkia aipatu dugu-ta, itz bi esan nai nituzke, aurrera jarraitu aurretik, atzizki orri-buruz. Atzizki ederra, atzizki ori; oso-osoan ugaritasun adierazlea, (Arrieta, Pagoeta, Mendieta, Arantzeta, Obieta, Jolaseta...), baiñan orain toki berriei izen ematerakoan arras azturik daukaguna.

Adibidez, "polideportivo" bati euskal-izena emateko, KIROLETA dugu izen egoki bakarra. POLIKIROLDEGIA ez zait batere atsegiña. Lendabizi, iñolaz ere bearrezkoa ez dan aurizki atzerritar bat daramalako: "POLI"; eta, bigarren, "TEGI" atzizkia toki-adierazle utsa dalako, kopuruari-buruz, "neuro" edo zentzurik gabea.

Alare, ez dut KIROLDEGI itza erabat gaitzetsiko, "DEGI" orrek berdin adierazi bait dezake kirol bateko edo kirol askoko tokia dala, izen ori daraman tokia. Ain zuzen toki oietako kirolen kopurua zalantzan gelditzen dalako sortu dute gure izen-emaille oiek izen luze zakar eta trakets ori. Ez zuten ori egin bearrik, euskerak ematen bait zien jolastoki oietarako izen dotore, eder, polita: KIROLETA.

* * *

PURONE.- "...de Purone usque ad carrera erelma": "Puron'dik gurdibide basatiaraiño". Puron, Araba'n Balderexo'ko mendietan jaiotzen dan eta ama-bost kilometro arin igarota, Ibero aundiarekin alkartzen da ibaitxo baten izena da. Ez dut ezagutzen baiñan oso pol;ta omen du igarotzen duan ibarra. Kamiorik gabea oraindik. Zearo basatia.

Izen ori era ontan ebakiko nuke nik P-UR-ON. Erreza bait da, bere lenen "P" izkia protetiku edo edergarri utsa izatea.

Alare, euskaldunok "F" izkia "P" agoskatzen dugulako baleike itz ori FURON izatea ere. Baiñan ez dut uste. Era ortan ez bait luke euskal-itxurik izango, orduan Euskalerra zan lurraldeko ibaitxo orren izenak.

Bestalde, "B" eta "P" errez alkar-aldatzen diran ezkerro (barkatu, parkatu; pake, bake; bitxi, pitad; piku, biku...) Puron ori jatorriz Buron izatea ere badai-teke. Era ortan bai, izango luke euskal-itxura.

P-UR-ON ebakuntza egokitzat artzen ba'dugu, "ON", — nominativo eran "ONA" —, ugaritasun adierazle dalako, PURON, "protetiku" edo edergaillu utsa duan "P" kenduta, URON biurtzen da, eta URON, URTIA izango litza-ke. Baiñan ez digu etimologi orrek balio, ibaitxo ura !a ttanto batzuk besterik ez daramakian ibaitxo apal bat besterik ez bait da.

Orregaitik, ez naiz zalea baiñan, emen, Naparroa'ko UREDERRA ibaiaren EDER ori bezala, eta orain Burgos'koa dan URBEL ibaiaren BEL (oraingo euskeraren BELTZ) ori bezala, era berean, adjetibu edo itzlaguntzaille lez artuko nuke nik oraingo ontan PURON itzaren amaierako "ON" ori ere. Orre-la, "Uron", "Agua Buena" izango litzaiguke. Egoki dagokion izena, ur aratz oneko ibaitxo amorraitsua ornen da bá gure Puron ori.

Beti, jakiña, Puron'en "P" ori edergaillu utsa dalako ustean.

Baiñan, alatagutziz, Naparroa'ko Urantzi'n bada PURANTO abizena, Lopez Mendizabal'en ustez, Iranzo'ren aldakuntza. Jauzi aundiegia dala ematen du, Iranzo'tik Puranto'rako jauzia. Orregaitik Puranto abizen ori, ez ote da, "P" edergaillu batekin Uranto'ren aldakuntza?.

Egoki bait dirudi gaiñera, URANTO izatea, bere sorlekua URANTZI'n duan abizena. Berdiña izango bait litzake gaiñera bi izen oien etimologia: "Toki Urtsua".

Orrela ba'litz, senide bezala agertuko litzaizkiguke Uranto abizena, Urantzi, abizen orren jaioterria, eta Urantzu, Irun zarraren izena. Ta, danen zentzua, "Ur Askoko Tokia" izango litzake.

Ez dakit esan dudan, baiñan Naparroa'ko URANTZI'ri gaur, Los Arcos esaten zaio.

Puron ibaiaren ertzean dago gaur HERRRAN eta antziña artan FERRAN esaten zitzaion erriska. Ainzuzen an zegoan larruki onek aipatzen dituan emaitzen elburua: Martin Deunaren lekaidetxea.

Ferran ori, eta orren ondorengoa dan Herrera edo Errera, naitanaiez izen euskaldunak dira. Baita Ferrera ere, Ibero ibaiaren alboan 1.176'ean aski zarra zan gaztelu naparra. Eta baita leenago — 1.031'ko larruki batean —, agertzen zaigun ¿Mena-Arane'ko? beste Ferrera bat ere.

"Ferrum", lateraz "burni" dugu. "Ferraria" berriz "burni-meatza". Baiñan Puron ibaitxoaren lurretan ez da sekulan ez burnirik ez beste iñolako meatzik izan. Gure Errera ori, ez zitekean, ezta, "Perrategi" izan ere, gure larruki au IX mendekoa dan ezkerro. Abereak perratzeko perra ez bait zan XII mendera arte sortu!.

1.100'garren urtearen ingurukoak ditugu perraren aurreneko aipuak.

Eta ainzuzen, perra oiek asmatu izatea dugu, langintzaren edestian asma-ketarik aundienetako bat, ekonomiari-buruzko iraultzarik aundien eta onura-garrienetako bat.

Bestalde, "ERRE" daramakiten abizen eta toki-izenak ugarl ditugu Euskal-erri guztian: Erre, abizena; Errea, Naparroa'ko Esteribarr'en auzo bat, eta Araba'ko Kontrasta'n eta Egilaz'n eta Naparroa'ko Uterga'n toki-izena. Errezil, erri giputza; Erregibel, Zuberoa'n toki-izena ta abizena; berdin Erretzu Asteasu'n. Eta, Erretzu ori bera, Zuberoa'n mendi bat. Errezabal, Elgoibar'ko baserria; Errezi, Gipuzkoa'ko Itsaso erriskan baserria. Eta erriska orren albo-ko Ezkioga'n, Errebain, alor baten izena da.

Izen eta abizen oien etimologia agertzeko, "ERRE" zer dan jakin bear genduke. Eta ez da gauza erreza. Nik beintzat ez dakit zer izan daitekean.

Mitxelena'k, bide errezetik joz, "erre" ori "quemado" dala esaten du. Baiñan ori esatean iruzur dagio irakurleari. Etimologi orrek, berak aipatzen dituan "Olhaerrea" eta "Etxaerre"rentzat balio ba'du, guk eman ditugun abizen eta toki-izen oientzat, — eta orrelako beste askorentzat —, ez bait du batere balio. Eztare, ez luke balioko Mitxelenak berak dakartzkian "Echaerre" ta "Hecharreta" oientzat, jatorriz "Echaerre" eta Hecharreta" oiek "Etxarren" eta "Etxarreneta" ba'lira. "Etxerren", "Etxarren" eta "Etxarri", beste sustrai batetik sortutako izenak bait dira.

Ez du balio Mitxelena'k berak damaigun "Olarreaga"rentzat ere. Izen ori, "Ola-Erre-Aga" ez baiña "Olarre-Aga" dala iduritzen bait zait neri. Geiegi dira bá "Olarraitz", "Olarreaga", "Olarraga", "Olarraa", "Olarra", "Olarre", "Olarrea", "Olarreta" "Olarralde" eta "Olarrain" bezalako izenak, Euskalerrian suak kiskaldutako ainbeste ola erre izateko.

"Olar" zer dan jakiten dago koxka. Mitxelena'k ez du aipatzen. Bai ordea Lopez Mendizabal'dar ixaka ikerlari tolosarrak. Eta asmatu edo asmatu ez, ba'du beintzat onek, arazoari askapen bat ematen saiatu izateko merezimendua. "Olar", "sasi", gaztelarazko "zarza" dala esaten du. Ez dakit nondik aterata, gure iztegiek orrelakorik ez bait diote.

Nik, utsegiteko bldur aundiz, argi-argi suaren ondorioekin zer ikusirik ez duten mota ontako izenen oiñarria "LARRE" dala esango nuke, aurretik "O" protetiku edo edergarri uts bat dutela. Nere aburua ontzat artu ba'daiteke, "Olarreta" "Larreta" izango genduke, "Olarralde" "Larralde", "Olarreaga" "Larreaga", eta abar.

Ez dizut, irakurle, nere aburu onen alde borroka aundirik egingo, eta pozik artuko dizut zuk asma dezakezun beste edozein, nere onek baiño egokiagoa ba'dirudi.

Gure larruki onen Errera'k bezala "ERRE" aurrizkitzat daramaten izenentzat ez dut abururik. Ez dakit aurrizki orrek zer esan dezakean. Lopez Mendizabal'en ustez, "ERRE" ori, "ERRO"ren aldakuntza ornen da. Iztegiek ez diote zentzu ori ematen. Ezta erriak ere. Erriarentzat eta gure iztegiek, "erro", "zain" da; "sustrai"; gaztelaraz "raíz". Baiñan bere egizko zentzu ontan arturik, ez zait "ERRO", ainbeste abizen eta toki-izentzat erro egokia idurltzen. "Lugar de Raices" asko, geiegi, irtengo bait litza;zkiguke.

FOCE.- "... Sancti Adriani de Foce": "Foze'ko Adrian donearena". Itz ori, ibaia duan arrupe estu luze bati esaten zitzaion lateraz.

Erriak larruki ontako arrupe ari zer izen ematen zion ez dakigu.

Sortzen digu arazo txiki bat larruki ontan dakusgun Foce orrek. Ikus:

Joan Corominas'ek bere iztegian, FOZ itza lenego aldiz 1.011'ko dokumentu batean agertzen dala dio. FOC bezala idatzia. FOCE lez idatzirik berriz, 1.031'an. Bai bata eta bai bestea, XI garren mendean beraz. Gure larrukia ordea, 200 urte Ieenagokoa da. IX mendekoa. Corominas'ek ez ote zuan gure larruki au ezagutzen? Ez da sinistekoa. Beraz, XI mendean sartu zan gure larrukira FOCE itza, lenen lumalariak IX mendean idatzitako euskal-izen batetik laterazko itz batera jauzi egiñez.

Corominas'ek itz ori gaztelerara noiz sartu zan esan nai ote digu? Baiñan IX mendean gaztelerarik ez zan. Mende ortako larrukiak lateraz datoz guztiak.

Gaur-egun FOZ itza, Naparroa'ko gazteleran bakarrik jarraitzen du bizirik: La Foz de Irati, adibidez.

"HOZ" bezala ere oso berandu agertu zan itz ori gaztelerazko idazkietan, Martin Alonso'k bere iztegi izentsuan dioskunez: XIV mendean, Don Juan Manuel erregesemearen "Eizari-Buruz" esan oi zaion liburuan aurrena, eta Mariana josulagunaren "Edestia"n gero; XVII mendearen asieran.

"Foz" oiñarri duten itz bat edo beste izan ditugu Euskalerrian: 1.275'eko larruki batean agertzen zaigun FOZANO adibidez. Araba'ko Trebiño'n zegoan erria.

"ANO"eta "NO", ugaritasun adierazle diran atzizkiak ditugu: Arri-ano, "toki arri-sua", Araba'n Kuartango'ko erri bat da. Zurbano, Araba'n bertan: "zurba (basa-mizpiri) askoko tokia". Amo, "toki arri-sua", Motriko'ko mendia dugu.

Gaur egun Trebiño'ko 1.275'eko Fozano arri, OZANA esaten zaio. Izen ori bera zuan eskierki erriska orrek 1.275'ean ere. Eta, izenaren asierako "OZ" orrek XIII mendeko lumalari gaztelar ari ezer esaten ez ziolako, aurretik "F" bat ipiñiz, beretzat zentzu ulerterrezagoa zualako, erriaren OZANA Fozano biurtu zigun.

Alatagutziz, Araba'ko Fozana bat aipatzen digute XI eta XII mendeetan Leire'ko larrukiek ere. Eta beste Foze bat agertzen da, — gaurko Hoz de Mena seguruaski —1.031'ko dokumentu batean.

"OZE", "OZA", eta "OZ" utsez, eratutako abizen eta toki-izen ugari badugu Euskalerrian: Hoz, Araba'n Añana'ko Gatzaga'n; Hozta, Benaparroa'n; Ozta, Laburdi'n eta Naparroa'ko Arakil-Aranean; Osta, Laburdi'n; Ozerin, Zeanuri'n. Ozaeta berriz, Madoz'ek dioskunez, Araba'ko Barrundi'n erri bat izateaz gaiñera, auzo bat ornen zan Arrasate'ko Udala'n, eta torre-etxe bat Bergara'n. Ziurki zuk ere ezagutuko dituzu orrelako izenak ugari.

Itz oietan OZ zer izan daitekean jakitea da gauza zailla, etimologilariak ematen dituzten azalpenak ez bait zaizkit geiegi gustatzen. Geien-geienetan beintzat ez du "OZ" orrek beroaren aurkakoa dan "otzarekin" zer ikusirik.

Foce'ren orde, zer izen idatzi ote zuan lenengo lumalariak? Ez dakigu.

Danadala, larruki ontan Foce orrek naiz "F" aundiz agertu, erri batena ez baiña egiazko arrupe baten izena dala dirudi, izen ori, Erran'go lekaidetxeari emandako lurren mugak agertzeko, lumalariak bigarren aldiz ematen digunean, "... et de Purone usque ad carrera erelma, sicut perrexit ad Foce", "Puron'etik gurdibide basatia Foce'n sartzen dan tokiraño", esaten bait digu.

Baiñan, alare, lumalariak, itz ori, beti "F" aundiz idazten duala kontuan artu bearko litzakela derizkiot.

Aipatu-berri dugun laterazko esaldi ortan iru itz egingo zaizkie zail, segu-ruaski, gure laterazaleei: .

"Carrera". Ez dute laterazko iztegiek aipatzen. Erdiaroan sortutako itza bait da. Ona zer dion Du Cange'k bere erdiaroko lateraren iztegi ederrean: "Carrera: Vía per quam **carrus** transire potest: Gurdia erabilll daitekean bidea". Azpimarraketa, berea du. Itz ori españiarra dala dio. Ederki!

Españi'n izan bait zan lekaideek eta apaizek laterazko "currus" "carrus", biurtua. Eta, agian, emen, Euskalerrian. Euskalerrriak sortu zuan ba gaztelera. Ez noski euskeraz itzegiten zuan erriak; baiñan bai, euskeraz itzegiten zuan erriaren apaiz, lekaide eta jakintsuek.

Ortaz ordea badut noizbait itzegiteko gogoia.

"Erelma". "Carrera erelma". Erelma ori ez da latera, ez Erroma'ko inperatoreen denborakoa, ez erdiaroko lekaideen denborakoa. Lumalariaren utsune bat izango da noski. "Eremia", eremu esan nai duan erdiaroko lateraren itza dalako, nik "basati" itzuli dut. Laterazko "eremus"tik sortuak ditugu, "lur bakartia" esan nai duan gure "eremu", eta esannai bera duan gaztelera "yermo".

"Perrexit". Gutxitan ibilli oi dan "perrepo" aditzaren preteritu edo iraganke-
ra. "Sartu", esan nai du.

~~*

FOCILIO.- "Foz" bera da, ttipieran. Ots, "diminutibu-eran". "Sancti lohane de Focilio". Antziñako jende aiek FOCILLO irakurtzen zuten Focilio ori, "LI" idazten bait zuten "LL" ren abotsa. Baita noizbeinka, IL edo ILL ere, eta, oso maiz, "LH". Geroago, erdiaroka bere azkenera zijoanean, "LL".

Iru era oietatik, gaztelarak, "LL" era artu zuan beretzat. Frantzerak IL (Travail). Portugaldarrek "LH" rekin jarraitzen dute (batalha, cavalho). Arana'tar Sabiñ'ek, aburu zuzenez, "L kapelduna" artu zuan euskerarako. El Batua zaleek berriz, "IL" artu dute. Euskera nasiagoa eta zaillagoa egiteko?.

Orrela, "pailasoa" idazten dute, "pallasoa" irakurtzeko.

"Pallasoa"? Zergaitik "payasoa" "pallasoa" biurtzen duten? " Erriak ain maiz erabiltzen duan "Y" izkiari izugarrizko gorrotoa diotelako. Zergaitik? Iñork ez daki. Ezta beraiek ere. Argi erakutsi zigun Mitxelena'tar Koldobika'k, Bergara'n Euskaltzaindiak egin zuan Batzar doakabe aren altzoan, "Y"ri dioten gorroto ori. "Yayoyayoa" nola idatzi bear dan erakusterakoan, olbeltzean DDADDODDADDOA idatzi bait zigun.

Naiz guraso euskaldunen seme, euskera azturik zeukan eta gero ikasi bear izan zuan Mitxelena'rentzat berdiñak ziran agian "Y" eta "D" bustiaren doiñuak, baiñan egiazko euskaldunek errez bereizten dituzte bi doiñu oiek.

Orregaitik agian, euskaltzainditarrek "payaso"ren "Y" ori kentzerakoan ez dute "PADDASO" idazten, "PAILASO" baizik, "PALLASO" irakurria izan dedin. Baiñan euskaldunok ez gera andaluziarrak. Guk ederki bereizten ditugu, "LL"ren eta "Y"ren doiñuak.

Erokeriaren arloko arazoa ere badirudi, Erriak ain ugari erabilli oi dituan "Y", "LL" eta "Ñ" izkiei euskaltzainditarrek dieten gorrotoa, eta %95 euskal-

dunen ezpainetan sekulan agoskatu ez dan eta euskaltzainditarren araura sekulan agoskatu ere bear ez dan "H" izkiari dioten maittakeri zentzurik gabea.

CASTELLEENSE.- Aurreneko "E" ori "I" irakurtzen zutelako, "Castillense" irakurri bear da izen ori.

Dokumentu zarretan, ots, XII mendearen aurretiko dokumentuetan, Gaztela'ren aipuek ez dute sinispen sendoegirik merezi, dokumentu zar oiek, gero, oso maiz aldatuak izan bait ziran, eta gezur eta ustelkeri asko sartu bait zan beren lerroetara, Gaztela'ren izena goraiatzeko.

Neri oso goiztarra iruditzen zait IX mendea, mende ortako larruki batean Gaztela'ren izena agertu aal izateko.

Esan dezadan berriro: Geroago trakestuak izan ziralako ez dute garai zaar-zaar aietako dokumentuek uste on ziurrik merezi. Ziurragoak zaizkigu, arabitarren idaztiak. Eta arabitarrek Araba'ri erasotzen ziotenean, — ia urtero gertatzen zan gauza —, Araba'ri eta AL KILE'ri erasotzen zietela esan oi zuten. "Al Kile" itzak, "Gazteluak" esan nai du arabieraz. Al-Kile edo Gaztelueta ortan sortu zan geroagoko Gaztela.

Baiñan Al Kile aien babesleak euskaldunak ziran ezpairik gabe. Arabarrak ainzuzen. Araba'ren ego eta sarkaldekoak: autrigoiak.

Gaztela, Konterri lez Euskalerrian sortu zan. Euskaldunek sortu zuten. Eta Gaztela'ko Konterriaren lenengo Konteak, bai endaz bai elez, euskaldunak izan ziran.

Ain zuzen Errodrigo bat aipatzen digu larruki onek: "...regnante Rudericus comite in Castella": "Gaztela'n agintari, Errodrigo kontea zala".

Arabitarrek ere aipatu zuten garai artako Errodrigo bat. Ala, Aben Adhari edestilariak, 865'ean, Ruderik aipatzen du Al-Kile edo Gaztelueta Jaun bezala. 7 urte geroago gure larrukian agertzen zaigun Rudericus au bera, ezpairik gabe.

Oraingoan, Aben Adhari'k aipatzen dituan "kile" edo gazteluak, gaur Burgos'ko lurraldea dan Bureba'n zeuden. Baiñan ez dirudi Al-Kile aietako "Jauna" zala dion Ruderik ura, Al-Kile'ko Kontea zanik, titulo bereko beste "Jaun" batzuk ere aipatzen bait ditu lurralde berean: izena irakurtzerik ez dagoan Toka'ko Jauna, Gundisab Burgia'ko Jauna, eta Gomez, Mesanika'ko Jauna.

Konterri lez Gaztela'k bere sorkuntza Euskalerrinari zor ba'zion, era berean zor izan zion Erreiñu bezala bere sorkuntza. Gure Errege batek, III Santxo Nagusiak egin bait zuan Erreiñu, Gaztela'ko Konterria.

Ez zuan Euskalerriak, bere altzotik, nolanaiko sugegorri maltzurra sortu!

Giza-izenei dagokienez, ona larruki ontan agertzen diranak. Izki nagusiz emango ditut axolagarri zaizkigunak:.

Paulus, Iohannes, NUNNO, VIGILA, ARISKUS, Gaton, Todoricus, Felmirus, Gimellus, Severus, SARRAZINUS, VLAQUIDUS, ENNECUS, Gamaiso, Beato, Lisidio.

ENNECUS.- "Ennecus presbiter testis": "Enneko bereterra lekuko".

Iñaki Donea euskalduna izan zalako, jende xearen artean naiko jakin-nai sortzen duan izen ori artu nai dut lenen azterketa-gai. Eta au da esan nai dutana:.

- "Enneko" eta "Iñigo", izen bera dirala.

- "Iñigo"k eta "Iñazio"k, naiz doiñuari dagokionez, kidetasun pittin bat agertu, beren artean zer-ikusirik ez duten izenak dirala.

Enneko nola Iñigo biurtu zan? Euskeraren fonetika edo "agoskatze-arauak jarraituz. Ikus nola:.

1º: Izen ori, Enneko", "Eñeko" esaten zalako, ("Ñ" agoskatzen bait ziran bere bi "NN" oiek). EÑEKO dugu beraz izen ori.

2'n: "Ñ" baten aurrean, "E", "I" biurtzen dalako", "Eñeko"tik IÑEKO atera zitzaigun.

3'n: Izkuntza guztietan, izki gogorrak, izki goxo biurtzeko joera aundia nabarmentzen dalako. Gure izkuntzan berelziki "K" errez "G" biurtzen dalako, (komendatu-gomendatu, korpua-gorpua, kaltzak-galtzak), Iñeko'tik IÑEGO sortu zitzaigun.

4'n: ta izki goxoen aurrean ere "E" "I" biurtzen dalako, azkenean, "Iñego" IÑIGO biurturik gelditu zan.

Eta aldaketa ori, Euskeraren barruan egin zan. Ez da beraz egia, Enneko euskal-izena, eta Iñigo gaztelarazkoa diranik. Baiñan, aldaketa orrek, oso-oso antziña egiña izan bear du, laister esango dugunez.

"Iñigo" eta "iñazlo", batak bestearekin zer-ikusirik ez duten izenak dira:.

Iñigo, Loiola'ko zaldunaren bataio-izena zan. Iñigo zaldunak, apaiz eglnda, Erroma'n zegoala aldatu zuan izenez. Iñigo utzi eta Ignatius artu zuan, II mendearen asieran mariri il zan Ignazio Antioki'ko gotzai Doneari zion eraspentak eraginda.

Bare zaartasunaz ere, ongi irabazirik dauka ENNEKO izenak ikerketa bereizi bat. Bera bait da gaur egun erabiltzen ditugun giza-izen euskaldunen artean, danetan zaarrena. Kristo'ren denborakoa alajaiña! Entzun:.

Josu gurutzean ilda, andik irurogeiren bat urtera, Domiziano inperatore zala, 90'garren urtean, erromar-urikidetza eman zitzaizen Erroma'ren zaldundi-talde bateko gudari "baskoi" batzuei.

Aietako batek, Elandus Enneges zuan izena. "Enneges" orrek ordea, ENNEGO'ren semea esan nai bait du, gudari orren aitak ENNEGO zuan izena, Gure irakurtzeko eran, IÑIGO. A! eta Josu il zan urtearen inguruan jaio zan noski, bere semeak 90'garren urtean 25'en bat urte gutxienez izango zituan ezkeru.

Josukristo'ren garaiekua dugu beraz Enneko edo Ennego izena.

Baiñan ikus emen izen orri-buruzko arazo txiki bat:.

"Erroma'ko urikide", "civis romanus" egindako gudari aren abizena, "Enneges", IÑIGES, (edo Iñlgez), irakurri bear dan ezkeru, ez ote genezake gaztelararen patronimiko edo aita-adierazle dan — eta asieran oso maiz "ES" idatzi oi zuten — "EZ" atzikia (Fernad-ez, Ibañ-ez, Nuñ-ez, Iñig-ez), gaztele-ra sortu baiño milla ta geiago urtez aurretik euskeraren altzoan bizirik zegoan aita-adierazle euskaldunak zala esan?.

Ez aztu, euskeraren lurrean sortu zala gaztelera.

Orra or, gai txit jakingarri, eta azterketa bereizi bat baike merezi duan arazo txiki polit bat.

Erroma'ko gertakizun artaz gero, ENNEKO lez idatzia agertuko zaigu beti,edo beintzat geien-geienetan, izen zaar ori. Nik ezagutzen dutan, izen orren idazketarik zarrena, jatorriz erdi-euskalduna eta izkuntzaz euskaldun osoa zan II Albontsa Asturietako erregeak idatzitako larrukian agertzen zaiguna da: "Ennekonem clericum": "Enneko elizgizona". ("Enneko", esaldi ortan, "Ennecōnem" bihurturik ikusten ba'duzu, izen ori or akusatibu-eran dagoalako da).

Izan zan izen ortako Done bat ere. Ona, berari-buruz "Bibliotheca Sanctorum" deritzan 14 liburu aundiko iztegiak dioskuna: "Enecone (sp. Innego, Iñigo), abate di San Salvatore de Oña. Nacque (jaio zan) sembra (dirudianez) a Bilbilis in Spagna, oggi (gaur) Calatayud, de genitori (guraso) mozarabici".

Mutil gaztea zala, Aitzeko Donibane'ren lekaidetxera joan ornen zan. "Aitzeko" lekaidetxe ori, "San Juan de la Peña", Goi-Aragoi'en zegoan, —eta dago —, Jaka uriaren alboan. Orduango Aragoi ori, zearo euskalduna zan, eta Naparroa'ko Erreñu euskaldunaren zati.

Apaiz egjñik, mendira joan ornen zan, bakartasunean bizi-zale.. Santxo Naparroa'ko Erregeak atera ornen zuan bakartasun artatik, Oña'ko Salvatore Deunaren Lekaidetxeko abata egiteko. Eta, an, erregeen aldetiko eraspentadierazle ziran doai asko jaso ornen zituari. Naparroa'ko errege Gartzia, I Fernando eta II Santxo'k emanak: "da parte del re di Navarra, Garzia, Ferdinando I e Sancio II".

1.068'ko Uztaillaren 1'ean il zan.

Enneko Doneak Oña'ko abata lez idatzierazitako larrukiak baditugu.

Zer esan euskal-izena daraman Done ontaz? Euskalerrian eta euskaldunen artean ibilli zala beti, naiz euskaldun ez zan un batean jaio, Kalatayud'en jaio zala egia baldin ba'da beintzat.

Kalatayud ez dirudi sekulan euskalduna izan zanik, naiz Euskalerrri zarreko mugetatik oso bertan egon. "Baskoiak" (gaur-egungo naparrak) insten bait ziran Jalon ibaiaren ibarraraiño. Baiñan ibai orren iparrean soilki. "Baskoia" zan Alagon uriaren inguruan.

Kalatayud, orduan, arabitarren mendean zegoan. Orregaitik dio noski aipatutako Iztegiak, Doneeneko'ren gurasoak mozarabitarak izan zirala, ots, arabitarren menpean bizi ziran kristauak. Ez dakigu ordea ori egia dan; Kalatayud'en jaio zala ere, egia danik ez bait dakigu.

Aipatzen dituan erregeei-buruz, oker bat badagi Iztegi orrek.

Enneko Donea Oña'ko abata egin zuan Santxo erregea, Naparroa'ko III'a izan zan: "Santxo Nagusia.

I Fernando eta II Santxo, ez ziran Naparroa'ko Erregeak izan iztegi orrek uste duan bezala, Gaztela'koak baizik. Gartzia, bai; III Gartzia Naparroa'ko Errege izan zan. "Gartzia Naxera'koa" esan oi zaio, Errioxa'ko Naxera Euskalerrriaren uriburu egin zualako.

Naparroa'ko III Gartzia au, eta Gaztela'ko I Fernando, anaiak ziran: Naparroa'ko III Santxo Nagusiaren semeak.

Errege onek -Naparroa'ko III Santxo "Nagusia"-k- biurtu zuan Erreñu, Gaztela'ko Konterria, 1.035'garren urtean. Eta Fernando bere semea egin zuan erreñu berri ortako lenen Errege.

Errege Euskaldun batek Naparroa'ko III Santxo'k sortu zuan beraz Gazte-
la'ko erreñua, eta euskalduna izan zuan onek, bai odolez bai izkuntzaz, bere
aurreneko Erregea: I Fernando.

Zoritarrez, laister asarretu ziran bi anaiak, eta Atapuerka'ko borrokaldian
galdu zuan bizia III Gartzia Naparroa'ko Erregeak. Garaille irten zan I Fernan-
do "gaztelarra".

Arrezkero, etengaitza izango da, Euskalerrria menderatu nai izateko Gazte-
la'ko Erregeen abata.


Enneko Oña'ko abataren omenez esan bearra da, al zuan guztia egin
zuala bi anaien arteko borrokaldi mingarri ura eragozteko.

ENNEKO, naiz era ez berdiñean idatzia, oso maiz agertzen da edestia-
zear euskal-dokumentuetan: Enneko, Ennego, Eneko, Enego, Innego, Iñi-
go... Femenino edo emakeran, Enneka, eta bereiziki, Onneka. Baita, nola ez,
Honneka ere, "H"z orniturik. Baiñan, era ortan, geienetan beintzat, atzerrian;
eta euskeraz ez zekiten atzerritarrek idatzita.

Esan dezagun, irazean, gure larruki ontan ez dala "H" bat bakarrik ager-
tzen, Johannes Donibane Ebangelariaren izena izan ezik. Baiñan erdiaroan,
gure au bezala lateraz idatzitako dokumentuetan, "H" ori Johannes izenari
sartzea, kristaudi zabalean oiturazko gauza zan.

Latiegi'tar Bixente

P.D. Idazlan ontako akatsak zuzentzen ain ederki lagundu didan Anjel Ibisate apaiz jaun
adiskide jakintsuari eskerrik asko eman bearrean aurkitzen naiz.





GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN EUZKERAZ EGINDAKO URATS TXIKIAK IZADIA

Zerote da IZADIA?; zein ote itz onen barne-barneko zentzuna?; nola ule dezakegu zentzun ori? Gizon guztiak ez datoz batera IZADIA itzaren esan-naya adierazteko; alaz ere, geron ustez, ezin esan dezakegu gai oni buruz "buru bezenbat aburu" esakunaren erakuspenaz, emen aburuak buruak baño askoz gutxiago diralako, ta galga guztietan barna, zentzun oroka az, bi iritzi oso zabalak agertzen dira, nolabait gizonak bi talde aundietan kokaturik dauzkatela: siñistunena ta siñisgabekoena.

O ela, lenengoentzat IZADIA Yainkoa'k so erazi dituen gauza guztien multzoa edo da; biga enentzat, ordea, berez egiñak diran gauza guztien multzoa. Bientzat 'gauza guztien multzoa', alegia; ta izatera nola eldu diran erak edo eltzeko ibilitako bideak dira beren arteko ezberdintasun aundi ta sakona.

Geron aldetik lenengo taldea dugu egia duena bezela. Alde batetik burua da argi erakusten diguna; noski, nola uka diteke egiña dagoenak, ala bearik, bere egilea dala erakusten digula? Egiterik gabe egiña ezin. Eta ba-dira amai-ka gauzak eta izakiak egiñak dagozela, naiz aundi naiz txiki, naiz zabaldian barna dabilzatenak naiz txikitasunean geron begiez ezin ikusi ditzakegunak; batzuk igitzen ari dira izuga izkoa dan ibileran, beste batzuk, gayezkoak diranak, geldi-geldirik dagozenak; bizidun eta zentzundun auek edo ayek, bizi-gabe ta zentzunik gabe emengoak edo angoak. Bizi ta zentzunari buruz zenbat eta zenbat ezagutzen ditugula; besteeetatik ere zenbat mota. Oro batera begirutzen, nola ez uste ba-dagoela norbait guziak irazan eta antolatu ditue-la? Bidezkoa, bai, benetan, norbait ori bizi ta ari dala, betidanik eta betidaño bizi ta ari, almen eta inda guztia berez dauzkala, siñistunok Yainkoa deitzen duguna.

Buruaz baka ik, ezinbestekoa dan ondorio ortaraño eldu gaitetzke, al a bea ez. Baña ba-dugu Idazteuna orixe bera esaten diguna, ain aintzakotzat artu bear' dugun Idazteuna, aspaldi-aspaldian idatzita izan zena; ta ez Idazle batek baka ik egiña, batzuek baño; lenengoz iragarleak eta gero beri-ona eman zigutenak eta bidaliak ere. Ba-dagoz idazti ontan iragarpenak, oso aintziñan egindako iragarpenak, eta guziak bete ziran aldi egoki batean, ain zuen, Yosukristo notiñarengan; eta betetze ortan. dago, bereziki, idaztian

dagoena egia dala egiztatzea. Eta idazti deun ortan irazapenez itzegiten zai-
gu. Alakotz, nola ez dugu siñistu bea irazapena izan zala tanbera egindako
irazolea ere bizi zala ta oro egin zuela be?

Alaz ere, gizonak aldietan barna, a okeriz, ez dute nai-izan irazapenaren
asmoa onartu, ta beren kabuz beste bidetik azaldu nai-izan dute guzia, adi-
mendunak ere berez diralakoan; eta ez dute artu gura-izan beren adimenak
azaltzen diena baño besterik. Eta zer lortu dute?, nolakoak dira atera dituz-
ten ondorioak? Argi agertzen da, benetan, guztia utza izan dala, ezinbeste-
koa zanez. Au erabidea dala diñote ta aur'erabide ortan aurkitu nai dute iza-
dien barna dagoen eta gertatzen dan guztia. Baña auferabide oek bea erz-
koa danez, asiera izan bear du, ta ona emen nola ikusten duten asiera ori:

Bein, noiz izan zan ikusi eziñean, zibizti bat (bizi gabeko gaya) kizkiña (bizi-
duna dana) biurtu zan, eta ori izan edo zan biziaren asiera. Idazti onen lenen-
go lanean, biziari buruz egiña dan ortan, asmo onezaz galdera batzuk egin
ditugu: Biurtze ori bein bakañk gertatu al zan?, eta zergatik bein baka ik?;
nola eldu zan biurtze ori?; zein ekayan izan zan egipen ori?; zergatik ekai
batean eta ez besteetan ere?

Amaika o elako galderak egin genitzake, guziak, jakiña, erantzun egokirik
ez izateko. Orduan au erabide edo aldakunde ori, ezer egiztatu eziñean,
siñistu beat da nai ta nai ez. Eta siñistu gizonak egindako ustea?; ez ote da
amaika bider bidezkoagoa izaki bat siñistu?, Yainkoa deitzen duguna? Eta
aldi guzietako gizonen baitan izan eta bizi-izan da Yainkoa'ren asmoa; ta
Idazteunean agertzen da asmo ori bera zeatzez emanda. Beraz, askoz
bidezkoa izan bear Yainkoa siñistu au erabidea baño.

Dana dala, Izadia ementxe dugu gaur ere, len izan zanez eta gerokoan be
izango danez. Gure inguru guzian ikus dezakegu Izadia ta geron buruan be
bertan kokaturik azaltzen da. Izadia, bizidun eta bizigabe guztien multzoa da,
ororen multzoa noski; ez, gañera, guztia bizirik gabe dagoen zerbait bezela,
bizidunak amaika baitira ta eten gabe ari zaizkigu, ari ta ari, beti igitzean.

Baña bidizunak izan gabe of dugu, zabalduan barna igitzen ari diran izat
eta izarbela mil oika; guztiz neurtuta dagoen igipenean beti, ezertxoaz aldatu
gabe. Nundik datorkie gayezkoak diran gorputz oyei igipen o ezaz ari-izateko
almena? Berez?, nork ori uste?

Lu aren gañean amaika dira bizidunak eta bizigabeak ere. Bizidunetatik,
batzuk lu ean bizi dira, beste batzuk uretan, aidetan be asko ta ugari, bakoi-
tza bere bizieraz, beti berdiña dana, beste era batera aldatzea eziña zayela;
ba-dute, alarik ere, bakoitzak berea, bizi ta ari-izateko beren sena; nork
eman die oyei beren sen ori?; nork eman die guziaz dagokien jokera berezi
ori? Beste aldetik bizigabeak, bizirik ez dutenak, ba-dute bakoitzak bere
berezitasuna, gizonak bere ba etarako ustiatzen duena, amaika gauzetarako
bakoitza gai egokia izanik. Nundik datorkie oyei gai on eta onuragañ izateko
berezitasuna? Nork esango du berberak so erazi dutela beren izatean bere-
zitasun ori?

Ta lu gañean be gizona dugu, gorputz eta arima dala, izaki guzieren artean
garaitasun aundiena duena. Ba-du soñean bere bizi, beste zentzundunen-
aren antzekoa dana, baño ba-du bere ariman ere gogozko bizi berezia, beste
iñun ikusten ez tana, ta esandako beste bizi orek soñarena bere jokera
aldatu dezakena.

Gizonaren gorputza zatí batzuek, asko, osotzen dute, ta zati bakoitzak bere eginbea a betetzen du zeatzez, o ela zati guziek gorputzaren biziari eusten diote egokienik, bizi ori izan al diteken ata yardun al dezaken ere; zati oyen eginkizunak kiri ede ean agertzen dira antolatuta, alkaf laguntzen beti ta gorputzaren bizia ongienik betetzen dutelarik. Nola ongi ulertu ain añaña dan gorputzaren antolaketa, o ela, berez sortu dala ain egokiro, gizona beste zerbaitetik sortu dala uste bada? Ori eziña dala aitortu beata zaigu, al eta ezin, eta goiko egife batengana gure oldozpenak zuzendu bea .

Baña ba-du gizonak oindiño guzti o ri baño gelgaña goa dan beste zerbait, bere gogoa, ta gizonaren gogoan almenak ugari agertzen zaizkigu, beste iñungo izakirik aurkeztu ezin ditzakenak. Ortxe dugu, lenengoz, adimena, gauza guztiak nolakoak diran ikusi al-izateko, bizia bera ta biziaren agerpenak zeatzez ulertu al-izateko be; bai ta oldozpenak izateko, ta gogozkoak diran beste almen guztiak zeintzuk diran, nola jokutzen duten eta jokera guztiak aldatzeko ere almena duena. Adimenak zuzendu ditzake gogozkoa dan bizian age diteken edozer eta oro. Bai aundia dala adimenaren almena.

Eta beste almenak, aunitz, aipatu ditezke, bakoitzak bere eginkizun berezia duela; Oldozmena, gogamena, oroimena, ulermena, oarmena, zentzumenena, irudimena, ezagumena, asmamena, naimena ta aba . Ba-dago of gogoberastasuna, mugarik eztuela iruditzen dana, ta gizona goi-goyeneko Izakia dala egiztatzen duena. Bidezkoa da, o engatik, gizona, bein jayo ezker, il zko a dala ustea; egia da gorputza iltzen dala, baño nola il diteke bere ani - ma?; eziña bezela agertzen da ori ta, o engatik, lu - gañean ez baño beste nunbait ja aitua bear duela. Yainkoa'k emango dio bakoitzari beste nunbait ori, gorputza il ondoren noski, jakiña guztia so erazi duen Yainkoa. Ota Izakia ulertzeko bide egokiena ta beata, siñistunok onartzen eta ja aitzen duguna. Nola azaldu ditzateke siñisgabekoek Izakia ta bere bizi guztia? Eziña zayela esan beaf, zalantzik gabe, ta orain arte aurkeztuak izan diran beste azalpen guztiak oñañrik gabekoak bezela agertzen dira oso, ta siñistunen azalpena goi-goyan geratzen da indar aundienaz.

U estarazu'ta Andoni





ITSASOKO URA

Ontzi baten barruan dagon ura, sua ezarririk berotu ezkeru, geitu egin dala dirudi; lengoa besterik ez dago, beroak alan be lengo ori azi ta arrotu egin dau.

Ura, orraitino, ezta lodien legorki (solidu) dala, lobel-eran lau bero-mailla ditula baiño. Ortik aurrera, otzago naiz beroago, toki geiago artzen dau; izotz biurtzerakoan, amar baten geitzen da bere mukulua, ta lurruntzen danean, pisilariak diñoenez, milla eguraskitik gora artzen ditu.

Egunero dakusguna: burdin-odi batek, lodiera txikikoa izanik be, urez bete ta tankan itxirik ba'dago, eztanda dago ura izoztuten danean. Gaur lurraren azalak -eta gure mendiak berariz- daukien itxura onetxeri zor yako geient-suen: arkaltz tartean sartzen dan ura, izoztu edo edurtuaz, nasaitu egin da, ta ziri baten antzera barrendurik, errez printzatu ta zartatzen ditu arri moko-riak sendoenak be. Landara ta barazkietan be indar itzala dau: landarak alikatu ta janaritzen ditun esnea, urez osotua geienbat, otzak izoztuten dauanean, azi ta arrotu egiten da; esnea gora ta berra darabilen tutu-ontziak ler-azo ta landaren bizia zurbildu egin oi da.

Ura gospel edo lurrun itzultzean, ostera, oizko legetik dabil. Ura, bere egoera itxi ta lurrun-eratzean, azi ta zabalduraz jazten yaku arrigarriri. Eun maillako beroz ta geienetako sakaz litro bat ur artu ezkeru, milla seireun ta larogeta amasei ur-lurruneraino sortzen ditu or orrek, giro bardiñean dagolarik. Uraren aldetiko lege tinko au oiñarritzat artuaz, gizonari oso aberasgarri yako ura; lurrun-indarrak bultz eraginda, guzarik astunenak be errez aldatu geinkez lurralde batetik bestera, Europa'tik Amerika'ra naiz Aprika'ra. Itxaso, esaterako, lenago arraun-eragiñez bide egiten zan, gero gizaldietan lurrunontziz, ta gaur kizi-indarrez be bai. Liorrean, lurrunez dabiltz bultziak eta ainbat eta ainbat tramankulu. Labur: beroa aldatu ta lurrun indarra darabilgu ainbat bizitz-bearrizanetan.

Uraren otz-beroa. Elak alkarri deika dagoz, eraspen-indarrez alkar estutzen dabelarik; eraspen au, ostera, legorkietan -arri bat- sendoa dozu, lobel-etan -ura- makala, ta lurrunetan -lainoa- utsa. Gauzen gogortasuna makal danean, elak, uretan lez, alkarri ezin eutsirik dagoz; orixegaitik, eskua errez-errez sartzen dogu urez beteriko ontzian, arraiñak be txairo dabiltz itxas-uretan barna; egur baten atzamarra sartzeko, baiña, egur ori zatitu egin bear dogu:

Eta, gorputz guztietan lez, uraren pisi-egoeran be eragille bi daukaguz: sakatzea ta giroa. Ura izozturik edo irakiten dagoanean, ezta giroa bakarrik

ura egoera orretan iraunazoten dauana, egur atseko sakeak be bere arloa dauka-ta. Saka onek goitik eta alboetatik sakatzen dau ura. Munduak, izan be, bere gain guztian -abereak arnas artzeko batez be- eguratsa dauka, airea, aizea; egurats au eztoгу ikusten, baiña somatu bai, lbilli dabillenean batez be, orduan aize dozu-ta. Eguratsak, urak lez, pixua dau, ta pixu orrek saka dagi beerantza ta alboetarantza. Litro bete eguratsek, itxas-goieran, 1'29 aztaki daukaz; lur borobillaren azaletik -goiera neurritz eguratsa urrituaz doia- egurats goieneariño litro asko daukaguz, eta egurats edo aire pixu oneik naitaez, bakotxak pixu aundirik ezta be, alkarren gaiñean ipiñi ezkerо, pixu aundia osotu bear. Sakatze onek, beraz, ardura aundia dau uraren gorabera ta otz-beroetan.

Itxas-goieran, aire arruntaren sakeaz ura izoztu egiten da, giro jakiñean eta iraunkor batean beti: -O bero-maillan, ziurki; irakin be bardin, 100 maillara ezkerо, ura borborka asten da. -O ta 100 tarteko giro-arloa, barriz, eun zati-txo bardiñetan bananduten dogu, eguratsaren sakea neurtzeko darabilgun neurkin-tresnak darakusgunez. Gain jarten yakozan pixu-neurriakaz sakea aldatu ezkerо, ura otzago edo beroago egingo yaku; saka geiago ta otz aundiago: -O azpitik amazortzi maillara egon bear dau urak izotz biurtu dedin; saka gitxiago ta bero aundiago: mendi tontorretan, eguratsak saka gitxiago dau-ta, urak ez ditu bear eun mailla irakiten asteko.

Edu bateko sakatan ura eun maillara eltzen danean, munduko bero guztiaz be ezta ipiñi al izango eun da batgarren maillan; orduan, geienik be, ur lobel-eratik lurrun edo gas-erara biurtzea lortuko dogu. Giro beroagora jaso nai izan ezkerо, ontzi itxietan berotu bear da; lurrunak, onela, geitu ta lodituz, ontzi-ormetako sakea geitu egiten dau, ta urak orduan nai dogun giroa artu leike. Ez uste, orraitino, sakea muga bage geitu ezkerоz, otz-beroa be erabat geitu leikenik. Urak, beste iobel guztiak lez, giro geldi edo ziur bat dau, ta beroz onaino eldukeran, saka izugarrietan ipiñita be, lurrun biurtu oi da. Ura-arentzat irureun eta irurogeta bostekoa dozu giro-mailla au, ta estutzen dan gospel, gas edo lurrunak orduan artzen dauan atezu ta tenkera eun da larogeta amazapi sakakikoa dozu.

Uraren otz-beroari buruz gauza arrigarriak gertatzen dirata, jazokun asko daukaguz siñist-errez eztiranak. Esate baterako, kristalezko kanpaitxo baten barruan ontzi bete ur jarri ta kanpai orretan utsa egin ba'dakigu, ura borborka asi ta izoztu era berean egiten yaku. Zergaitik au? Uraren gaiñeko aize-sakea arinduz doan neurrian, ura irakiten asten da bat-batean; lurruntze onek, osterа, bero aundia kentzen dautso urari, ta gero ta gero otzago egiñaz doa; barruko utsa aundia da, baita lurruntzea be, ta ura irakiten asten da; era berean, otz gogorra egin dalako, izotz biurtuaz doa. Alako baten, azken puspuloak ezin dabe eten geituaz doan izotz-oskola ta barruan atxilo gelditzen dira.

Izotza ur naiz ura lurrun biurtzeko beroa bear da, baiña ez giroa goratzeko, egoera aldatzeko baizen, ez baitira gauza bardiñak. Egoera aldatzen dauan bero oni gordetakoa deritxagu, ezkutuan lez dagoalako, ta giro-neurkiñak ez dausku orren eragiñik adierazten. Ur lobelaren bero ezkutua irurogeta emeretzi beroki da, ta ur lurrunduarena bosteun eta ogeta amasei. Gorputz legorrak urtu ta lobelak lurrun biurturik irunsten daben bero au, alboan daukezan porputzai ostu egiten dautsie, oneik otziturik.

Itxasoaren otz beroa. Gorputzak ez dabe beti giro bardiña, orain otz eta gero bero baizen. Aldakorra da, beraz, gorputz baten beroa naiz otza. Gure soiñak laster somatu oi dau gorputzak noiz dagozan otz ala bero; sartu eskua uretan eta bertatik igarriko dautsazu urari zein girotan aurkitzen dan. Gure gorputza, alan be, ezta gauza giroa bear dan lez igarteko, ta zeregin orretarako tresna bereziak daukaguz, bero-neurkiñak. Or ontzi baten lobela; pizkat berotu ezkeru, azi egiten da lobel ori, ta azte au, ontzia azpitik eta alboetatik itxia baldin ba'da, goiko saman agertzen yaku; azte au ontzi barruan, tutu estu baten atan be, laster ezagutzen da; ta lobelak goraka egin neurrian da aren berotasuna be.

Itxasoak, egia esan, beroari buruz zer-ikusi andia dau, bera baita gure izarbelaren otz-beroak neurtu ta moldatzeko tresnarik egoki bikalñena. Bate-tik bat, beroa artzea ta galtzea zail yako, gabaz urreko aizea baiño beroago dago, egunez aizea baiño otzago; udako beroak, gaiñera, udagoien-goieneariño zaintzen dau be indarra, neguko otzak udabarria askoz aurreratu arte. Itxasoan urari goitik datorkion otza naiz beroa ez yako sartzen azalez barru irurogetamar metroraño baizen; uda aldera sendoroago sartu oi da ta neguan azalera dakaz azpiko ur otzak. Orixegaitik, Mediterraneo'u ko urak amalau C.º mailla eukiten dabez gitxi gorabera, ta udako eguzkiak saka egiten dautso bero oni, gaiñeko urak ogetasei maillaraiño arturik. Itxas beroetan, barriz, itxas Gorrian eta Persi-kolkoan esaterako, gaiñeko giroa ogeta amabosteraiño be eldu daiteke, izburuetako urak izoztu samar dagozan bitartean. Baita ba-dira toki batzuk otzak eta beroak alkarren gain jarten diranak, kipula orri antzera; itxaspeko arrantzale ta murgiltzailleak ba-dabe gertakari onen barri, ta ur-azpian lan egiterakoan, gurputza ur berotan euki oi dabe besoa naiz burua ur otzetan sartuaz.

Itxasoak eztau egun osoan giro bardiña eukiten. Geienik eguzkia urtenda gero asten da beroa apurka apurka igoten, arratsaldeko ordu biak arte beti gorantza, gorenengo maillara elduaz; gero, arrats-beran ta gabaz beera doa barriri, eguzki urtenda laster beeraiño jatxirik. Au ulertu daikeguna da: ura, gabaz, goialdera bero-urtika dago, eguzkiak emona barriri biurtzen dau, ta jakiña, otzituz doa, bero-jaurtze ori ostera be eguzkiaren epeltasunez arindu arte. Bero zapalena dan ordua ezta geienez eguzkiak zutzuten joten dauanean, otzituz galduriko len-neurrira barriri eltzean baiño.

Itxaso batetik bestera ta, itxaso berean, toki batetik bestera, alde andia dago otz-beroan. Ango urak otzak yatzuz, emengoak beroak; gaur, orraitaiño, naikoa ondo ezagutzen dogu itxasalde guztietako giroak; ortarako, leku bakotxako aize-ur erdiko giroa jakin bear da. Itxas-gerri inguruan o.º4 beroago dozu ura, ta onek adierazten dauskuz itxas-giroaren batz-bestek goienengo maillak: 10.º zabaleratik asita, pizkat gitxituaz doa beroa, naiz-ta tropiku aldera mendarte ta lurren eragiñez bero-galtze au zerbait atzeratu; 40.ºtik aurrera, poluetara eldukeran batez be, gero ta geiago otzituz doa. Dana dala, itxas-uraren eta gain-aizearen bero-makurrak gogoan izan ezkeru, neguz aizea baiño berogo dogu itxasoa, ipar Atlantiku'n bereziki; udan, Indi'ko itxas-sokoko ura askoz beroagoa da, ta ipar Atlantiku'n naikoa otzago; ontan itxas-barruko ur lasterrak, otz eta bero, garrantzi andia dabe.

Azaletik urriñago ta berotasun gitxiago daukie itxas azpiko urak. Ur-tiraiñak goian eta beian euren orma antzeko luebanak eginda daukiez, eta orrek

darabiltz geienbat ur azpiko otz-beroak, gaiñean baiño aldaketa geiago dabelarik. Itxasoaren luze-zabal-sakonak be asko esan nai dau onetan; 2.000 metrotik beera, alan be, itxas guztletan 3.^otik beera dago ura, ta onek esan nai dauskunez, ur ibilli nagia bai, baiña indartsua daukagu itxas barreanean, eta itxas-gerritik buruetara doazan tiraiñok zer ikusi aundia dabe uraren otz-beroan.

Urte bitartean be giroak ba-ditu bere aldakuntzak. Ori ta guzti be, 300 metrotik berra jo ezkeru, urteko aldakuntzarik ez dagoala esan geinke; sako-nago ta otzago baita. Izburuetan, ipar naiz ego, lege orren aurka, sakonaren neurriz geitu oi da giroa. Ona zergaitik: lau maillara dauko urak lodierarik aundlena, ta gauza argia dozu itxasalde guztietan, zabalera guztietan, izburuetako izotz artean naiz eskualde azal berotuetan, urak beti giro orretan iraun bear leukela; beerako egoeran aurkitzen ba'da, goiko uren saka aundiak berezko giroz euki bear leuken baiño lodiera aundiagoa emoten dautso-lako da. Ura azalera igonaz doan neurrian, bere giroa, edo beera doa izoztu artean, ipar-ego izburuetako otzak eraginda, edo berotu egiten da tropikue-tako eguzki-galdaen indarrez.

Lege oneik aldatu daikiez pitin bat eguzkiak, aizeak, ekaitzak, tiraiñak, lurruntzeak eta lurraldeak. Aro edo aldikada osoetan eguzkirik ikusten eztan izburuko karkusetan, adibidez, gero ta beerago doa otza, barriro be eguzkiak galdatu arte. Gaiñera, itxasoko egurats ezoak berotasun aundla irunsten dau-ta, lurrari aiña bero ez yako eltzen urari; ta urak artzen dau an berorik geiena, bere barruko barik, bere lobela lurruntzeko erabilten dau. Ta, azke-nez, ur barruko tirañak, naiz otzak naiz beroak, eta ur-azaleko aize lasterrak be, erreztu aldatu daukiez lege oneik.

Izotza. Aintxiñakoak eguratsa, airea -dabillela aize deritxagu- pixurik bako ixurki edo jariotzat eukien. Galileo'k, ostera, argi ta garbi erakutsi eban guk bizi izateko bear dogun arnasegai au, egurats au, pixugarri dala: ontzi baten airea sartu eban, lenengo gitxiago, gero geiago, ta aire geiago jarriaz pixua be geitu egin yakon. Orrez gaiñera, eguratsa zatitu eziña uste eben aintxiñate baten; geroago, baiña, Lavoisier'ek batez be, gas-naste bat zala erakutsi ta benetako agiriz ziurpetu eban: naste asko daukaguz eguratsean, kea, ur-lurruna, neo, xeno, elio, kripto, hidrogenu, ta guztion artean %21 oxigenu ta %78 inguru nitrogenu. Auxe dogu eguratseko airea urari ta lurrari ikutzean, eta gospel oneik gero gorago ta gitxiagotuz doaz gas batzuk gei-ago beste batzuk baiño. Eun kilometrora ezta egurats askorik aurkitzen, eta amabi kilometro goira be iñor ezingo litzake bizi, olako goialdean arnasai artu ezinda il egingo gintzakezalako.

Eta egurats onen pixua da ura izoztu oi dauna, pixu orren sakea oso aundia baita. Izotza ezta ur legortua besterik, eta urak era berezia, leiar antza geienik, artzen dau, egoera batera jatxi ezkeroz; zatitu daiteke ta osoaren antza ta tankera daukie zati guztiak. Leiarki antzera, sei ertzeko izozten da ura, ta zati bakotxa osoari erantsi naian dago, leioetako matasa ta marrazko polit ederretan dakusgunez. Ezeren eragozpenik ez ba'dau, ura 0.°C'ra izotz biurtu oi da, baiña ura izotz eta izotza ur eztira beingoan gertatzen, uraren izozteak ingurua otzizuz doanean eta izotzaren urtzeak berotuz doanean,

giro-aldaketarri, naiz gorakoari naiz beerakoari, eragozpena jarri oi dautse, gorabera ori atzeratuz edo aurreratuz. Egurats sakeak, esan dogunez, badau bere zer ikusia ontan; 0,92 besterekiko azta edo pixua dau batez beste, ta auxegaitik izotzak igeri dagi uretan, eta urtzean bildu egiten da.

Izotzak, ur lobelak baiño pixu ta Jodiera aundiagoak ba'leukiez, itxaso erlaizean eta ibai gaiñetan eratuko litzakezan izotz-kizki ta leikarraldoak, pixuak eraginda, ur azpira lioakez eta, otzaren otzez, itxasoko ta ibaietako urak izotz-arranpa ta kasko tringua egiteraiño moltotuko litzekez, eta onek itxasoko ta ibaietako bizitz guztiaren eriotza lekarke noski. Baiña, ur izoztua azalean geratzen da-ta, onura ezin esanak dakartsoz onek munduari ta giza-bizitzari: gizona bere aldetik arat-onat dabil itxaso zear eta ipar naiz ego-buruetatik datorkiozan izotz-mendiak kalterik egin ez dagioen, areik saiets itxi ta errez artu daroa ondo yatorkon zuzenbidea; eta itxas-barruko maskor, bedar-landara ta arraiñak be, ederto bizi daitekez azpiko ur berotan, naiz otzetan, ur gaiñean antzigar ta izotz-orma zabalak edatu a en.

Izburuak izotz-txapel zapalez daukaguz, ez baiña Jodiera aundikoz, azken urteotan andik ibilli diran atomi-endarrezko urazpiko bik diñoskuenez, azal samarrekoa baita; ipar buruko txapela izotzezkoa da, ego aldekoa barriz betiko edur-saillak osotuten dabena. Ura izoztu leor-aldeetik asita egin oi da; lenengo itxas-ertzerantza, ta gero barrurago. Ez dauka lodiera aundirik be: ipar buruetan iru bat metro geien be, ta ego buruko itxasoetan, edurrak lodiera geiago euki arren, 1,50 metro. Itzotz-meta oneik eztira toki baten geldi egoten, ara ta ona asko ibilli baiño; ipar buruak naspiltsu dira, ta iñoizka ur-tiraiñak be izotz-mintzez estaltzen yakuz. Ego aldekoak eztira ain naspiltsu, izotza ezta ain itsaskorra ta ipar burukoa baizen errez ezta arrakaltzen.

Izotz-mendiok udan, giroa epeltzerakoan, eten eta arrakaldu egiten dira ta askatasun osoan dabiltz ur-gaiñez, ur-lasterrak eta itxas-kolkoak deiturik itxas-gerrirantza bide dagiela. Edur-mukuluok -icebergs- oso urriñera joan oi yakuz askotan, buruetako izoztegietatik etenda itxas beerra. Sarri 70 metroko goiera euki oi dabe, 100'raiño be iñoiz eldurik; eta urpeko alderdia urgain dagoana baiño bost-sei bider aundiagoa izan daiteke. Zear-zabaleran, barriz, zelako izoztegitik datorren izan oi da. Ipar-buru aldean, Groenlandia'tik etorren dira geienak, Pazifiku'ra, Siberia'ra ta Atlantiku'ra edaturik. Terranova aldean dantzari dabiltzan edur-mendiak oso ezagunak dira.

Eta bide ezagun barik alderrai dabiltzan izotz-pillo ikaragarriok izu-dardar erabilli oi dabez gure itxastarrak. Uda aldera batez be ur gaiñean dabiltz ara ta ona, alkarri oratu ta itxi, gain jausten yaken edurrez are ta geiago lodituz; joera bat dakarre, burutik gerrirantz. Toki batzuetan, gaiñera, bee-laiño lodia sortzen da izotz-mukulu orreik lagunduta edo, ta bion artean, izotz ta laiño, triskantza ikaragarriak burutu oi danez sarri askotan, urtero ontzirik asko urpera bñaldurik. 1912'garren urteko apirillaren 15'an, Laterri Batuetarako osteran joian Titanic 47.000 toneladako ontzi barria, olako izotz-mendi bategaz topo eginda, beingoan ondatu zan, berta joiazanetatik milla bosteun ta amazapi pertsona illik.

Ego burukoak be oso arriskutsuak dira, aundiagoak eta sarriagoak eta ur epeletara geiago urreratzen diranak. An-emen eten barik eratzen dira igeri dabiltzan izoztegi neurgaitz ezbaridiñetan. Zear-zabaleran kilometru asko artzen dabez, batzuetan 500 k2. eldurik; Buena Esperanza lur-muturrean ta-

kean potean eta Rio de la Plata'n be iñoiz ikusi izan dira olako edur-metak igeri.

Itxas-buru oneitatik kanpora nekez izozten da ura, sail aundietan beinik-bein; zenbaitetan, alan be, oziztu oi da; esaterako, Alaska ondoko Bering itxas-barrutian, Kanin'go lur-adar alboko Itxas zurian, Botnia ta Finlandia'ko izpazterretan, izotz-orma kendu bakoak dagoz negu aldean.

Otzaren eragiña ezta ur edo lur-azalekoa bakarrik, eguratsean be izoztu daiteke ura, ta izan be, edurra ta txingorra ur izoztua besterik ez ditugu. Beraz, gaur zeruazpian zear egaz dabilzan egalontzientzat, guda aldi ta garatz-arazoetan bereziki, arrisku aundikoa da izotza. Egazkiñak izoztea sarri ezta jazoko, baiña jazo daitekena dogu; ontzizain trebeak iges egin leikeo arrisku oni, baiña gitxien uste danean etorri oi olako galzoria. 0.°C'ko giro-maillan euria danean, eta egazkiñak zirrikituetan ur-tantak geratzen yakoza-nean, ur-tantok egazkiñak daroan abiadeaz izoztu egiten dira, -9'tik 0.°C'ra-ko giroan batez be. Laiño-odeiak, otzago danean, izotz-leiarrezkoak dira ta ez yakoz ontziari erantsiten. Ur-tanta izoztuak batzuetan, edur, bisuts eta kaskabar antzeko, zugatzetan zurda lez, izan oi da; eta biok, pixua geituz gaiñera, egazkiñaren ozka-sail, lotura ta ardatz-gurpillai ez dautse bear leukien lez lan egiten izten. Eta onek, igarri barik, ondamen ikaragarria ekarri leikeo egalontziari.

Gaiñerakoan, gaurko egunean, gauza askori dagokio izotzaren onura. Ozigarri lez industrian eta etxeko bizitz-arazoetan asko darabilgu. Bizikera erosotzeak eskuratu dausku au, ta ortan berezko izotza dogu lenengo, meatz zulo ikaragarri lez; berezko izoztegieta mukuru aundiak ebagi ta ontziz edozein lekutara daroaguz; lur-barruko izotz-oletan egiña, barriz, ugaria da ta ainbat gauzatan darabilguna.

Uraren margoa. Itxasoko urak askotariko gatzak, gaiak edo gorputzak daukoz, nastean: fluor, koral-atxetako karean; burdiñea, boro, siliki, arsenik, manganeso, alumini, kesi, posporo, liti ta abiratxas-ontzieri itsasita: hidrogeno, oxigenu, kloru, potasi, sodi, bromu, kalzi, magnesio ta ikatzarritik be asko; ur-bedar eta aloka artean eta abere-ziriñetan tupikia, zinke, beruna, nikela ta kobalta; urrea ta zidarra be bai, zidarra meta aundi samarretan aurkitzen da, atan be.

Gorputz guztiok, naiz-ta berez bakoak bere kolorea izan, danon artean olako margo berezia ezarten dautse, antza, itxasoko urari. Orixegaitik, kresala berez kolore bakoa izanik be, ur-mukulu luze-zabalak margo aurre, urdinzka, baltz-zurizka daukala esan geinke. Erlaiz urdin au aldatu daiteke, ta orrela dagie askotan itxasoak bere sabel-barru daukazan abere-sail, maskor-sarda, bedar-zelai, ur-lorategi, arrain-txontxorro, ama atz-aitz, aloka-troska ta pendizak. Leorretik itxasorantza doazan ibai sakon batzuk be kolore gogorreko saskara ta loi lupetsua eroan oi dabe. Zer guziok aldatu oi dabe, noizik bein, itxas uraren margo urdiña.

Naste oneik dirala-ta, Ipar-itxasoak eta Guinea'ko urak zuri emoten dabe, Txina'koak eta Japon'goak orimin, Kanarias eta Azores'koak musker, eta Kalifornia ingurukoak larrosa antza. Kolorea ta beste zeaztasun batzuk oiñarritzat arturik, izenak be orrelaxe daroaz ango ta emengo itxaso askok; Itxas

Go iari, adibidez, ango izbedar ta aloka moltso aundiakaitik deritxo olan; Itxas Zuriari, bertan gen dabilzan izotz-mendi zuriakaitik, eta Itxas Baltzari, an pitean potean jago oi diran ekaitz arriskutsuakaitik.

Itxasoa, alan be, oso gardena dozu; erdirago ta gardenago. Bota egizu itxas ondora erdiz-erdi metro bi luze-zabal daukazan kurpil bat, eta zeure begien indarrez be, irurogetasei bat metro sakonera ederto ikusi ta bateztu daikezu. Itxas alde batzuetan, Iparrekoan eta Baltiko'n baitik bat, azpian nahasi ta zirimoltsu aurkitzen diran gaiak zikindu ta lausotu egin daroe zer-bait gaiñeko uraren gardentasuna.

Eta itxas azpiko sakon-sail aundietan, eta da ezertariko dirdai edo argitahunik? Barren areitan ain ugari bizi diran koko-moko ta pizti bedegarrak, ete dabe argi-izpirik? Baietz esan geinke. Gure begiak irureun metrora ezkerro, ez dabe ur-barru ezer somatzen; bosteun metroraño luze diran itxas-landarak, orraitño, ta ur-azpiko eskualde zabal nasaietan dabilzen konta-ezin alako abere-taldeak ez dira bizi, erakusten dauskuenez, betiko illunaren altzoan. Guk baiño zentzuki osoagoak ei dabez, eta barren-zulo areitan be argiaren zirrada jabetu ta aren ikutu leunez gozartzen ei dira.

Itxas barruan ba-da -ezin geinke ukatu- olako dirdira apartekoa, bai goitik araiño eltzen dana, bai bertako gai ta gorputz askok alkar zirikatatu ta piztu-erazoa. Gaiok, meakiak, margozkiak, landarak, bakterl ta txotxak, sall aundietan doguz urpean; eta gai guztiok, giro otzetan eta sakon-sakonetan be, argi-iturri doguz: batzuk -arraiñak, ain zuzen- etenbako argia dabe, beste batzuk artekako edo noizik-bein emoten dabena. Urpeko metalik asko, berez argigai izan ez arren, beste gorputz batzuekaz alkartu ta tril egitean, argi-dirdira sortu daikie, ta onako gai asko dagoz itxas azpian. Gorputz batzuk, argi-sortze au dakarren kimi-indarra, euren kizkin barruan bertan daukie, ipurtargiak esate baterako; geiagotan oindiño, indar au, abereak berak kanpora bota edo ingurumari ditun gaietan aurkitu oi da, ta itxas-uragaz ikutuan jarri ezkerro, kipridina deritxogun oskaldunak lez, argi egiten dabe.

Gorputz asko, gaiñera, bakteri ta ointoen artekoak bereziki, aldean daben indarraren bitartez argia sortzeko lain dira. Gaitasun onegaz ornidutako izaki geienak itxasoan bizi dira, ta kresalean bizi da, ez ur gozotan. Len-bizidunen (protozoos) artean argi emoten dabena zigor aundidunak, zil eskergadunak, aumalak (medusak), koralak eta aktiniak **-noctiluca miliaris**, batez beditugu. Mediterraneo'n bizi dan **pelagia noctiluca** (gauargi ugerlaria), esaterako, guztiz ikusgarria da, dabillenean azal ta erro argi-urtika dizdizari. Eleztun-koko (anelidu) ta arretatik be askok eta askok dirdai aundia zabaltzen dabe. Ta, azkenez, maskor, belaki, nemertin, morkotz, triku ta kirkiñoen artean be ba-dira argitsuak.

Toki askotan sailka ta moltsoka bizi dira gorputzok eta argitasun itzala sortu daroe. Tropiku bitarteetan, goi ta bee, guztiz indartsua da olakoen argi-jarioa; ta toki areitan zear itxasoz dabilzan bidaztiak, gal illunetan, ikuskari lilluragarriak euki oi dabez begi aurrean; dirdirazko miesa zuria dirudl itxaso zabalak, ontziak dagian ugara ezta ur-erreten apartsua, suzko argi-jauzizkoa baiño; aizeak jotean, barriz, goraka doazan olatu-gandorrek itxura zoragarriko su-txinpartak dira. Jazokun onek, lenago ur-tantak eta gatz-elak alkar jorik sortuten ebena zala uste izan arren, jakitunentzat gaur ezta beste sor-

bururik aitatu doguzan maskor, aberetxo, koral-aitz eta izaki ezkutuak osoturiko millaka ta millaka moltsok egiten daben zear-dirdaia baiño.

Odei-laiñoak. Urak, len esan dogunez, iru egoera ditu: dabilenean lobela da, leiturik legorkera artzen dau, ta lobela lurrun biurtzean, lurrunkera. Urak sortuak doguz odei-laiñoak, eta arrigarriri atan be: ura lenengo lobelkera itxi ta lurrundu egiten yaku eguzkiaren beroz eta aizearen igurtziz, eta, gero, goitiko giro otzpean barriri iñotsi ta lobelkera arturik, beera datorkigu euri biurtuta. Adibidez: ura legorki danean, lei edo izotz, berotu ezkeru, lenengo urtu egin oi da, ta gelago berotu ezketiño, lufundu be bai, uraren elak bakandu ta urrindu egiten dira-ta. Begira lapiko bati: urak irakitean, kapela antzera, laiño-lurruna sortzen dau gaiñean biraka. Lobel batzuk arin lurruntzean dira, beste batzuk nekezago; au da, lobel batzuk bero gelago bear dabe lurruntzeko, beste batzuk gitxiago. Ura, gitxi-asko, edozein bero-girotan lurrundu oi da.

Eguzkiak batez be bere zanpatze kiskalkorrez, naiz itxasoan naiz lur-azalean, lurrun biurtzen dau ura. Goitiko sakeak be, jakiña, zer ikusi aundia dau, onetan; sakea sendoago ta lurruntzea makalago. Itxas-goieran ura 100 mailako bero-giroz irakiten asten da; mendi gaiñean, barriz, sakea aulduaz doata, 100 mailara baiño len irakiten jarten da. Itxas gerriko ura, eguzkiaren zizta an gogorragoa baita, ipar eta ego-buruetakoa baiño lenago lurruntzen yaku. Lurruna gero, pixu gitxikoa izanik, gorantza doa berez-berez ta goian, barriri lobel naiz legorki egiñik, odeia sortzen dau; au da, ura lurruntzean bakandu ziran elak goiko otzagaz barriri batu egin dira, ura lobeldu edo legorturik. Goian dakuskuzan odei-laiñoak, bada, urtanta txikiak edo leiarkiak besterik eztira, moltsotua. Odei batek, bero-giroaren neurritz, edo ur-tantak soilki euki leikez edo ur-tantak eta leiarrak izotz-matasak batera.

Noiz eta zelan eratu ta egiten ete dira odeiak? Giroa gogor edo leor-neurrira eltzerakoan, edo-ta aireak, saka ezagun batean, giro ori eukiteko lain ur-lurrun daukanean. Au lur-azalean jazoten danean, laiñoa daukagu; eguratsean dindil, autsa naiz itxas-urak lurruntzean itxitako gatza: oneik antolatzen dabez odei-jarioak, giroa legor-neurrira eltzean. Uraren eral-bidea edo goraberea auxa dozu: ura, itxaso, ibai, zingira naiz lur-gaiñetik beroaren indarrez eta aizearen igurdiz lurrundu ondorean, eguratsera doa. Gero zabalduraz, lurrun-urtze legeari jarraituki, otzitu egiten da ta estutuz ur biurtu. Aize-tiraiñak esku aundia daukie ontan.

Tankera askotariko odeiak dazauguz. Lenago iru erakoak ziran: 1) **Ipar-zelalak**; 2) **odel-zerrendak**, eta 3) **baldarrak**. Orain lau mueta oneitan sailkatzen dabez jakitunak: I. **Odel garalak** (6.100 metro gora batez beste dabilzanak); 1) **Ipar-zelalak**, mei, zuri, seda antzekoak; 2) **txanbolin-odelak**, algodoi matasa antzean goi-goi dabilzanak; 3) **balen-odeiak**, zeru azpian dabiltzala burdin-orri meiaaren iduria dabenak. II. **Erdiko odeiak** (6.100 goirantz, 900 metro beerantz); 1) goi-zerrendak, galarren buruak, puxika eran dabilzanak, eta 2) **burduntziak**, zintz baltz luzeak. III. **Beeko odeiak** (lur-azaletik 900 metrora tartekoak); 1) baldarrak, estalki antzera lur-gaiñez narras dabilzanak; 2) **zerrenda-moltsok**, kizkur-kiribillak; 3) erarik bako **estaikei euritsuak**, txaramelak eta zaldizkoak deritxenak. IV. **Zuzen**

beerakoak, ots, enbatak eta mendebalak ekañrik, goitik beera ikusgarriro eratuak.

Eztagoz luzero odeiak ur-izpi bat-batzuekaz. Aizeak bada, odeia baiño azka ago baitabil, ur-lurrun geiago ta geiago sartzen dau tartean, eta onek ur-izpi edo tantatxo barriak sortzen dauz. Eta orrelaxe dabiltz lurrundu ta urtu. Izpiño oneik, pitiñak dira-ta, airean dabiltz arat-onat, baiña euretatik milloi bat inguruk alkar artu ta baturik, beera jausten dira euren pixuz: euria. Odei bat-berean ur-tantak eta lei-izpiak, izotz-giroa baiño beerago, batera aurkitzen diranean, ura lei-izpiekaz batzen da, ta lei-izpiak, ur-tantean pentzutan azi ta aunditurik, edur-matasa antzera jausten dira. Edur-matasak, barriz, izotz-neurritik gorako giroa bidean aurkitu ezketiño, euri-tanta biurtu leitekez; baita bestera be.

Ekaitzak eta aize zirimolak. Euri gozoa eder, ez ostera ekaitza, itxaso ta lur kaltegarri dana. Alan be, sarri izan oi dira ekaitzak neguan eta udan. Gure aurretikoak naikoa errez ta ziur iragarri eroien urrengo egunez zelako eguraldia izango zan. Egitsu ziran, la beti, esakun oneik: "Arrats gorri, aizetsu; goiz gorri, euritsu"; "egoaren ondotik, eurl"; "eguzki txuri, laster euri"; "eguediko euria, egun guztiko euria"; "euri ondoko leia, euriaren deia", "ipar-euria, ogei-ta lau orduko euria"; "odei gorri, aize edo euri, egoa ezpaledi"; "urriko edurra, zortzi iilebeteko edurra".

Eta zeruko zelai zabala edo mendi-egalak ebezan euren igar-toki. Odeiak eta laiñoak ze eratan aurkitzen ziran, alakoxe eguraldia egingo eban. Eta, ain zuzen be, odeien bitartez errez asmau leitekez era batzuetako ekaitz eta egurasketak. Mendiaren kukutzean koro antzera estutzen diran odei-zerrendak laster otzitu oi dabe eguratsa; burduntzi antzekoak laster dakarre euri-zaparrada, baita mendabalak itxas-gaiñetik narras dakazan odei baltzak be.

Aize-erauntsi ta zirimolak (urakanak) ikaragarriak izan oi dira naiz arranzuan diarduen mariñelentzat naiz ontzi aundietan arat-onat dabiltzan itxastarrantzat. Gaur, alan be, radar-oiartzun eta egazkiñez ezta gatxa ekaitz oneik nundik norakoak diran jakitea. Erdirantza beti igitzen diran eskorta antzeko moitsoak dituzu lenengo, ta gero goikoak, erdikoak eta beekoak osoro nasutzen yatzuz ekaitz-erdiaren ingurumaian, aize beroak, otzak eta itsuak jira-biraka alkar arturik. Aize-biurri ta zirimol bildurgarri oneik noiz eta nun sortu-barri diran jakiteko, eta aurretiez iragarteko, izar-mutil (satelite) bat bear litzake ortzipean.

Erauntsi oneitatik zakar kaltegarriena aize-inguru (tornado) deritxona da; oso bakana, eutsez ta ur-ondakiñez egiña; goitik beerako odeia, zuta, gaiñeko galdorra bat-batez otzitzen yakonean itxura ikaragarria artzen dauana. Aize-biurriok sortzen diran lekuko urak be, tiraiñakaz batera, guztiz naspiltzen dira ta itxas-azalean aurkitzen dabezan gauza guztietan triskantza esaneziñak egin oi dabez. Naikoa onako ezagutzen dira Txina'ko ta Japon'go itxasoetan, eta Guinea'ko ur-kolkoan. Europa'n ba-ziran beiñola; Mediterraneo'n edo lur-arteko itxasoan bat, antxiñako Karibdis, Eskila ur atxetatik urre, Sikili'ko ipar-sortaldera, Omer'ek eta Bergili'k abestu ebena; gaur, alan be, iparreko ta egoeko ur-tiraiñak bertan alkar jo ezik, ezta an arriskurik; antxiña batetik ona, ba, diñoenez, nasaitu egin yaku Mesina'ko itxas-ataka. Bestea,

Malstróm, Noruega ertzean dago, Kreso ta Loffoden'eko ugartean artean. Izgoran eta izberan ango urak, azpiko arrietan muker jo ta egora naiz iparrera jaurtirik, sei orduz ona ta beste sei orduz arantza bira-dantza ikaragarria dagie, zirko ta zurrunbillo zaratatsuan.

Itxas-azplko zalakarra. Indartsuak dira itxas-uiñak eta, mundu osoko lurrasoai ekin setatian jardunik, asko aldatu ta itxulaztu oi dabe lur-egaletako itxurea be, toki batzuetan mendi-mokor izugarriak eta aitz troska eskergak azpiz gora botarik. Urteen buruz kresalak, bere larrimin ta egon-eziñean, zati ederrak jan dautsoz lurrari; ikus egizu, adibidez, geure lur-ertzean, Matxitxako ondoko Gaztelugatxe'n urak ango atxai egiñiko galkuntza. Urtez urtezko ondamen ori ikusirik, gizonak itxasoari eusteko alegiñak egin arren, Donostia'n baitik bat, itxasoak berea eskatu oi dau, noizik bein ekarritako gai xeatuz osotuak dira.

Olatuen burrukaz ausitako gaiak -arri, lur, zur eta abar- geienak, uiñak bekoz beko jotean, itxas ertzeko erlaizean pillotzen dira; olatuak zearka jotean, baiña, gaiñeko ondakin eta labar-ausiabartza lur ertzean gelditu arren, urak beragaz daroaz ondar-pikorrek eta beste zati txiki ariñak, aizeak eta barne-eragiñak ezarritako igikunez dabiltz borborreko biran, eta sarri olako barra antzekoak egin oi dabez lur-ertzerantza, baita gero egiatzko zingirak be, inguruz inguru ondar-esiak ipiñiaz. Mediterraneo'n, Prantzia'ko ego aldean, Madagaskar'en, Baltiko'n eta Laterri Batueta'n olako asko daukaguz.

Ondakin eta gauza ariñak barrurago daro az itxasoak bere etenbako zirkiñean. Eta gaiok itxas azpiko toki baretsuetan gelditzen dira apurka apurka, ta onek dagi ur-erraietako lokatza edo zalakarra (sedimento). Zalakar onek gaur, gai ondakiñez osotuta, lurrasoaren ingumari batez be 100'tik 200 kilometro zabaleran gitxigora ditun gerrikoa egiten dau; itxas azpiko lurraso zorua deritxona. Lupetzak barriz, gitxi-asko, itxas-ondo guztia estaltzen dau; gorri-uridin, perdail edo ubela dozu estalki orren kolorea, ezta baltza lurraldeetako ibai ta e eketan lez. Itxas gaiñ aldea (pelagicus) eta mueta askotako abere, maskor, koko, landara ta gaiñerako itxas-loreen ondakiñez egiña dago.

Abere txiki oneitatik ba-dira batzuk, olatuak eta ibaiak itxas barrura daroetan saskara ta antzeko galekin gauza arrigarriak egiten dabezanak. Gai orreik, bear bada -kare ikazkia ta abar- kaltegarri litzakezan uretan dabiltzan bizidunentzat; kresal abere txikiok, alan be, gai kaltekor orreitatik onura arturik, urarl edoskitako kare-guneaz euren kuillu, oskol eta maskorrek eratzen dabez, guztiz txiaro; urak garbituz itxas azpiak beteten ditue euren azurutzsez, bear bada ugarte barrien zution izanik. Korral-ugarteak eregiten dabezan itxas-lorak (polipoak) be, beste orrenbeste dagie: ura garbituz gaiñera, kare ikazki bitartez euren soin-azurrak eratu ta bizitegiak antola. Arrigarria benetan!


Itxasoaren golbea. Korral ugarte ta abere-antzez egiñiko bizitegi dantza arras ugariak dira. Euren era ta itxurak, ez-bardiñak; emen luzez-luze urertzetako goibera, millo ta makur-unai jarriatuz, uarri-saillak moldatzen dira;

an, itxas-erdirantza sarri, ereztun izurtsu antzeko ugarteak dagiez aitaturiko ur-aberetxuok, iñoiz erdian ur-mael naretsua be eraturik. Itxas -bedarrezko aitzok, goitik beera landuta, ur-azpitik gora jagiaz doaz, kresal gaiñetik be oin batzuk agiririk, eta ugatz antzera edatzen dan zingirari txera egiñik adiguritsu. Korral-meta ikaragarriok, baiña, naiz uperko sumendi baten autz-gaiñean era-tuak izan dirala, naiz lurraren zirkin nagien eragiñez uinpean, ostendutako izaro baten gaillurrean, aitz-sail orreik, euskai barik aurkitzean, itxas azpiko ondarrera doaz; eta, korral-oiñarriok berrogetamar metrotik beera jausten diranean, abere pitin oneik be, beerago uretan bizi eziñik, edo ii egiten dira edo beste bizitegi batzuk antolatu.

Mukulu guztiok, alan be, itxasoa aunditu egiten ete dabe? Gitxi-asko, baietz esan bearko. Itxasoaren goibeaa, orraitiiño, toki guztietan bardiña dozu beti. Ango ta emengo urak guztiz jarioak eta ixurkoiak diralako, itxas azala beti lerro zutari dagokiona da, goierazko gaiña egiñik. Ur guztiak dagoz bardiñ samar, ez gorago ez beerago. Antxiñakoak uste eben, Napoleon'en gudari-sailleko jakitunak batez be, Mediterraneo ta itxas Gorria etzirala neurri bardiñean aurkitzen; baiña geroago, Suez'eko ur-aska edegi zanean, ubide a egin eben gizon trebeak besterik zala eglztatu al izan eben.

Lege bat-berearen barrutian dabiliz, ba, itxaso guztiak. Toki batzuetan, jaklña, alde pizkat izan daiteke, itxas-ertzak, izgora-berak eta tiralñak ez bai bardiñak; oneik zerbait aldatu daikie, baiña bestelan, alkarregaz artu daben itxaso danetan ur-gaiña goibe bardiñekoa dozu. Ez laua gero, zabalune medarretan agiri danez; lurraren borobil-erari datxikiola, gain ori, boil-erdira doan lerro zutagaz bat dator, edozein une edo puntutan. Lur-barrura, alan be, bai itxasoak bai zingirak, aurkitu leitekez beerago edo gorago; Kaspi itxasoa ta Illa, esaterako, bata ogetasei ta bestea irureun ta larogeta lau metro beera dagoz, eta Peru ta Bolivia tartean daukagun Titikaka zin ospetsua 3.812 metro gorako.

Aita Onaindia



ITXAS BIZITZA ETA GURE EUSKERA

GOGORAPEN ETA GORAMEN

Asiera baterako, ondarrutar lez, eta Txomin Agirre liburutegiko areto onetan, gure Txomin gogoratu eta goratuaz, bere berba batzuek azingotzen dituzten nire aurkezpena:

"Ni enaz izan, euskera kontuan, beste batzuk legez urandiko arraiña"

"Besigu eta atun tatbakaz asi eta loditu ninduen"; "ia toleta baiño andiago ez nitzala" asi nitzan euskeraz idazten; "gure neguko izotzak gogortu eustazan azurrak".....

"Ez naz egundo ontzi andietan ibili eta Kantauriko uretatik ez dot urten, naitanaiezean edo arribadaren baten izan ezik"

"Alan be naiko neke igaro dot itxasoetan", nire kontuan euskeraren itxasoan.

Neke orren miñetako bat agertuko dautsuet jardunaldi onetan.

AZALPENA

Ogei urte inguru dira Euskerazaintza sortu zala.

Euskera zaintza, euskeraren erri akademia, edo obeto esanda, erri euskeraren akademia.

Gu ez gara urandiko arraiñak. Ez gara galoi askodun patrioiak nai ta euskeraren itxasoan, gure itxasertz onetako mariñel zarrak ausartzen ziran lez Lur-Barrietaraiño (Terranobaraiño) joaten ausartu, aldi aretan erriak eukan izadiaren ezaupideagaz: Ipar Izarra billatu, eta ori zurtzillo pandanguak alkon-dara ertzagaz baiño garbitzen ez ekien ume pongoliñuak be ba ekien, eta aren gidaritzapean edonora joaten ausartuten ziran.

Areik itxasoan ibiltzen ziran lez, gu euskeraren arloan, gure Ipar-Izarra gidari dala gabiltz.

Zein dan euskeraren Ipar-Izar ori? Erria. bere akats, illunpe, laiño, gurma eta guzti. Baiña egun sentiak be, goiz giroan, bere terraltxoak eukiten dau

errekonduan, begietako makarrak garbitu eragiteko eta euskerak be ori eza-
gutzen dau bere idazle, bertsolari, kontulari eta esaleen aldetik. Edo ta Eus-
kerazaintza lez, eta onetan ezin kendu euren alde onik beste erakundeei be,
bere iturri garbiak artu eta gero, azalean sortzen diran ooldi eta ondar mul-
tsoak bastertzen alegintzeko, edo ta iturri garden orreik ingurutako kimika
eta kutsadura barik euren zeregin eta eginbear oztopo barik bete dagien
alegintzeko.

Orretan asl giñala ogei urte inguru dira. Amar urtetara lortu gendun lege-
tatzea eta Erri zuduzkotasunaren Aldarrikapena ezagutzea eta jakintza gaien
gaitasuna Madrid'etik Gasteiz'era aldatzean gure Jaurlaritzaren ezagutzea be
lortu gendun, 1.984'ko Maiatzaren 21'an Gasteiz'ek gure erakundearen
elburuen osotasuna onartzean.

Beraz ez gabiltz batzuk uste daben lez mozolo arrapakari antzera lanean,
edo gantzeru lapur antzera, egun argiz eta brankaz baiño nai ta Europar
Komunidadean gertatzen dan lez, eta ori Ondarroan ondo dakigu, baimenak
eta lizentziak eta eskubideak batzuk artu eta besteak, ondarrutar txalopa
askok lez, eteteko alegiñak egin bear itxasoari berea atarateko, au da, gure
kontuan euskerari eskamak kendu al izateko.

Onezkero norbaitek esango eban:

Erri euskera! Eta Ondarruko euskeri zer? Lotsatuteko euskeri ez da ba?

Nik orreri labur erantzungo dausat: "Ez da jende ez kabalarik zerbalt tatxa
ez duanik".

Izkuntza ez da bakarrik itzekaz, berbekaz osatzen. Orrez gain izkuntzak
bere egitura dau, bere doiñua, bere gurpilla, bere taixua, bere gatza.

Ez uste erderazko berba batzuk sartuarren izkuntza erdera biurtzen danik.
Baiña ez eta be bestera: Euskal berbarik garbienak erabilia be, bere doiñua
eta berezko dauan egitura emon ezik, euskera garbia danik.

Ortxe dago kakua.

Ara adierazgarri bat. Eibartarrakaitik esaten da: "Solaren kaloriak disipa-
tzen du nubearen idensidadea".

Berbak bai, ez dira beintzak euskaldunak. Baiña zein erdaldunek zeatz
zeatz itzuliko leuke esaldi ori? (Del sol el calor disipa de la nube la densidad)
Orrela esanda, erdera edo gaztelania dala esango al dausue angoak? Esae-
ra orrek erdal edo gaztelani jokera eukiteko, onela esana bearko litzake:
Kaloriak solarenak disipatzen du densidadea nubearena.

Ba dakizue zek eta zeintzuk baldartzen daben Ondarruko euskera?

Aspalditik geuk artu dogun oitura zatar batek: Gu-geu lotsatuko ba giña
lez, paperetan eta irratietan eta al dan tokietan erabilteaz.

Traductore traditore, esaten dakie italiarrak itzultzaileekaitik. Eta guk
paperetan, edo ormetan, edo irratjetan eta abarretan gure berbeta egin barik
egiten doguna, zazkartu, okertu, baldartu, nastu eta itxuragabetzen alegin-
tzen garealako. Askotan orregaz egiten dogun kalteagaz konturatu barik. Gu
geu gara barrabasak eta ez gure berbeta, gure euskera.

Orrelakoetan euskal esarea bat gogoratzen dakit: Ez benetan, ez olgetan,
ez norbere berbetaz egin lxean.

Jaungoikoak daki emen Ondarrun zenbat berba eta zenbat esaera eta
berba joku polit eta jator entzun eta bereala, entzun-ala ez idazteagaitik, ez
batzeagaitik, astu edo galdu yatazan.

Nik lotsa barik esan daikedana auxe da:

Gure erriko euskera, batez be zarrena, jator jatorra dala. Aberatsa dala. Ugaria.

Eta igarten dala oarpen (oserbaziño) andia erakutsi eta salatzen dauan izkuntza dala.

Baiña.....

Ukatu eziña da azken irurogei urteetan, erderaren kutsadura nabari eta ugaria sartu jakola.

Erdal kokua sartu jako. Gorriña lakoa. Eta koko orrek jan egin dau, makaldu, auldu, ia agortu gure inguruko aberastasuna.

Egia da gure bizitzan azpi-egituraren aldakuntza bete-betea izan dala.

Etxeetatik asita. Janari, tresneri, gaillu, bizibideko oitura, jantzi, agerbide, sinismen eta oiturak, aldatu ez diranak be, barrikuntzaren eragiña artu edo euki dabe. Eragin ori ez da lengotik atara, kanpotik gureganatu baino.

Ogibidean, emen, itxas-erri izatean, batez be arrantzan, erabideak barrien barri artu dira. Gaurko txalopa eta lantokietako bizimoduak, ez erabilten diran tresnekin, ez gaiiekien, ez eskuratzen diran emaitzekin, ez dauke ze ikusirik, euneko ainbesteko baten beintzat lengoekin.

Kaleko bizitzan, atsedean aldiko bizian, nai eguneko ordu askeetako bizitzan, gure oiturak, zaletasunak, gurariak, ibillerak, eta abar, danak aldatu dira izenez eta izatez.

Orrek, eguneroko izkuntzan, berbetan, bera eragiña dauka. Eta egunero-koa da zotiñik geien eragiten dauana.

Gañera, artzen dogun barri guztia, bertan sortua barik, kanpotik sartua danez, guretzako, euskera kontuan, euskal agerbide kontuan, egoskatu eziña da. Ao-zeetu, maluskatu barik iruntziten dogu.

Ortik gaur izkuntzaren bizian egunetik egunera zabaldu eta nabaritzen igarten dogu argaltasuna. Ziurretik bizi-barritu ezin izango doguna. Gaurko giroan beintzat.

Izkuntza jator-jatorra dala esan dogu. Eta ugaria.

Orretarako lengo zarrak euki eben euren aldeko edo aldegarri bat. Beste izkuntzarik ez jakitea. Eta gizarteko bizimoduan izkuntzak jakitea mesedegarri dan lez, bakoitzaren berbeta edo izkuntzari dagokion jatortasun, garbitasun, kutsubakotasun eta berezkotasunean, be ongarri gertatzen da.

Ez nator beste izkuntzak ez jakitea txalotzen, ez gitxiagorik be. Izkuntzetan, bakoitzaren jatortasunean zer gertatzen dan edo ta zer jaso daitekena adierazten baiño.

Berba utsetan, itz soilletan, gaitz da izkuntza bat bateko edo besteko kutsaduraren aize edo ikutu barik zaintzea, batez be gaur, izkuntzetako mugarik ez dagon aldi onetan, eta alkarrekiko artu-emonak zela-alako adierazpen bidez batu, lotu, erraztu, argitu eta ugaritzeko, sateliteak izadian zear zabaltzen diardugun aldi onetan baiña nik uste dot geu jatorrago zainduta, gurearen aberastasunari, bai doiñu eta egituretan, obeto eutsi daikeogula gaur daroagun bidean baiño.

Gure euskera, eguneroko berbeta lez, aberatsa izan dala esan dot. Eta zeatza. Zeregin bakoitzarentzat, oarmenak eta eragiñak sortu eta iruditu eragindako berba bereziekaz.

Gauza askori ikutu neikio au ziurtatzeko. Lan luzea egin leike onetan. Baiña gaur denbora mugatua daukat. Eta gure artean, oraindik alkarregaz bizitzeko aukera euki gendun gugaz baterako edo pixka bat aurretikoago izan ziranen berba txorta batzuk erabiliko dodaz ori ziurtatu eta egiaztatzeko.

Ara, asko zeaztuten ibili barik aukeratuta berba bat: Orratza.

ORRATZA

Gure bizitza, ondarrutarren itxas bizitza izan dalako, arraln usaiña artzen asiko gara orratzetan.

Sare orratza : Gaur nailonezko sareak erabilten dira, baiña oraintsuarte arizkoak erabilten ziran, beti ez ziran zibot-zibotekuak izaten, mariñelak ez euken ainbeste ondasun be-ta. (Eten txiki bat: nundik asmatu ete eben gure sare konpontzailleak berba ori? Zibot, gaztelaniaz "capullo de seda"ren esan naiko da. Eta ain ari on eta ederreko gertatzean asmatu ete eben?)

Armateko orratza. Egitura nausirako

Goiburuko orratza. Sarearen goiburuak josten erabilten dana.

Mamiñeko orratza. Sare mamiñak, papuak, sare osagarri eta betegarri ugari konpontzen erabiltekoak.

Orreik, jakiña, erabili bear dan ariari buruzkoak.

Baiña **olezko** orratzak, izen ori dauke-ta, eta beti olezkoak erabilten ziralako, ba daukez euren zeaztasunak be: txiki, estu, lodi, eta zenbakiak 0-koak edo ta 1,2,3 eta 4 koak.

Bai eta sareko mailla zeaztuten dabenak be. **Mailla** orratza eta **mailloi** orratza.

Esateko: Joskuretarako 0'ko orratza erabilten da. Konponketarako 00 bikoa.

Aritarako totolua, au da, lodia eta luzea.

Bietzerako motza.

Kortxopeko premiñak josteko, 1, 2, 3 eta 4 koak.

Mailloi berbak, gu txiki giñala, eskolan erabilten gendun berbeta gogora dakarkit: Guk millo ordez milloi esaten gendun, eta geiago ba zan killoi, eta zenbatu eziña ba zan kinkilloi.

Orreri buruz esan dagigun malloirako orratza luze eta lodia, biak erabilten dirala.

Orratzei buruz ba egozan eta dagoz geiago:

Bela orratzak. Aizeak zulatu eta tarratadaz bete ondoren, bereala konpondu bear izaten diranean erabilteko.

Or dagoz baita **Paparreko** orratzak, pitxidunak. Eta **galtzeta** orratzak eta beste abar asko.

Eta zelan ixilik euki **Itxas-orratza** (gaurkoentzat konpasa), izen jatorra galduta?

Ara Ondarroan itxas orratz bidez aizeak zelako ezaugarriak daukezan:

Kanpoko aizea, (kanpaxia), (Norte); iparra (Nordeste); Mendesta (Este); Errekaizea (Sureste); Egoa (Sur); Galgoia (Sur-oeste); Mendebala (Oeste).

Baiña Este, Oesteka, Norte eta Suraka nabil. Parkatu, lengo zarrak Sor-kalde eta Sarkalde, Ipar eta Ego erabilten zituen.

OLATUAK

Itxi orratzak eta aukeratu daigun beste gal bat: **Olasuak**

Emen be ainbat zeaztasun, ainbat ezaugarri.

Or dagoz **ardI zurlak** deitzen diran olatuak, itxaso olatu zuri txikiz beteta agertzen danekoak.

Olastak, olatu txiki, indarbako, bigunak.

Erlaizeak, itxasoan olatu txiki baiña biziak apurtzen dabiltzanean;

Ondar olatu, ondartzetan bat batera sortu ta apurtzen dan olatua; **eska-lapoa** be deitzen eutsen oneri, eta bits-dunari **katxoia**

Txipli-txaplak, jolasean lez ur azalean dabiltzan olatu txikiak.

Gero datoz gogorraguak:

Olatu-errebonba. olatuak itxasertzean irakiten lagaten daben ur egoera.

Olatu zakarrak, erruki barik gogor eta gordin jotzen dabenekoak.

Olatu sakonak, Barruko erasoaldiz sortzen diranak: bagak

Olatuen gaiña, au da, olatu gaiñaldia;

Birazola, aize nastetsukin dabillan olatua;

Olatu piastak, birazoiaren antzeko.

Bonbezia, olatu arro edo jasoari, eta itxas sakonean gertaten danean.

Olarua, Itxas andian apurtzen dan olatua. (Cáncano).

Tiraiña. Baiña tiraiña egoteko erreka bear da, errekarreak zear ibiltzen dan olatua dalako.

Olatu auzia, olatu giroa da. Olatua apurtzen jo ta auzi dabillanean.

Barraz-barrakoa, Barrako esien gaiñez-gain dabiltana. **Olatu arrotua** be deitzen da. Zabal etorri eta itxas mugarren gaiñetan ibiltzen danari.

Kardala itxas urrunean eteten asi eta olatuen sortzea asten dan ingurua.

Eta olatuak deitzen dautsaguzan tez, **bagak** be deitzen dautsegu olatu sakonak diranean eta uñak be bat; olatu batek uñak ausi, esaten eben.

Ondarroako bizia agertzen dauan beste berba bat, **kala** da.

Danok dakigu **itxas kalak** arrantza tokiak dirala. Itxas zabal eta sakonean arrantzan egiteko eta ibilteko toki egokiak. Batzuk itxas ertzean be bai, besteak, gaur erraz baiña lenagoko arrantza bizibidean gaua itxasoan galdu eragiten ebenak edo ta euretan arrantzateko egun bat edo geiago bear ziranak.

Oraindik erabilten da gure artean, kanpora joan esatearen orde, **at** berba.

- Nora zoaze?

- At'ako bandan. Ori izaten da ondarrutarren erantzuna, kanpo aldera dozala esateko.

Kalak, geienetan, itxas zabaleko tokiak dira, nai ta errian sartu edo inguratzten daben errekan be tarte edo sakonune batzuei kala deitura emon.

Ortik **kala beruna**, arrantzako aparixu edo tresnei, gitxi gorabera, ur azaletik berako ainbeste metrotako (arrantzaleak metro orde brazak esaten dabez) neurria emon eta lortu edo ta ziurtatzeko.

Gaur berunari plomoa esaten ba dautse be, oraindik aparixuetakoei beruna deitzen jarraitzen dabe.

Iñoiz berbetako zaratari be kalamatrika deitzen dautsagu. Ez ete dator ori kalaetan erabilten dan edo erabilten eben berbetako eratik?

Eta ortik kalapitari, berbaldunari, iztunar.

Itxas ekaitz iragarle lez, egunak aurretik gure ondartz, molla egal eta gane, eleizako tellatu, ibai ertz eta abar itxas txoriz beteta igarten dira. Uga serora-andi, aparjale, antxeta, atuntxori, pottorro, lanperna -musu, dsangalarí eta abar izango dira, baiña guk kaio edo kaixar lez ezagutuko doguz, ta zabalago eta errikoia **kaia-txori** izen eta deituraz. Iñoiz **kaia-santza** be bai, ego baltzdunei.

Eta **kaIa** erabiliko dogu txikiteoan gabiltzala ara eta ona joateko: Guazen gure "kalara".

Eta kaIa itza, berba erabiliko dabe txirristada bat egin naian ortik zear Bilbo aldera edo joaten diranean: andra kalara.

Len ontziak eurak, itxas ontzi edo txalopak, kaleru, kalesa eta abar deitzen ziran.

Eta kala-pitxia zer?

Iñok berba baten izenik bere ugaritasunean batu izan ba dau, Placido Mujika izan zan bere Iztegian.

"Mitxeleta", au da erderazko **mariposa** izena zeaztueran, Euskalerrian, an edo emen erabilten diran mamutz egalari orren 160 deitura agertzen dauz. Eta ain zuzen Ondarroan erabilten dan izenik aitatu ez, kalapitxi aitatu ez.

Eta ez da Mujika bakarrik orretan geratzen. Azkue lekeitiarrak be ez dau bere iztegian sartzen. Erkiaga'k diñostanez, an aspalditik mariposia erabilten dabe, nai ta zuri-zuri diranei Ama Birglña deitu eta beste batzuei san Roke.

AIZEAK

Itxasotik urten barik, aizeetan sartzen ba gara, ainbat eratako ezagutuko doguz euren egoera, kolore eta ikuspegi bidez.

Orrela,

Aize baltz,

Aize beralan,

Aize berde,

Aize epel.

Aize erre,

aize fresko,

aize gangar,

aize gori,

aize otz,

aize ustel,

aize zakar,

aize zoro....

edo ta andren aize,

erreakaize,

barrako aize,

terraltxo

eta eurok barruan dirala sortu eta egiten diran ainbat esaldi jator.

Ezin ukatu gure bizitza itxasoagaz eta arraiñagaz irudituta, bardinkatuta, bat-eginda dabillanik.

Gure bizitzako edo ogibideko elburua, arraiña danez, arraiñak biztu dauzku irudimena gure esate, irudipen, antzirudi, agerbide eta ezaupidetarako.

Gure kaletan mendebal aldetik etorten diran txorrotzalien txiruliria entzutean, iñori ez jako bururatzen Santiago'ko erromesen bat etorri danik, edo ta bota-fumeroirik, ez eta erreguka dabillen itxas-maskordun eskalerik, nai ta maskorrek itxaskiak izan. Edozeiñeri be, Ene!, eurl arraiña agertu da, edo ta antzeko esaeraren batek urtengo dautso.

Gabaz tabernetan igaro eta etxera goizaldean datorranagaitik be, bestelako milla esaera egonarren, albako arraiña, edo goizaldeko arraiña dala esango dabe.

Iñoiz nunbaiten emakume alai, bizi nasai edo arin, eta lengo pentsakere-tan, aske samarra edo uste ziranakaitik, lenengo berba, beste guztiak alboan lagata, "aingira baltzak" edo kidekoen bat izango zala esaten zan.

Edo ta geldi ezin, toki guztietan euren muturra sartu naian dabiltzanei, **aingira ziriñak** deituko dautse. Gogoratu aingirak koipetsu eta labanak izaten dirala, eutsi eziñak eta ortik deitura.

Bere buruari errespetuko lotsa edo errespetua sartu gurarik, edo anditza-kotzat agertu naian ezagutzen danari, bere arrokeria salatzen lez, urandiko arraiña deituten dautse.

Ostera, iñor aintzat artzen ez dakian alako gizon mozolo, edo ausarta, edo arpegi zorrotz, betozko eta antzerakoekaitik. lagunarte berezietan ibilten dakienei...izurdeak deituko dautse edo eurekaitik esango da. Izurderik jakintsuenak legorreen, esaten da. Eukiko dau orrek bere aikulua.

Gixajoen baten, edozeiñen menpe ibili edo irrigarri ezagutzen danari, **ur txikiko arraiña**

Ordez gizon nai mutil tentel, ardurabako, nortasun bako, firili-farala edo jakituriz urri dabillanari, iantzioia deituko dautse. Amaika lantzoia ba dabil errian, esaten da.

Eztena nundik sartuko, edo zirikalariet, **akulak**.

Arrantzan aukera onak euki eta arrantza onak eginda arro dabillen gizonari, nai ta bere alegin eta ekiñaren buruz egin, arrain bitsa dabillala esango dabe beragaitik.

Gizon argi, zorrotz eta urrunera begiratzen dakianagaitik **kaieiak** baiño begi luzeago daukela esango da. Jakiña da **kaielak** (erderaz taulón) urrunetik igarten dabela arrain moltsoa nun dagon eta bizi-bizi joaten dirala euretara.

Gizon bat gaixotasunez, eritasunez, edo beste zerbaitegaitik argalduta ikusten danean, **kolaixo sikua** baiño argalago geratu dala entzungo da.

Eta argal, kolore zuri ikusten danean: "Mutxarriak" baiño odol gitxiago, esaten da. Arrain oneri buruz Azkue'k bere iztegian au diño: Mutsarrerri (B-ond), aguacio, pececillo sin sangre, parecido a la anchoa.

Ibiltari danari **papardo**. Esaera be ba dago: paparduak lez, an zarean lakoan emen, zerbait arin egiteko agintzen danean.

Eta alegiñak egiñarren, norbaitengandik ezer lortu ez edo ezin danean, **olagarrua** (amarratza) lez bereari eusten dabillega, esango dogu.

Gizon patxadatsu, ondo jandakoekaitik, **zimarrol gorria** esango dabe.

"Txibiei (txipiroiei) jaten emoten dakiana" ostera, itxasoan zorabiatu edo mariatu eta bota-botaka dabillanagaitik entzungo da.

Eta alaxe ainbat.

Txomin Agirre-ren "Kresala" irakurtea baiño ez dago. Tramana eta Brix'ek zelako itxas berbeta darabilen irakurri.

Oargarri da baita bizitzako eguneroko gertaera bat: Gaur Kristo erabilten da askotan lotsa eta ardura barik, gertaera asko iragarteko be. Kristonak emon, Kriston zapladak eta abar, besteak itxita.

Guk Ondarroan arrain bat artuta daukagu azpalditik orretarako. **Tolla.** Arrain gogorra da. Ilten zailla. Tolla arrantzatu eta txaloparitzen danean, jo egin bear izaten da, ilteko, bein baiño geiagotan jo be, orretarako erabilten dan egur zati lodi bategaz.

Joaldi orreri tollanak emotea esan edo deitzen jako. Ala guk be: tollanak emon, tollanak artu. Beti be arraiña berezi.

Mutil txiki batek bere giza ezaugarria, ar adierazgarria, aidean dabillenean, iñok ez dau esango toki batzutan lez.....sakristiako atea zabalik dabillanik edo antzekorik. Emen antxoa txikia erakusteko daukala edo ta antxoa txikia dantzan dabillala entzungo da.

Norbait erdibitu dala, familia euki dauala zabaltzen danean itaunduten da:

- Da? Zer izan da?

Sarri entzun edo jakingo dozun erantzuna au izango da:

- Antxoa txikia, mutilla ba da eta neskatoa ba da, mielga, edo merlenka edo arrain makalen baten adierazgarria. (Mielga, arrain zistrin, mazkal, aul, balio eskasekoa dala agertzen da Kresala'ko oar baten.)

Bein jaiotza aitatu dogun ezkerro, geigarri lez azalpen bat.

Jakiña da len, oraindik gure denboretan be, orrelako gauzak kozkonduta gero be tabu ziranean, umeak Paris'tik ekarten zirala. Baiña gure errira, Ondarroara ez. Ondarroa'n Santoña-Ameriketatik, esaten zan. Ondarrutarrak atun denboran, atun arrantzaren asieran, Santoña aldera joaten ziran, atuna andik ugariago igaroten eta ibiltzen zalako bere itxas-bidean, eta an igaroten zituen San Pedro txiki egunetik Andra Mari egun bitartekoak. Eta ltxuraz, itxasoetako bits eta aparretan billatzen edo aurkitzen eben umekia.

Beti be itxasoari ikututa, gure erriko bizitza edo bizibideko era, une, gertakizun eta agerpide guztietan. Itxasoari edo arraiñei. Gogoratu bat beteegi egin, eta txalopan baiño bandara geiago egiten dabillenean, zelako izenak erabilten diran. Batzuetan zatarrak, bestetan irrigarriak

Eta ama askok umeen azkuntzan iñoiz batzen daben bularrak anditu eta gogortze-ondorengo egoera muntsuari be **titi-arraiña** deitzen jako.

Eta edozeiñeri be eskua zauri barik anditu jakola ta igaro bear izaten dauan gertaerari, **esku-arraiña**

Orrelaxe, ainbat eta ainbat. Ez da lan asko egin bear Ondarroan, gure erriko euskeran, orrelako izkuntzaren irudimen aberastasuna ezagutu eta batzeko. Txarrena da, gure gurasoekandik guregana bitartean ainbat galdu ez ba ziran be, gugandik gure semeekanako bitartean galtze ori nabarmendu egin dala eta arrisku andia dagola, alegintzen ez ba gara, artxiboetan be ezer ez geratzeko. Or ikusten dot nik gure euskeraren egoeraren itxaso beteko larrialdi bat. Naiago neuke oker ba nego.

Baimendutako orduaren barruan ibilteko, esaera zar batzuk, arraiña edo

itxasoa aitatzen dabenak. Konturatu esaera zarrak filosofi andl eta sakona eukiten dabela, urteetan zear bizitzako goraberetan oiñarrituak izaten diralako.

Ara batzuk:

Apirilleko antxobia, santuen miserikordia.

Ardi urte (ez mendiko ardiak, arkakusoak baiño) atun urte.

Aberatsa inpernuko lebatza; pobri zeruko lori.

Kaladan kaladan pantxo bi.

Berdela agirian dabillan gizonak lotsarik ez.

Emakumea eta arraiña, aotik galtzen dira.

Gurmak itxasoan, okasiñoetako kandela arasa gaiñean.

Gizona gizon dana, itxasoan ezagutzen da.

Itxasoan ez dago jarrilekurik.

Itxasoa beteko guzurra esan.

Itxaso beteko moskorra arrapatu.

Itxasoan ez dago inpernurik. Goian zerua, beian ondua.

Izkira ta kirrizkak ezin alkar ikusi.

Etxekoak baiño itxasoko neskazarrak estimaziño geiago. (Neskazarra, arraiña, batzutan burriua deitzen da)

Otsaillan, katuak be arrain eskean.

Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale ibili baiño len. (Aste Santua baiño len. Uren berotasuna ta abar bitartean)

Itxasoko arraiñik onena, arrantzateko dagoana.

Mariñelaren alabak, argizaiolari kontu danak.

Txalupa zarrak ura egarri.

Txalupan nagusi asko, arrain gitxi ta zorra asko.

Txalopa saldu zorrei erantzuteko? Txalupa galdu ta zorra garbitzeko.

Orra batzuk. Baiña amaitu daidan, esaeren itxasoan itto ez nadin.

Ondo biziko giñala ta dana guzurre,

makallaua jango gendula ta bera azurre.

Ez orraitik guk bizitzako gertaera bat gogoratu barik.

Aldi baten, besperatik joten eben pregoia, biaramonerako aginduak emoten.

Bein "Polka", itxaso beteko abotsa eukan Polka ospetsua il ondoren, Ondarroako pregoilariak tanborra jo ondoren, galdu egiten ziran kaleko "traskotzean".

Eta andrak or ibiltzen ziran balkoirik balkoi alkarri deika, ze pregoi izan ete zan-ka.

Beti egoten zan biaramoneko olatuaren barri jakiten eban norbait, laster erantzuten ebana: Biar makallauak "sikatze" ataratzeko.

Makallauak sikatzera ataratea edo sikatzen eskegitea kolgadurak eskegitea izaten zan, balkoi eta leioak "kolgadurekin" jaztea.

Eta mundu guztiak ulertzen eban "makallau" usaiña artu orduko, zegaitik zan.

Gero esango dozue gure erriko euskera ez dala aberatsa, ez dala ulertzen.

Guk orrelakoei erantzuna emoteko iñoiz berba zatarrak erabiliarren, eta orreik be iztegian dagoz, ba dakigu kresal usaiñez erantzuten be: Ulertu ez? Lapa zorrixak!

AUGUSTIN ZUBIKARAI'REN AKADEMI-SARRERARI ERANTZUNA (IRAILA. 1992)

Augustin'ek Ondarru'ko berba eta itzen aberastasuna, egokitasuna eta bizitasuna erakutsi dauzku: baña, berak esan dabenez "Izkuntza ez da bakarrik itzekaz, berbekaz osatzen. Orrez gain izkuntzak bere egitura dau, Ez uste erderazko berba batzuk sartuarren izkuntza erdera biurtzen danik....." Eta arazo orretan ondarrutarrok euskaldunak zarie.

Euskereak badu bere sena eta bere pentsa-molde berezia erdera guztietatik oso alderantziz dabillena. Euskaldun jator direnak, erdera gutxi dakite-nean, euskerakadak botatzen dituzte galantak, erderaz ari diranean. Etorri zan nere errira inguruko baserritar bat eta illea mozten irabasten eban bere aloguera. Lagun batek galdetu eutzon:

-Praixku, ¿qué haces en este pueblo?

_ Yo pelo cortando. Erantzun zion. Arrezkero "pelocortando" deituten eutzen.

Praixku'k, euskeraren egituraz pentsa "illea mozten" eta, erderazko itzakin esan: "pelo cortando"; erderaz, berriz, esan bearko leuke "cortando el pelo". Zumarraga'n, Santa Luzi eguneko asto-azokan, alderantziz gertatzen zan: ijitoak etortzen ziran astoei illea moztera eta onela esan oi zuten: "Ni motxa-illea" eta izen orregaz ezagutzen ebezen. Baserritarak "pelo cortando" esatean berba erdaldunak erabiltzen ebezan, baña esaera euskalduna: ijitoak, berriz, "Ni motxa illea", itzak euskaldunak baña esaera erdalduna (Yo corto pelo). Erri orretan bertantxe, orain berrogeta amar urte, erderaz ari zirala, onela esan oi zuten: "Quién si sería y..... " Zein ote zan eta.... Eta Lazkao'n, "bakoitza berriakin esateko" onela esaten eban: Cada suyo con él. Esaera au, erdera utsean, entenditzerik ez dago. Nork ez du onelakorik entzun: "Once para ver hemos nacido y" amaika ikusteko jaioak gaituk, esateko?.

Bazan trikitixako kanta bat onela: "Debajo de la torre de la campana (bis) /está matando pulgas la sacristana / Ay ay ay la sacristana...." Kanta onen asmatzallea euskaldun jatorra zan, bestela onela esango eban: Debajo de la torre de la campana....Euskeraren egitura du orrek: Torreko kanpaiaren (azpian) : De la torre de la campana (debajo). Erderaz: (Debajo) de la campana de la torre.

Ona Lekeitio'n gure gerratean gertatua: Nere amama Pillipa Aranburu oso odia zan eta bere lagun Gergori ere bai. Egun batez Franco'ren "Cervera" gerra-barkua inguratu zan kai-aurrea eta eliz-torreko kanpaiak asi ziran dilindalan abixua emoten. Nere osaba Joxe-Pelix'ek taxis bat eukan, artun bere sendia eta Gergori, eta erritik kanpo irten eban aitz-zulo batzuetara. Bi andre

totoluak, Pillipa eta Gergori, ez zuten nai izan kobara igoterik eta kotxe-barruan gelditu ziran.

Orretan dagozala, ara nun datorren eurakana miliziano taldetxo bat. Miliziano erdaldunak barrukoei: -Qué hacen ustedes aquí? Barrukoek ixilik. - Pero, ¿qué hacen aquí? Orduan, Gergori'k nere amamari: -Berba eixu Pillipa. Baña, Pillipa'k berbarik be ez. Orretan, Gergori bera asi zan itz egiten: - Este señora, de hijo de auto, no poder ser andar.- ¿Qué dice usted, señora, que no le entiendo nada? -Hombre, hombre, fácil, fácil (astiro-astiro eta berbak banan-banan esanaz): Este señora de hijo de auto

Miliziano aien algara eta parriak Lekeitio'tik entzutekoak ziran. Andik aldi batera, gertaera gogoratuz, onela esaten euztan Gergorik: -Miliziano arrek tontuak ziran, nik errezago esan ezin: Este señora de (Andre onen) hijo de (semearen) automobilla (auto) eta ain garbi esanda be, ez eben ezer entendi-ten.

Bere esan-aldia erderazko berbekin jantzi eban Gergori'k, baña, alaz be, Gergori euskeraz ari zan eta orregaitik miliziano erdaldunek ez eben ezer ulertu. Gudari euskaldunak izan ba'lira, erdera ori ulertuko eben, euskeraren bidetik; baña, erdera utsetik, berbeta ori entenditzerik ez dago.

Euskera eta Erderaren joka-bideak ez dira berdiñak. Gergori'ren esan-aldia Euskeraren joka-bidetik zijoan: Lenengo asi zan an bertan zegoen Pillipa'ren gandik, gero bere semearen gandik eta aizkenean semearen automobillarekin amaitu eban: El auto del hijo de esta señora. Automobilletik asi, semearengana jo eta andrearekin amaitu. Dana alderantziz.

Ez al zan egokiago an bertan zegoen amaregandik astea? Ama onek bazuan semea eta semeak automobilla. Orra lojikaz eta sentzunez betetako berba-jokoa: andre onen semearen automobilla. Erderaz, berriz, automobillengandik asten da, gero semearengana jotzeko eta azkenin amarengana: El auto del hijo de esta señora.

Gergori'k erdera gutxi zekien; baña, Amoroto'n jaiola izanik, burua zeukan euskeraz moldatua eta euskera-moldea irteten euzton erderaz ari zan bakoi-tzean. Gerratean, bein nor zan galdetu eutzen. Eta onela erantzun zion erdaldunari: -Arriba La Churrera Gergori la gorda, siete milicianos lavar, siete milicianos colgar en el balcón. Onok danok euskera utsean esanak daude; erderaz onela erantzungo zuen: Yo soy Gergori la gorda, vivo arriba de La Churrera, lavo la ropa de siete milicianos y cuelgo esa ropa en el balcón.

Erderazko izkuntza-legeetan lenengo ipiñi bear da Nor dan edo Nork egiten duan; gero aditza eta ondoren zer dan edo Zer egiten duen; eta, ostean, beste aditzaren osagarriak. Baña, euskeraren legeak beste era batekoak dira. Gergori'ren arazo onetan zer zan Gergori'k azpimarratu nai zuena? Zazpi milizianoen jantziak garbitzen ebazala, eta ori aditzaren aurrean ipiñi bear da. Orixe egiten du Gergorik: Siete milicianos lavar, siete milicianos colgar.... euskera utsean ari balitz bezala.

Euskeraren jokabide onen garrantzia azpimarratu du Augustin'ek bere lanaren asieran: Euskeraren joko-garbia gordetzen dan bitartean erderazko itzak sartzeak ez duela aibesteko garrantzirik. Gaurko egunez, ordea, Euskeraren joko berezia dago kinkan eta arriskuan. Asko dagoz gure artean, Euskera arloan, kursillo batzuetan izan diralako, euren buruak maixutat daukatenak, naiz eta euren buruak erdaldun iraun. Eta, orrela euskerazko itzetan

bilduta sartzten dígute erderaren pentsa-moldea eta jokabidea. Euskera-aritzaren mamian erdal-sitsa sartzten ari zaigu eta orretxek ilko du betirako Euskera, eta bere ordezt Erdera emango dígute euskal berbez jantzia. Irakurri egizuez egunkarietan agertzen diran iragarkiak (Udal-etxe, Foru-Aldundi, Jaurilaritza eta bestelakoena) eta, erderaz idatzita dagoena irakurtzen ez badozu, euskera utsekin ez dozu ulertuko zer esan naí daben. Gisa-orretako idazleak ugaritzen ari dira erdaldunentzat, euskaldun utsak ez bai die tutik entenditzen. Auxe bai dala benetako tamala!

ANES ARRINDA



LINO AKESOLO. IDAZLAN GUZTIAK.

Irugarren liburua

Karmeldarrak txalogfarri dira euskal arloan. Uno Akesolo Aitak alde egin orduko asi ziran bere idazlan osoak argitaratzen. Len liburu bi atara zituen. Egunotan agertu da irugarrena eta azkena. Julen Urkiza'ri esker agertzen da liburu au, eta bertan, beste gauza askoren artean, Aita Lino'k 1927 urtean asi eta 1991 urte arte idatzitakoak eta argitaratuak agertzen dira, bai eta bere paperetan argitaratu barik aurkituak be. Onelakoa da ale onetan agertzen dan **Senar emazte ala esposoak** lana.

III.3. LIBURUKI ONEN ARGITALPENAZ

Liburu au "Idazlan guztiak" deitzen arteko irugarrena da, leenengo biak 1989.ean argitaratu zirela. Orain, egilea il ostean, beraren idazkien argitalpena osotu bearra egon da.

Egiteko erabilitako era edo bidea bardina izan da, au da, leenengo liburu-kian jakinerazo zan berbera)ik. Idazlan guztiak, LX-LXI. orr.). Bakarrik VI kapitulua (Lino Akesoloren bertsoak) eta VII.a (kronista modura egindako lana) gaineratuko ditugu.

Libururi onetako edukinari dagokionean, beste bein leenago jakitera emondakoa gogora ekarte komeni da: onako geiketok dituela: a) beraren azken iru urteetan idatzi eta argitaratutako lanak; b) leenago idatziak izan eta argitaratu ez zirenak, au da, beraren paper ugarien artean, eriotze ostean aurkitutakoak; eurotariko bi (Orixeren pentsamenduren sintesia, 1991-1, 3-26. orr.; Pio Baroja, 1992-2, 91-103.orr.) aurten Karmel aldizkarian argitaratuak izan dira.

Modu berean, ainbat edo kazetarik egindako alkarrizketa batzu bere jaso ditut. Badakigu onelako alkarrizketen balioa eta fideltasuna beste modu batetakoa izaten dala; ori horrela bada bere, Karmel-en argitaratu neban alkarrizketan jasotako L. Akesoloren erantzunak, berbaz berba, oso-osorik bereak direla baieztatu neike.

Eskerrak Patxi Uribarren eta Luis Baraiazarra Aita Karmeldarrei emon bearrean nago, inprimategiko probak zuzentzen emon deusten laguntzagaitik.

Gaur, Lino Akesoloren eriotzaren urteburua dogun egun onetan, berari geure esker ona erakutsiz, amaitzen dot lan au.

LARREA, 1992-IX-17AN
JULEN URKIZA

SENAR-EMAZTE ALA ESPOSOAK?*

Emen nalz, zentsu onaren alde, gure klasikoen eta apaiz zaar eta berrien alde buru-erakuste bat egitera etorrira, "Euskera" gure Euskaltzaindiaren aldizkarian irakurri ditudan txatxukeri batzuk eragiñik. Nor? Euskaldun bat. Lotsaturik nator. Ez nuen uste Akademiaren itzal ta izenpean alako txaldan-keririk ikusiko nuenik. Irakurri al dezute an Pedro I. Barrutia'z eglndako lana eta ari darraiklon eztabaida zorigaiztokoa? Lan ori "Euskera" aldizkariak, ezer zuzendu gabe, ezertako argitasunik ez azalpenik eman gabe, argitaratzea, lotsagarria! Urte osoan ez ote dute izan astirik Barrutiazale orren illunetan (ez dut errukiz bere izenik emen ezarriko) argi piskatxo bat egiteko? Ala, "Euske bialtzen zaizkion lan guztiak onartu ta dauden daudenean argitaratu bear ditu?

Ni ez nator lan orretan irakurri ditudan oker esan guztiak yasotzera. Ez dut gaurkoz salatuko, esaterako, Azkue zanari or egiten zaion itsuskeria. Azkeneko eztabaidari bidea eman zion gala aztertuko dut soil-soillik. Laburtzearen eta arira etortearren, ona an eralki zan guztiaren mamia:

1) Oraiko apaizak ez ornen dakite ezkontza zer dan; apaizaren aurrean egiten dana esposadu, esposatzea ornen da, ez ezkontzea; ezkontzea "abadearen bendiziñoa akabaduteagaz" ornen dator. Au guztiak ornen dakite, ezkonduak ongienik: oraiko apaiz euskaldunez ez.

2) Gure klasikoak ala mintzo ornen dira; orregatik ayetan esposadu da bat, eskondu beste bat (?).

3) Maria ta Jose ez ziran ezkonduak, esposiak edo esposaduak baizik; ez ziran senar-emazte, esposak baizik. Besterik esaten duten apaizek birao egiten ornen dute. Au aldizkarian ez dator orren argi; baña itzaldian argi esan bide zan; Zugazti apaizaren erantzunetik ala ateraten da.

4) Gure klasikoek ez dute iñoiz ere esan Maria ta Jose senar-emazte ziranik, ta bai esposo ta esposa. Gure Barrutia'k "erlijioezko terminuak" ederto ornen darabilzki, oraiko apaizek ez bezalako egokitasuna ornen du ortako.

Nor, eta "istoriak bost piper siku inporta deustaz" diyon bat etorri bear lau sustraigabekeri oyek entzunaraztera? Zer ikusteko ote gaude? Lenbiziko puntu biyeri ez diet erantzunik emango. Ezta nire egitekoa, ta ez Euskaltzain-

Lino Akesoloren paper artean aurkitutako idazlana: Basabil izenez izenpetutako lana; ziur asko aldizkari edo egunkariren baterako (El Diario Vasco?) eginiko idazlana; baina, antza denez, ez zan argitaratu. 1970.eko amarkadan egina...

diarena ez onen ingurukoena ere ezkontza zer dan edo zer eztan erabakitzea. Jaunak, Plauto'ren irrizko gordinkeriak berritu gogo al dezute? Plauto orrek esan ornen zuen irriz andre batez onako auxe: "Quotidie viro nubit, nupsitque hodie, nubet mox noctu". Beterri'n norbaitez zenbat aldiz ezkondua dan galdetzen duenak olako zerbait galdetzen ote du? Edo ta, "los esposos Curie" entzuten dugunean, senar-emazte oyek ezkontzeko ta birjiñik daudela esan nai ote digute? Korapilloa alako eleiz-legeetako "matrimonium ratum eta consumatum" diralako oyek gure Barrutiazaleari nonbait buruan egin diotena! Olako korapillo oyek askatzeko blde bakar bat dago: ikastea. Eta ikasi gabe, ez maixu egin burua. Gure idazle batzuen eta beste nonbaiteko esposo ta esposatzeri antz emateko ezta zuen ametsetakorik egin bearrik. Itz oyen yatorria non dan ba-al dakizute. Latinoetarik dator itz oyen erabilketa. Forcellini'k, esaterako, esango dizue nola latinez maritus edo uxor zanari sponsus ta sponsa esateko oitura sartu zan "honestiore vocabulo" mintza naye.

Irakur zazute Corominas'en erdaliztegia; an ikasiko dezute, esaterako, zer dan erdaldunen esposo, nola ta noiztik asita dan marido'ren kideko. Ikasi ta ez etorri adarra yoten, beste amets gordin oyeekin.

Ezkontza zer dan eta zer eztan, nola esposo ta senar-emazte ta esposatze ta ezkontze berdintsu diran gure klasikoekin erakutsi nai banu, luzeegi yoko nuke. Lenbiziko bi puntu ayek utzirik, beraz, beste biyeri erantzutea aski izango dut, gure Barrutia'tarren okerra erakusteko, beronen asmotan ere lau puntu ayek elkarri dagozkionak baitira.

Zein klasikorik irakurri ote du adar-yotzaille onek ola mintzatzeko? Egia esan, nik ez dut klasiko diralako oyetan, maite baidutut ere, ala-alako siñes-terik. Ez ote zuen esan Vinson'ek ayen liburuak, edo erderatik artuak, edo erderaz pentsatuak zirala; "et n'ont, á proprement parler, den de spontané ou de national"? (Au esan duena ezta, gero, oraiko gure arteko euskaldun berrizale buru berorik, atzerritarrek zer esango begira ta kezkaz ornen dabil-tzenetarik; "estranjeru" uts garbia da). Edola ere, ez dugu, gogoak ematen digunik, gezurra dalarik ere, ayeri ezarteko eskubiderik, gure Barrutiazaleak egiten duen bezala.

Mintza bekiguz, beraz, klasiko oyek. Eta mintza bekigu guzien aurretik Leizarraga, XVI'garren mendeko idazle ezaguna: "Jacobec engendra cegan Ioseph, Manaren senharra" (Testamentu Berna, Mat., 1,16). "Orduan bere senhar Ioseph... secretuqui utzi nahi ukan guen... Ioseph, dabit-en semea, ezaicela beldur eure emazte Manaren hartzera" (Mat., 1,19-20). Au aundia! Ain zuzen ere, euskal-literaturan leenago ageri dira Maria ta Jose senar-emazte egiñik, esposo ta esposa baiño. Eta gure klasikozele amorratua izarretan lo!

Era berean mintzo da Haradener Ebangelioetako leku oyetan eta ere beste batzuetan: "Ioan cen beraz Ioseph ere Nazareth Galileaco hiritik Iudeara, Dabiten hirira, ... bere icena emaitcotgat Maria bere emazte igorra cenarequin batean" (Luk,il,4-5). Ona, berriz, Yaundone Matheoren lendabiziko kapitulan, azpian, yartzen duen oarra: "Nola ludutarrec emazteac hartcen baitzituzten bere ahaidetarik, Debiten etchetic ilkitcen cenazgeroz, esqui aditcerat ematen darocu I. Matheok, handi beretic atheratcen cela Iosephen emazte Maria".

Jose ta Maria senar-emazte dira orobat 1828'garreneko Testamen Berrian, eta Duvoisinin Biblian. Baiña bizkaitar bat ere aipa dezadan. Uriarte Frantziskotarra. Bere S. Mateo'ren Ebangelioan ona nola mintzo dan: "Eta Jacob andik izan zan sortuba Jose, Mariaren senarra... Jose, Dabid'en semia, ez zaite bildur izan artuten Marija ceure emazia, cerren beragan jayo dana Espiritu Santubarena da" (Mat.,I,16 eta 20).

Betor beste lekuko bat Erronkari'tik: Hualde Mayo. Onentzat Jose espousa da bein, arik geroxeago senar izateko eta Maria bere " emazia".(Mat.,I,16 eta 19-20).

Eta nola diote, nola euskeraraten dute gure idazle klasiko ta zaar ayek latñiezko "cum esset desponsata"? Esposadu edo esposatu ori sartzeko bere biziko unea zalarik ere, ona nola dioten: Leizarraga'k, "fedatu" ; 1828'koak, "ezkontzaz hitzeman"; Haraneder'ek . ezkondu, eta Hualde Mayo'k bordaltu; Batek ere ez esposatu edo olakorik.

Orain Ebangelioak, gure "erlijioezko terminuak" egokienik erabilten irakasteko maixurik autatuen ayek utzirik, goazen beste idazle batzuetara. Larregi, Royaumont'en Bibliaren euskaratzailea ekar dezagun erdira (1777). Onela mintzo zaigu" Maria ezkondu cen Iosephequin; laincoac eman cion senhar prestu hura haren garbitasunaren beguiraila bezala " (11,98). Mintza bekigu Etcheberry apheza ere bere Testament zaharreko eta berriko istorian: "Birjin hura deitzen cen Maria; senharra zuen Jose guizon iainkotiarran" (184). Eta geyegi ez luzatzearren, eta norbaitek oraitsukotzat yo eztezan, Intxauspe kalonjea utzita, etorri gaitezen mugaz anuntza; emen degu ontan argienik eta garbienik ari zaiguna. Euskaltzaindlak berak ez ote du oraindik orain argitaratu Lardizabal'en Testamentu Berriko Kondaira? Baña, irakurri al dezute?. Eta, ikusi al dezute an esposo ta esposatzerik? Ezkondu, senar, emazte, senar-emazte bein ta berriz darabilzki garbi-garbian, bai Testamentu berri ortan eta bai Testamentu zarrean, azken-alderutz, Jose ta Maria'z ari danean.


Idazle oyek eztira nolanaikoak gure literaturan, noski; Leizarraga, Haraneder, Larregi, Uriarte, Lardizabal eta Duvoisin eztira nornai gure idazleetan, eta "erlijioezko terminuak" egoki erabilteko bazuten Barrutia'k aña argi. Baña, "ugaritasunaren ederrez" ez nuke ixillean utzi nai beste bat. Ezta, bear bada, klasikoetakoa (oraindik ez digu iñork klasiko oyek zeintsuk eta noizdantik asita noiz arteñoakoak diran mugatu). Dana dala, "leenagoko apaiz" oyen lerroan sartu (edo, atsegiñago badezute, ayen lumeroan edo incluidu) genezakela uste dut. Urtez, 1881'koan agertarazia da liburua Villafranca'ko kondearen izen ta itzalpean agertarazia. Bere aita, apaiz bat; eztakar bere izenik; S. Jose'ren omenez euskeraz egindako liburuetan n̄k dazagutan; k zaarrena bera. Yakiña, ez dugu bertan arkituko gero gure izkuntz zatartu ta galdu ornen duen norbaiten kutsurik edo aztarnarik; Larramendi'ren aztarnatxoren bat, arkitzekotan ere (gure euskeraren zatartze orrek askok uste duten baiño erro zarrago ta antxiñagokoak ditu). S. Joseran atsekabe ta atsegiñak; 110 orrialde. Liburutxo orren 100 orrialde oyetan ez duzute arkituko ez esposo ez esposatzerik; S. Jose senar da beti; senar leial, senar txit garbi, senar aingerutar, beti sonar; Andre Maria emazte, emazte orbangabe, egiazko emazte, emazte aingerutar, emazte argidotar, emazte dontzellatar, beti emazte.

Azki da adibiderik, aski da testo zaarrik. Non da, ene jaunak, gure klasikoen eta apaiz zaarren esposo ta esposatze orren alderako delako batasun

ori? Non gelditzen da gure Barrutia'tar orrek Euskaltzaindiaren aldizkarian zorigaitzean maixu-putz andiyekin esana: "Gure literatura klasikoan euskeraz ezta iñoiz esan Birjiña ta Jose senar-emazte ziranik, beti ziran esposoak"? Yaunak, aurrerrontzean klasikoak gora ta klasikoak bera ta leenagoko apai-zen izenean iñor datorkizuenean, begira ongi, adaryotzailleren bat ez ote dan, gero. Barrutia gutxi ezaguna dalata negarrez ta erostaka datorkigun onek, non utzi ditu Leizarraga, Haraneder, Larregi, Uriarte, Duvoisin eta Lardizabal?

Euskaltzain yaunak, lotan zeundetela noski, etsaia sartu zaitzue zuen alo-rraan. "Euskera"n olako lanak, ezertako argitasun gabe, argitaratzen utzi-tzeak Euskaltzaindiaren buruzaritzea ta izen ona gora yasoteko ezta bide ego-kiean izango. Ez dut esango zeiniek duen oraiko ontan errurik geyen: Barru-tia'tar onek, ala bere aitabitxiren batek. Euskaltzaindia, guztioi egin diguten itsuskeria (itsuskeria zentsu onari ta euskerari dagokionez) garbitu bearrean dago, nere ustez. Itsuskeri ori, ta Azkue zanari or bertan egin zayon oben beltza garbitu bearretan. Ai, Urkijo ta Azkue bera bizi balira...!

LINO AKESOLO



ERRIEUSKEREAREN AZTERKETE

- KASETEAN ARTU DANAREN IDAZKETA
- OARRAK
- ESALDIEN AZTERKETE

KASETEAN ARTU DANAREN IDAZKETA

Niretzako ixen zan gerrie, ba, asi zanjen, geu egin giñen batu Santo Domingo'n Mendigoizale (1) guztiek, andik juen gintzen Bilbo'ra, Bilbo'n egon nitzen erakusten (2) enfermeruei zelan kurek ein bi txuezan, Indautxu'n, kirol esaten tsagun txalet baten. Gero etorri jaten Kirikiño'ra, batalloi kirikiño'ra joateko deje. Gero an egon nitzen Kanpazar'en Intxorta'n eta andik bajatu (3) gintzen Ejbar'era, Eibar'etik urten gendun ta jjun (4) glñen Gorozikera. Goroziketetik bialdu geittuzen (4 bis) ona, Algorta'ko an ezelan esatetse berari ba, bere izena... sozjedade bat dau (5) an plaien.... Igeretxe, gero andik blaldu nenduen (6) San Roke'ra. Gero andik bialdu nlnduen Balmaseda onduen dauen mendire (7), andik ba, Tasualen'era, Tasualen'egin genduzen eta joan ginen ona... Jibaja'ra Jjibaja'tik bialdu gaittuezan ostabe (8) Tasualen'era, Tasualen'etik, egon giñen eta bajatu giñen Anpuero'ko mendire. Anpuero'ko mendien eguzelez (9) zarratute gure urtelekuek (10), ba, zerien (11) Anpue-

- (1) Mendigoizale: Mendigoizaleak talde bat ziran, ez gudarako taldea, mendietatik ibilteko elburua eukan taldea baiño. Izlarlak olako talderen bat gogoratzen dau, eta bear ba'da, gudariak esan nai izango dau.
- (2) Erakusten: Bizkaian ondo bereizten da "erakutsi" agertu eta Irakatsi: irakasleak egiten dauana, ez ostera Gipuzkoan. Ba-dirudi emen obeto legokela "irakatsi", baiña berak erakutsi baiño.
- (3) Bajatu: Erdel-itza, beste lekuren baten jatsi be esango dau izlariak. Itz au jji gaz idatzI-bearrekoa zan. Erdel-itz asko sartzen dira erriaren euskeran, sarritan euskal-Itz jatorrak alboratuta, au esaterako, baiña idazten danean ori ez litzake egin bear, orrelan euskal itzak galdu egiten diralako.
- (4) Jjun: Jjoan-Jjuen-Jjun: JJ ori ez da orrelan esaten Bermeo'n, baiña bai Gemikan, eta Busturi bitartean dagoan lez, gauza batzuk Bermeo'tlk artzen dabez eta beste batzuk Gemika'tik,
- (4 bis) Geittuzen: Aditz-era au Bermeo'tik artua da. Bermeo'n len-aldia sortzeko orain-aldiari "-en" gaiñeratzen dautsoe, esateko "Ikusi dot", "ikusi doten" (ez neban), emen be antzeko gauzea daukagu, "ginduzan" esan bearrean, "Gaittuzen".
- (5) Dau: Izan aditzarena ba'litz, "deu" esango leuke, "Ikusi deu", baiña emen "egon" aditza da eta "dago" laburtu egin da, "dau" biurtzeraiño.
- (6) Gero andik bialdu ninduen San Roke'ra: Ikusten da jioskerea aldatu egin dala, onelan izan bear leuke: "Gero andik San Roke'ra bialdu ninduen". Dana dala, Bizkai'ko euskereak obeto zaintzen dau Jioskerea, beste euskerak baiño.
- (7) Mendire: Emen agertzen da Bizkal'ko abostegian ain ezaguna dan eta Nren Indarrez egiten da aldakuntza: Idatzi, "Mendira" idazten dogu.
- (8) Ostabe: "Ostera be", laburtuta dala dirudi, naizta erderazko "otra vez"en antzekoa izan.
- (9) Eguzelez: "Gengozan lez", izan bear leuke, baiña aditz ori erdi-galduta dago antza.
- (10) Urtelekuek: Errez ulertzen da, "urteteko lekuak", baiña erri-mallan "salidak" entzuten da, idazleen artean barriz "urtenbideak".
- (11) Zerien: Zerbait gogoratu ezin danean, "komodin" edo berba-lagun erabilten da, baiña aspal-dion erailkera bat entzuten da idazleen artean, eman lñoz entzun ez dana: "zera esan eban".

ro'n atrapa (12) gaittuezan, Anpuero'n, gero Anpuero'tik Linpias'era bialdu gaittuezan, eta an e Anpuero'n okediga (13) zerien (14) Linpias'en, batu zien italianuek, italianuek ba zerka (15) eta ondo, ondo on gitzezan bertone, ondo esan euskuen (16). Jente ona, ondo esan euskuen, gero (bildurtien familia...) ori bai e, ni juen nitzen azkenengo. Lenengo batalloie, zerien gauzela (17) Anpuero'n gauzela, esan doskuen zelan gauzen zerkeute (17) gero jjueten zan lenengo ba batalloie, gero enfermeruek ni atzenengo jjueten nitzen ta Linpias'era sartukeran, aldaztxue dau gero altuenera altu jatsikerie (18) sakon zerkeu gaittuezan italianuek esaten ba ze zuek nonguek zarie ta ba gu euskeldunek gara. A, ba, ba-daukazue armarik izkillurik (19) edo emoteko? Nik bai. An e danak emon bizuez, asike (20) emoten ba zuez. Bai, Geu guztien ez euskuen itxi ezetan be lagundu, bata ekarri te beste ekarri (21) gaba ba pase genduen kanpuen ezta, kanpuen. Gero biamonien sartu gaittuezan kanpo be futbolera (22), Laredo'kora, an ein genduzen orduak baiño ez genduzen ein an. Bialdu geittuezan ona, zerera (23) zelan deko izena, lenengo Santander'eko erridse bizkaidsegaz... ez ez, bertone dauena, lenengo erridse dauena, plaidsek eta dauzena, ara bialdu geittuan eta gero andik ba ettera (24) zer ixen garlen da izena emoten da albizenak (25) emoten da niri esastien ba bueno (25) zuk bier in bizu (26) bialdu niñuen ospitxelera plaza de toros'en ondora (27), Plaza de toros'en egon konbentu bat mojana, prisioneruentzako e, prisioneruentzako ta geisuentzako ta eriduentzako. An egon nintzen, egin nittuzan iru illebeten ta jausi nitzen kalenture andixekaz

- (12) Atrapa: Erderatik artutako berbea da au, baiña erdereak "atrapar" erdi-galduta dauka, euskeraz barriz sarritan erabilten da. Olako berba asko dagoz euskeran, erderatik artuak baiña erderan erdi-galduak.
- (13) Okediga: Ona emen erderatik artutako esaldi bat, naikoa zabaldua: "o que diga". Olakoak dira, esaterako: "sikeran be", "biinke", "popertza", "aunkesea" ta beste asko. Erderea Igarri barik eta errez sartzen jaku.
- (14) Zerien: Barriro agertzen dan berba-laguna.
- (15) Zerka: Gudaritzako berbea da, "zerkata egon", baiña ortik kanpora ez da entzuten.
- (16) Zerkeute: Len agertu dan "zerkata", Bermeo'ko Izkerea litzake, "zerkeute" ostera, Gernika-aldekoa.
- (17) Gauzela: "Gagozala", baiña abostegi-arloan aldatuta.
- (18) Jatsikerie: Beste leku batzutan "baba" entzun dauzagu, emen jatsi agertzen da. Sarritan euskerazko berbea jakin arren, erderazkoa erabilten dogu.
- (19) Izkillurik: Berba au ez dau erabilten erriak, baiña gudarien artean zabal ebillen, itz barria izan arren.
- (20) Asike: Ona emen beste erderazkoa esaldi bat, euskerara sartuta dagoana. 13n. oarrearan agertzen diranakaz batera dago.
- (21) "Bata ekarri ta baste ekarri": esaldi jator bat da.
- (22) "Kanpo de futbolera": Jakintza edo kultura sailla barriletara sartzen garanean, berbak barriztau bearrean, kanpokoak, beste kultura batenak artzen dogu. Or daukagu berba inglesa, gaztelerearen bidez artuta, eta esaldia, gastelerazkoa. Obeto litzake, gitxlenez, "futbol-zelaia" esatea, edo obeto bear ba'da "ostikoketa-zelaia".
- (23) Zerera: Barriro berba-laguna.
- (24) Eterra: Ez da ondo ulertzen au zer dan, bear ba'da "deklaraziñoa" edo agerpena "egitera".
- (25) Abizenak: Berba barria da, baiña Ikusten dan lez, sartu da errira Beste leku baten "apilledue" be agertzen da.
- (25 bis) Bueno: Au be berba-laguna da, erderatik artua, eta alkar-izketetan asko ta sarritan entzuten da. Auxe da euskera galtzeko bide bat: Sarritan erabilli bear diran berbak erderatik artzea.
- (26) In bizu: Abostegi-bidez laburtua, "egin bear dozu".
- (27) Plaza de toros'en ondora: Beste esaldi bat erderaz, olakoetan argi Ikusten da gure euskerea nondik nora galtzen dan. Ez litzake gatxa izango "zezen-Plaza" esateko oitorea artzea, baiña orretarako zabalkunde emonkor bat egin bear litzake.

(28). Andik bialdu ninduen Lierganes'ra. An egon nitzen e, an egin nittuzen ba gaisorik ixengo zien bost illebeta. Bost illebetegarrenien para nitxen ondo ta an ba geixoeri emoten eutsien ba atle, batzuk kanpo konzentraziñora (29), bestiek frentera ta bestietara. Ni an itxi nenduen, nik enekidsen ba bestiek, nigaz egon zien beste bi kuartuen, arek eruenbezen (30) ta ni al geidittu nitxen, arek jjuen da gero etorzan direktora, ta medikue, mediku militarra zan, kapitxena, prisionerua da baia medikue geurie, salako medikue ta esastan ba, zelan zauz? Ondo. Ba maletie euki neuen, neure maletie... Artu maletie ta etorri geugaz. Eruen ninduen lenengo pisura, deittutsien an enfermera batzuri, ta esantsien, bueno, au ain numerotan imiñi. Sartu nuen maletie ta esastien ba ze imiñi erropak armaridsoetan ta ipiñi bear dan moduen, ta gero bajatu neureiñe ofiziñera. Bajjatu nitzen ta esastan, bueno, oin imitxen zeitxut gauaz, gauaz bier eitxeko eta gero oiñik illebeta edo, parako zara egunez, esastan, egon nitzen an eta esan pasako lau egun edo bost egun, ba, deitu ziden ta artun (31) bizu zeure konture salie ta emostoien salie egunez eitxeko bier... Ez, ez kurek eitxen, kurek eitxen. Ze ni egon nitzen e, soldadutzen asi nitzen pratikaten eta apur bet estudiaten ta ixen neitzen enfermero espezialista (32) esamiñeu ein ninduen ezta ta gero beti eroan dot a gauzie ta an be asko pratikaten nitzen ze pratikantie zan gizona ona ta niri erakutsi (33) eta berak bierrik ez berak, dan, ta andik urten neban ba ondo, berak emotestatzan zertxu (34) batzuk, esplikaziñoak, au onetara, bestea onetara, berak biarrik ez eban eitxen, neuri eraitteustan dana. Gero indeziñoetara be iguel, lenengo indeziñue emon bien neuenien neuri emon neuen (34 bis), zanekue. Gero segiduen orretara. Etorzan gerrien ba, ta gerrie etsu zanian juen giñen Santo Domingo'ra, an batu giñan mendigoizale guztiek Euskadigaitxik lutxatzeko (35), gero esan dotan lez jjuen gintzan ona Indautxu're, gero ba, gero

- (28) Kalenture andidsekaz: orrelan esaten da eman, obeto litzake, bear ba'da "kalenture aundiak jota".
- (29) Kanpo konzentraziñora: Barniro be erderazko esaldia edo esaldi-zatia. Orrelan esan bear ete dogu ala gure nagikeria azpiratu eta euskeraz esaten alegindu, esaterako "zigor zelaiaira".
- (30) Eruenbezan: "Eroan ebezan". Bizkai'ko euskereak la erdia galtzen dau, esakeran izkirik erdiak ingugu galtzen doguz. Esaterako: Egin bear dozu/ in bi zu. Inglesak be badauka olako jokena. Ortik ez dot uste galduko danik euskerea.
- (31) Artun: Gramatikaz ez leuke agertu bear azkeno /-n/ orrek. Aditz batzuk ba-dauke azkeneko /-n/, esaterako edan, jan, joan, Igon... baiña beste batzuk ez, "artu" da, ez "artun" baiña eman sartuta dago /-n/ ori, bear ba'da adItz guztiak alkarren antza artzera joten dalako.
- (32) Enfermero espezialista: Barniro be erderearen Indarra: "Gaiso-zain berezia" izan bear leuke, erderatik artu barik euskerearen barrutik itzak artzen dirala. Egia da beste izkuntza askok be "itz emonak" "prestamuak" artzen dabezela, eta euskereak be beti artu izan dauz, baiña aspaldion ain indar aundia daukan izkuntzak alboan doguzala eta telebista ta Irratia etxean doguzala, arrisku aundia daukagu euskerea bere barrutik galtzeko.
- (33) Erakutsi Ikasi. 2n. oarra. Emen be Bizkaiian erabilten dan "irakatsi" obeto legoke: Ikasi/Irakatsi, Ikusi/erakutsi.
- (34) Zertxu: (Ikusi I 11n. oarra), berba-laguna da au, berba egokia burura sasoiz ez dato'renean, aldia beteteko artzen dan berbea, "komodin". Araza len argitu dogu.
- (34 bis) Neuri emo -n: "Neure buruari emon neutson".
- (35) Lutxatzeko: Idazleak eta izlariak "burrukatze" esango leukee, "Burruka" edo "murruka", Bizkai'ko euskeran Idiak eta auntzak egiten dabe, baiña ondo litzake itz ori erabiltea, eta ez "lutxatu", erritar arruntai ez dautset berba ori entzun, Oraintxe dago sartzen "lutxea" berbea,

amaitu zanjen gerrie ba, segidu ban eta an egon nitzen ba kuarentara (36) arte ospitxelien, bai, baia kuarenta baiño ariñau, ille batzuk ariñau bialdu ninduen Santander'era, ospitxel bat zertzen, eitxen errebiseu apur bet, ze ez zien arreglaten ondo pratikantiek eta mojak eta orrek guztiek eta, koronelak ordez ba, bialdu nenduen ara. Gero an egon nitzen ba zortzi illebetien eta zortzi illebetegarrenien ba, etxera, etxera, ze (37) etxera jjueteko ba pasateko pasateko. Nik segigu nekien e, ez eusten itxi gure ezetara bez, ta ondo, biar asko bai eitxen nuen o manejjeten nitzen... (Gerra ostien kartzelarik...) Ez ez, ezetarikorik enuen euki. Ze esastan egun baten kapitxenak, medikue militarrrak deittustan da esastan ba ze, zu ez zara zer (38) ona gero, esastan. Zer ba? Ona zan gizona gero e, ona gizona, ez zara bedar ona. Beitxu, erakutsistan, udaletxeko nire... zer naien eta guztidse, ta ona nitzela baia nazionalistie, gero ori esastan, orrek ezteu faltarik eitxen, parrokuena erakutsistenm ta parrokuiek ez eban imitxen partidurik ez ezebez, ze guk gero orduen paga eitxen gendun kleruena, (nor zan parroku?) Arrien, Arrien zan parrokuie orduen. Orrek anaidse bi zien bata kapillaue asilokue, ta bestie parrokuie, orrek zien Ajangiz'ko semiek ta ara orduko urte asko Lumo'n onekue (39) zan ori D. Anjel, gero orrek ba artu eban esastana ta riz raz apurtu eban, orrek ez dau faltarik eitxen onek baiño eta gero ba an segigu neuen arik eta... zer onien (40) begi onien (41) zergaitik... bierra bai asko e, asko, baje nik lagundu danari eitxen neutsen, danari, neure eskuen eguen ba, farmazidse euki gendun beien, botikiñe euki gendun, eitxe gendun ba zer ein bi dun egunerokuen, ta eskatzen gendun zerien, emoten euskuen eta farmazeutikue be zan Bidebarrietan euki ebana farmazidse bat, Riojjako semie, oin abizena (42) enai akordaten bale angue zan eta gizon ona a be; ona zan gizona, ta alfereza ta Bilbo'ko semie, arrezkero be egin neuen beragaz berba, ta pozik, euki naje euki nendun bai... Gogorra, gogorra, an egon giñen gu ba, Kanpazar partetik, Angiozar beien, Kanpazar partetik egon giñen, Intxorta txiki, ezkerrera. Andi bialdu giññuzen Ogiraure, Ogirauen beien erritxu bet, ona, Bergarara duen kamiñue, emetik Elorro'tik jjuen da, zelan deko izena orrek aldatzak, ortik jjuen da antxe, gero andik Angiozar, Ogera bitxartien eguen mendi bet, piñudixe, eta aametik mendi tontortxue, azpidsen Intxorta Txiki ta, bidsen bitxartien eguen etxe bat, erdi jjausitxe, ta asi zien, bueno,

- (36) Kuarentara arte: Ona emen beste balbide bat euskerearentzat, zembakiak erderaz esatea. Arlo onetan ez da berbearen gaiztasuna, zembakiak oso ezagunak dira-ta. Zergaitik esaten da "kuarenta" "berrogei" esan bearr danean? Zalantza barik, erderean buruan daroagulako edo giro orretan bizi garalako. Baiña arrazoI sakonago bat be ba-dago: Guk ogeika zenbatzen dogu, gaztelarrak, ostera, amarka. Idazkeran, ikurrak amarka dagoz. Esaterako "larogeI" itzak ogeia daroa aldean eta aurretik laua, baiña idazkeran ez da laurik agertzen 8'a baiño, ez da ogeirik agertzen, amarra baiño, eta orregaitik zembakiak esatean eta idaztean, batez be erdel-dunakaz diardugunean galdu egiten gara.
- (37) Ze: Zergaitik esaldiak erreztuteko bide bat da "ze" au. Esaterako, "ogera noa gaisorik nagoalako", "ogera noa ze gaisorik nago". Orixe da iparraldeko idazleak eta batu-zaleak ainbeste ta ain oker erabilten daben "zeren". "Zeren" bako esaldia obeto agertzen da euskerearen bidean, baiña beste bide au be ez neuke esango txarra danik, ondo erabili ezkeru.
- (38) Ze: Aurrerago aitatu dogu berba-laguna da au be, naizta emen izen lez agertu.
- (39) Onekue: Laburpenak illundu ta baste barba batzukaz nastau egiten dau aditz au, osotuta "egonekoa" litzake.
- (40) Ze onien: Len esandako berba-laguna.
- (41) Begi onien: Otzat artuta edo begi onez ikusita esan nai dau.
- (42) Abizena: Ikusi 25n. oarra.

obeto esateko fraille bat pasau jakun gabaz, fraile bat passau jakun andik e, andik gureñe ta esan deuskun zelan dagozen kontzentreta emoteko atakie. Orduen ba, zer gitxi eguen, arma gitxi eguen gure partetik eta ametralladorak eta eintxuezan ara batun ze presaldidsek egon ziela guk zer bat egin gendun zelan dabillen mobimentu andixe Bergara'n ta, ze Bergara'tik urrien eguen ori txe (43), gero beti oki dogu gogoan, ba dato bat eta esan euskun be zelan e emongo daben ori atakie, ta an egon zan, emon bazan bere deklaraziñuek ta gero ba... oin ez nai (43 bis) erdixek be, ta esan da egin (44) bidsaramonien asi zien atakien ta gure partekuek ba, geldi egozan ta bestien orren ganera abiaziñue etorzan euren ta bonbak etxatsiezan eureri... antza billurre edo eztaik zer euki eben, gero ba asi zien urtetan ta etxi ein tsien, ze erdi-erdidsen egue lez ori etsie, ta arek etsiek euken ormie, jausi barik, ara lenengoz ein eben, baia eskandalue (45) jjentie, asi dlez guriek ametralladorak eta orrek etxaten, orma guztie beien gainera, an desastrie eguen desastrie, itxi ein ben, a, itxi ein ben, gu ba andik egon geiñer, zenbat egun egin gendun ba, amabost edo orretara, emobien atakie ona. Niri deitxu eustan kapitxanak esaten ba ze, Ormaetxea, egon listo (46) ori zan ba gaueko bederatzirek edo, bidser goizien, gabaz ez euen atakaten e, gabaz billurre eukiten eben andidse, esateban ba preparata ze zerkata gaz.... kontixu (46) ze sartzen dauz Ermun da, Ermun sartzen dauz de, ta Eibar da gu... mutilleri esan neutsen: Bueno mutillek jjan zeuek guzuen guztidse, jiateko okitxen gendun jja-teko faltarik, galtzeko zan gaba ta, igual bier inbiku asko ta, ze kamilleruери txe enfermeruери ba, ze neu enitxe jjetxi arena ta, nik lorik bez, ke ba (47) gero an ba zeretik (48) Elgetatik Eibarrera dau kamiño bat, atzetik, Intxortan atzetik, ara bera, an euki genduzen ba onek telefonistek, konpañiegaz da orretara, deitxu te bapez, neu kapitxenagaz neguen an, barrakoien, deitxu te bapez, esan ban ba atrapata dago ori ba, ta ezteku paso bat baiño, euki gendun Intxorta Txikitxik bitxartetxu bet, ta andik gero Eibar'era, eguen fuer-tiek eiñdse, zementozkuek, an kantopien geunkezan ametralladorak eta danak e, ze zementozkuek ziren lez, eurek etorri ona, ta arboladidse eguen, atzetik, andik etorri eurek, orretara ba, joan bier gendun goizetik, egune sentidsen asi zien ta guriek be asi zien, be ametrallador bi edo asi zien tik eta pik eta alternaten da, beste batzuk itxitxe bada 'ezpadan be. Deskalabru in zan, an egoan klase guztie, moro, falanjjiste, reket... itxi be, atzeratu in zien, atzeratu zienien orduen gu bajatu giñen Eibarrera, ta euki genduzen bost e, bost eridu baia ez zien grabiek, ta arek eukitxe gendun guk olako erretirada baterako blindeue, an sartu eta guk urten gendun Eibarko estaziñuen ondodtik, Markiñe partera urte gendun, gero Markiñe partera urte gendun jjuen ni-

- (43) Ori txe: Euskera idatzian "ori-ta" litzake, baiña aureko "i" orrek -t- abogaiñerako egiten dau, Bizkai'ko abostegi-arauetan agIri dan lez.
- (43 bis) nai: Izan aditzaren joko au onelan ez da erabilten Bermeo ta inguruan baiño. Iparraldean orrelan esaten da.
- (44) Esan da egin: Esaldi jatorra, asko erabilten da errian.
- (45) Eskandalue: Berbea erderatik artua izan arren, gazteleran esangura au galdu egin dau, emen "asko" esan nai dau, "lientie eskandalue", "jjente asko".
- (46) Kontixu: Esaldi jatorra eta sarritan erabillia au be. "Kontxu", ez da besterik "kontu egizu" baiño.
- (47) Ke ba: Ona emen beste erdel-esaldi bat, sarri-sarritan erabillia. Euskaldunak ez dira konturazten erderatik artua danik be. Antzera alba / ahi va.
- (48) Zeretik: Berba-laguna barriro be. Ikusi 11n. oarra.

tzen kamiñora, sartu nitzen, zubi ondo baten, zubi txikie zan, ta automobil bet eguen an, jjuen nitzen... ta auxe dekot nik arako, retiradarako. Telefonis-tek geuriek... Urten zue ta bai, danok urten zue? izen ezien... pasa da bl!n-deue... ala ba, tire ba, danok urten du. Etor giñen Gernikera, ta Gernike ta Gerniken ni neguen ze abiaziñue ebillen or e. Markiñe ta Munitibar ta orren tedien ebillen, ganien ta ni eneguen konforme. Gero jjuen nitzen Gernikera ta lengusu bet topa nuen... ene ta bizirik zauz? Zerkata zagozela-ta. Bai zerka-ta egon gara baie irten du te listo. Trenari itxaron barik guzan Forure, oiñez, ze billurre dekot eta emen abiaziñuek eta, esan notsan. Jjuen giñen Forure ta atrapa gendun tren, Amorebietatik datorrena ta jjuen giñen Busturire. Egun bigarrenien kanalien tiruek, erridsuen partetik kanalien... beste partetik dau. Etorri dsaten ama esaten: Gregorio, tiruek diez e! Tan entzun nuenien, ene, Kanalen. Osaba bat ebillen txofer, onegaz e, komite esatentsenagaz, biberak eta zertzen ango sekretaridsogaz eta esan neutsen: Osaba, ba'zue Bilbo-rantza edo, ta bai: Ba neu be ba-nator. la ba. Sartu nitzen... Jjuen nitzen sanidadera, ta esan nuen: Bueno, auxe ta auxe (49) pasaten da. Ta zerien da, ba, Goroziken dua, ara jjuen bikozu, (50), medikue be eztaute. Medikue an gelditxu zen. Medikue reketie zan. Ba-nekidsen nik. A ez zan egoten fren-tien, a egoten zan atzien lenengo ospitxelien, ta ezer bier ba'neuen deitxuten neutsan edo eskatzen bera pare deitxela e, esastan neu arreglateko ta dana arreglateko esastan medikuek ta Ezkurdin zan sanidadeko nagusidse, nabar-rue, ta a egoten zan beraniaten Altamiren, nire barridsuen, ta ezaune zan, ta nire osabien lagune, kazadoriek zien-da. Arek esatsan osabieri ¿ta lobie? Lobie emen du. la ba, datorrela sanidadera ja. Jjuen nitsen ta egon nitsen berbetan beragaz ta esastan ba ze, zerak Jose Mar!'k Izagirre apellidatzen da, osagillie, Durangukue zan, Durangoko semie, baiña reketie (51) zan, ta urten deu arek. Ta ez a Eibar'en gelditxu de. Orixe gudot, gure ixen dot jakin. Ta esastan ba ze, jakingo zendun zer ixen dan, ta bai bistekue zan. Nik ba-nekidsen gitxi-borabera, nondik dabillen zertzen dot, baina eguno, mutil ona esan nitsat, niretzako ona zan, ona zan mutille e, ona. Gero ba, alan, etor ni-tzen Bilbora ta Bilbo'n ba Gorozikera, Goroziketiek gero eurrera arik eta Anpuero'ra artien. Anpuero'ra arte lotu be ez... (Abioirik?) Ke ba, gitxi... Abuelo bat, arek estraguek eitxen ba zan, gero egozan txiki bi edo iru baie eze be ez, ostantzien abiaziñue on ba'zan, an gaba eltzen zan da egunez kastigaten ginduezan asko, Bitxurietik urtete eben boleadak abioiek, baja gabaz ez e, gabaz esatentsien guriek: Bueno amarrau zerak e, zapatak amen gatoz ba. Bi-ba, bi-ba eskapatzen. Gabaz ez eben atakaten ez. Gabaz billur andixe euken, ze fuertie zan, onek fuertiek zien. Abiaziñue on ba'zan ze esan be ez. Ez tabe eitxen ez ta usaiñik be (52). Abiaziñuek, arexek eitxeuen estragu andixe. Arexek... (Dsatekoa naiko?) Bai, bai, bai. Jjatekue ondo ego-ten zan, Aregidse dana...

(49) Auxe ta auxe: esaldi jatorra. Errez ulertzen da.

(50) Jjuen bikozu: Begiratu laburtzea noraiñokoa dan: Joan bearko dozu.

(51) Reketie: Naparroan, karlatarren alde burrukatzen zan gudaria.

(52) Ez ta usaiñik be: Esaldi jatorra, jatorriz erderazkoa izan arren.

OAR OROKORRA

Gregorio Ormaetxea da Bizkai'ko erri-euskeraren eredu bat eskintzen dauskuna. Busturiko semea da eta orregaitik darabilen euskerea angoa dogu, Berrmeo'ko euskerearen antzekoa, baiña ez bardin-bardiña. Euskera au errezo ulertzeko, ondo etorriko jako irakurleari Bizkai'ko euskerearen abots-arazoak aztertzea, orretarako oraintsu EUSKERAZAINTZA aldizkarian argitaratu dan Olazar'tar Martin'en sarrera-itzaldiak lagundu leikio.

Idazkeran izklak edo bereizteko, ikur bi bereziak artu bear izan dodaz. /J/ ta /ds/ frantzeran "je" idazten dan antzekoak dira eta orregaitik. /JJ/ idazten dodanean erderazko /j/ lez irakurri bear da.

Ikur orrelk kontuan dirala, erri-euskera dan lakoa idazten alegindu naz eta bizkaia-tarrak naiko errez ulertuko dabe, beste euskalki bat darabilenak, batez be euren euskalkia ondo landu ez ba'dabe, izan lelteke zailtasunak aurkitzea.

ESALDIEN AZTERKETEA

Izkuntza guztiak lez, euskereak be ba-dauz itzuli-eziñak diran esaldiak. Olakoai erderaz "modismoak" esaten dautse.

Ba-dagoz beste esaldi batzuk, jozkereagaitik edo aditz-jokoagaitik edo... zuzenak ez diranak be. Ona ornen alkar-izketan agertzen diran bietariko batzuk.

lenengo zenbakia orrialdea ta bigarren lerroarena.

2. 1.": "Geu egin giñen batu" / "Geu batu giñan".

2.6.^a: "Bialdu gaittuezan" / "Bialdu ginduezan".

2.12.^a: Eguzelez zarratute gure urtelekuek / Joskera zuzena: Gure urtelekuak zarratuta egozan lez.

2.15.^a: Ondo esan euskuen: esaldi jatorra da au.

2.17.^a: Esan doskuen: Bermeo'ko erea da. Esan euskuen.

2.22.^a: Bata ekarri ta bestea ekarri: Esaldi jatorra.

2.33.^a Para nitxen ondo: Esaldi jatorra. "Para" itza erderatik artua da baiña esannaia ez da erderaz daukana.

2.35.^a: Nigaz egon zien beste bi kuartuén: Nigaz kuartuen beste bi egozan.

3.15.^a: Lenengo indeziñue neuri emon nuen. Erderazko "refleziboa" k, gaiztasuna dauka euskeratzeko. "Lenengo indeziñoa neure buruari emon neutsan".

3.20.^x: Eitxen errebisau: "Errebisatzera".

3.25.^a: Ondo manejjaten nitxen: Erderazko itza baiña esaldi jatorra.

3.34.^a: Riz-raz: Entzuten dan otset;k artutako itza, onomatopeia.

3.35.^a: Begi onien: Begiko izan, esaldi jatorra.

4.17.^a: Eskandalue jjentie: Erdel itzak baiña esaldia jatorra da. Asko.

4.36.^a: Tik eta pik: Entzuten diran otsakaz egindako berbak oneik be.

4.15.^a: Auxe ta auxe pasaten da: Esaldi jatorra.

Olazar'dar Martin

ERRI-MIÑEZ

Gure denboretako "Euzkadi" egunkaria, gaurko egunkariak baiño zaleago zan tartean errietako folklore agerpenak argitaratzen.

Eta auntzak mendira lez, bakoitzak bere errikoei ten egiten dautsenez, nik be gorde nitun 1927 urtean, 13 urte egiteko neukazala, eta gurasoak ala aginduta, egunkari orrek argitaratu zitun gure oitura eta abesti batzuen agerpenak.

Izen bat edo bestez Segundo Bedialauneta zan aldi aretan gure errikoen batzaille amorratua.

Urte areitan "Euzkeltzale Bazkuna" talde sortuteko oiturea egoan errietan eta erakunde ori izaten zan bere bazkideak onelako gauzak jakin eta batzen erabilten zituana.

Segundo'k ez eban beti bere izenik erabilten. Batzutan bai. Eta ementxe, jarraiko lan oneitan ikusiko dogu batzutan "Zubialde" erabilten ebal, bestetan "Txori-Erreka" eta iñoiz bere izen-abizen jatorrak.

Ez zan jakintsu, eta ikasi, baiña erri jakintzan zaletua bai.

Bizar-kentzaille zan ogibidez. Gizon ixil, berba gitxikoa. Onetan ez eukan beste bizargiñekin kideasun andirik, baiña euskeraren eta euskal oituren maitale zintzua zan, eta erriagandik jakiten ebana zintzo gorde eta jakin erazten ekian.

Beste askoren antzera, gerrateko gorroto eta itsukerien martiri jausi zan. Bilbao'n baitu eta Derio'n erail eben. (G.B.).

Len urtetan eta gizaldietan galtzen ez ziran oitura, kantu eta siniskerak, gaur gizatalde baten, belaunaldi baten, uts geratu eta galtzen diranez, "Euskerazaintza" onetan irarrita sartzea pentsatu dogu, esanez, gu-geuk be oitura orreik bizi izan genduzala, gure amaekandik batez be orrelako kantu samurrak entzuten genduzala eta gaur... Zenbat berrogetamar urtetik berakok Jakiez eurak?

A.Z.

Eusko-Folklore Ondarroa Kirkillak bat eta kirkillak bi

Orain dala urte asko, ni mutiko gastetxua nintzala, agertu zitzaidan okotz azpian edo zamako azurra baño apur bat gorago grano eta garau bat, eta min aundia artzen nuen, eta egun baten nere ama onari esan nion:

-Ama, emen okotzaren azpian min daukat.

Eta Berak esan zidan:

-Erdi ona pizka bat argitarago.

Juan nintzan, eta berak eskerreko eskuakin belarri ondolik oratuaz esku-mako eskua ipiñi eustan miñ edo garaua neukan lekuan, eta beriala esan eustan:

-Ori kirkilla da ta orrek atera egin biar dau eta egon apur baten.

Eta ni an negon geldl, oldostuten ¿nundik sartu ete da? ¿nola aterako ote dausta? eta milla oldoskun; baita bururatu yatan ¿abestuko ote dau? eta onetan negon, nunbait laboratoriora, juna zan kimikak egjtera; noizbait agertu zan, auzoko etxian izan zala-ta, ingi edo papel bat eskuan ebala, ta papel orren barruan ekarri zituan iru arto garau eta zentimo bat; bera jarri zan silla baten eta ni an negon berari eta esan dedan ingi edo papelian batu zituen arto garauok eta zentimo txikia, eskumako eskuan artu eta min artzen nuan lekuan ipiñirik, eskerreko eskua neri buruan ipiñi ta asi zan onela esaten:

Kirkillak bat eta kirkillak bi
 Kirkillak ditu amabi;
 Amabitik amaikara
 Amarretik bedratzira
 Bedratzitik zortzira
 Zortzitik saspira
 Saspitik seira
 Seitik bostera
 Bostetik laura
 Lautik irura
 Irutik bira
 Bitik batera
 Batetik bapez
 Kirkillak bapez.

Orrek gustiok esan zituan arnasarik artu barik, kirkillak ateratzeko ala biar zala-ta: arto garauak eta zentimua papel da gusti sutan erre zituan, eta orain ez naiz gogoratzen nola sendatu nintzan.

Zubi-Alde
 (25-VI-1927)

Euzko-Folklore

	4-1	
1-1		Gure Martzeliñatxu
Gabon gabian		Yayo zan urtitan
Bakarradian		Erriko atso gustiyak
Piotxu idoro neban		Asarratu ziran.
Ipurdi agiriyan.	5-1	
2-1		Txin txin gora
Austin Peru		Suba goitik bera
Oi-an k...		Abadia kanpun
Amak emontsu		Umia zeluan
Zipli zapla (Ume abestija).		Aita negarrez
		Ama dolarez.
3-1	6-1	
Akerrak		San Migel San Migel
Adarrak		Eutzi neure bustiya
Okerrak		Ekatzu zeure sikua (ume abestija)
Ditu.		

7-1

Arre arre iso iso
Asto berenua
Okerreko bidetik
Zek ete arua

8-1

Irrite "landaria"
Zer dozu negarrez?
Oriñala auzita
ipurdiko miñez

Iñasio Polonio
Pasa por aquí
Ipurdi txiki.

10-2

Iñasio Polonio
Pasa por aquí
Errotako txakurak
Dantzan daki.

Asarratu aizkidetu
Soldau zarra ezkondu.

12-1

Emon da kendu
Sapatia kendu (Ume abestija).
Ikusi makusi.

-Ze ikusi

Ikusten ikusten... dot...

Ga...

-Ga... ga... gatza

Ez-ta.

Ga... ga... ga... ¿Ga esan dozu?

-Bai

Ga... ga... gastai

Ez-ta.

-Ga... ¡Garbiñel

¡Dra! (Jotas polita).

13-1

Bat eta bi
Don Peru'k irabazi
Iru eta lau
Don Patxi'k galdu dau.

14-1

Bat bi iru
Anemai Perran da kirru.

15-1

Txokolatero boliñero
Asto ganian caballero

16-1

¿Pralle ala monja?
Putz.

17-1

Utz ala bete?
Bat... bi iru lau
Bost sei zazpi zortzi
Bederatzi amarr
Amaika amabi
¡Amabil!
Amairu amalau
Amabost amasei
Amazazpi amazortzi!
Emeretzi ogei, e
¡Emeretzi ogei!

10-2

Ogei emeretzi
Amazortzi amazazpi
Amasei amabost
Amalau amairu
¡Amairu!
Amabi amaika
Amarr bederatzi
Zortzi zazpi sei bost
Lau iru bi bat!
¡Lau iru bi bat!

20-1

Aurtengo gastañia lelia lelia
Ondarruko neskatxak txatxaliak dira

Aita zeubenak amari
Gona gorriya ekarri
Gona gorriyak gorriyak
Zazpi yostunek yosiyak.

TXORI-ERREKA'K

Bat, bat, bat...
Bart parrandan ibill!
Bi bi bi...
Enaz ondo ibill;
Iru Iru...
Kolkua bete diru
¡Lau lau...!
¡Sardiña makallau!

2-2

Ardau edan da
Moskortzen naz
Pipia artuta soratzen naz
Atia yo-ta galdutzen naz
Zelan arrano bixiko naz.
(Bat, bat, bat...).

3-3

Bart arratzian beranduan
Etxera nekez yo genduan
Andik goxera su-onduan
Arrokeriya ba'genduan
(Bat, bat, bat...)

4-1

San Sebastian de la guerra
Oriyo boliñera
Ketariya sardiñera
Alkizu lapa
Zumaya kaka
Itziar de la montaña

Deba ezkutari
Mutriku dantzari
Ondarru mandi zar
Lekeitio zapi zar
le gonie
Elantxobe milla pobre,
Mundaka atze gustik zurrustako,
Mermio porruari ura dariyo
Bakiyo matzari ura dariyo
Plentzia legor da
Portugalete kortez
Bilbo kaki bapez

5-1

Benino karakoles
Ze pentsatzen dozu?
Olan ibilli baño
Obezu ezkondu.

6-1

Ibilli gustiya
Erromeriya (Esakuna).

7-2

Ortik konpondu
Mari-pandango (esakuna).

8-3

Tanboliñak esaten ei dau:
Zoruak nigana zoruak nigana.
Ta danborrak:
Zantar da naste zantar da naste.
Esakun orreik sarritan entzun ixan
neutsozan gure amama'ri. Tanbolin
eta tanborragaitik olan itz-egiten
ebanak ¿ze esango ete leuke gaur
eguneko "bonbo" ta "platilluak" ikusi-
ta? Urrian bal urrengo duan au:
Zoro ta argiyak
Zikin da garbijak
Gustijok batian
Ibilli nastian.

TXORI-ERREKA



ALOS TORREA

- Nun da emen Alos Torrea?
 - Bilbo'tik al zatoz?
 - Bai, Bilbo'tik nator.
 - Ikusten al dezu or, erriaren sarreran, etxe luzenga aundi bat, txikori paketa baten itxurakoa?
 - Bai, ikusten det.
 - Ori zera dezu, zibillen kuartela.
 - Baita, balta.
 - Aurrerago dagoen etxetxu ori, ezkerretara eta ibai gaiñean, Maxpe dezu.
 - Ondoren?
 - Enparantza txikitxo bat, bizpairu ethez...
 - Bide zabala estutzen dan orretan?
 - Bai ori etxe txiki bat dezu, bizitza bakarrekoa...
 - Aurrean ba du baratzatzo bat ere... Utsa.
 - Au al da guztia?
 - Ez nizuke esango. Ondoren datorren lantegi zaar orrek (aroztegia alegia) ba du goiko-aldetik, kale zaarrea, torre baten orma oraindik erortzeke... Badirudi Bilbao'rako bide zabal au egiteko, etxea bota zutela alde batetik; bestetik berriz orma dago leio eta ate, gotiko egituretakoak...
 - Alos Torrea edo aren zati bat.
 - Bai, paret au torre batena da. Orma au bakarrik gelditzeak arritzen nau...

- Bilbo'ko bide zabala noizkoa degu?
- XVIII garren eunkian egiña da. Ba zituzten beuren arrazoiak ere artarako.
- Zer arrazoibide?
- Plaentxia, Soraluze'tik eta aurreragotik zetozken iskillu eta burni-ta tresna guztiak ibaiaz etorri oi ziran Deba'raiño.
 - Nundik asita?
 - Orixe ez dakit. Alzola'n badaude erreka-ertzean txalopak eta ontziak lo-tzeko uztai borobillak.
 - Alzola'n?

- Bai, Antxe daude zubi zaarraren inguruan. Astigarribian, berriz, bada "moillatxua" eta bazan "astillero" izeneko etxe bat ere, tren-bidea egiteko botatakoa...

- Soraluze'tik Alzola'ra eta Astigarribia'ra ba ote zan bide-zabalik?

- Nik jakin ez. Baiña Deba'tik Alzola'runtz egindako bidea, portura ibaitik zetozten burni-tresnak bustitzen ziralako egiña da. Urez ekarri bearrean, legorrez eraman aal izateko.

- Ori be ala ba zan, Alos torrea zutik egonda ere, bota egin bear bidea zabaltzeko...

- Eta orrenbestez eldu daiogun ariari.

USUA

Euskaldun erri- musikak badu antxiñako doiñu bat ere letrarekin:

Alostorria bai, Alostorria,

Alostorreko zurubi luzia..."

Musika eta bertsoak. Bertsoekin, kondaira eta edesti bat.

Alos-Torrea ibai-ertzean dago. Torreak aberatsek egiten dituzte. Gure aurrekoen aberastasunak, mendian abereak, itsasoan ontziak, erreka-zulo eta mendi- muiñoetan burniolak... Baita errotak ere. Gerora zenbait burniola errota biurtuko bait dira gure historian zear.

Alos-Torreak, ibai-ertzean dagonez kai- babeseen, ontziak izango zitun itsasoan eta abereak mendietan. Gaurko egunez, "Lastur"ko zezenik geienak (Saka'renak) Alos-Torre gaiñeko mendietan daude: zezen eta larrabei...

Garai bateko oiturak agintzen zutenez, Torreetako jauntxoak, zaldunek ziran eta beti zeuden burrukarako prestu. Gure Alos-Torre'ko Beltran jauna ere ibillia zan Gaztelanian, Almanzor maisuren eta Santso Irugarrenaren garaietan.

Naparroa'ko Erregeak deituta ibilli zan ibilli ere.

Bitartean bere alaba Usua, umezurtza, etxean.

Bera izango degu edesti onen ardatza. Aita Beltran alargun gelditu zitaiola ugazama ekarri zioten etxera... Zorioneko ugazamek! Benetakoak ere badira ba, baztarretan...

Usua eta ugazema. Ugazama eta usua. Ugazamak izan zitun bere alabak ere.

Orduan eta okerrago Usua'rentzat.

Aita Beltran, "jaun maitia", gerratean zebillenean, Usua'ren larriak etenik gabekoak izan ori ziran jauregi barruan.

Berri txar oiek eldu ziran Beltran'en belarrietara eta erabaki bat artzen du:

- Usua, emen gaizki bizi zera.
- Bai, aita, gaizki bizi naiz zu kanpotik zeranean; baiña, zurekin ondo bizi naiz eta ez nuke zuregandik alde egin nal.
- Pakeak ere badu bere prezioa, alabatxo. Emen burruka daukagu.
- Bai, aita. Orl ere ala da.
- Alde egin bearra daukat urrutira eta zenbat denborako jakin ez.
- Ez nazazu emen bakarrik utzi.
- Nerekin eraman ezin...
- Eta, zergaitik alde egin bear dezu...?
- Zaldunak gera eta Erregearen mendeko. Maisuekin burruka gorriak darabilzki eta denari utsik egin ezin.
- Orduan, zer...?
- Ezkondu egingo zaitut.
- Nora, alta?
- Bidania'ra. Ba det an lagun bat eta badu arek semea, zuretzako gizon gaztea.

Akatsak izango ditu; baina akatsik gabeko gizonik nun da...? Zuk naitaez lagunduko diozu...

- Morkotza laguntzea ez da erreza, alta.
- Morkotzik latzeenak ere bere barruan mami gozoa izan oi du.
- Bai, aita. Zuk nai dezuna. Alegiñak egingo ditut.
- Zurea zan Alos-Torrea ez da gaur zure etxe, inpernu-toki baiño. Obe dezu zeurea izango dan beste etxe batera aldatu...

Ezkondu zan Bidania'ra zoro batekin "erorik eta zororik an bazan"...

Alaz ere bere alta maitearen gogoia pozik bete zuan eta morkotzaren biotzeko mamia billatzen saiatu zan. Gauzak ondo begiratu ezker, bere aurtzarako etxean baiño obeto bizi zan...

Ezkondu ezkeroz zazpi urte pasa zitun etxera etorri gabe. Aitaren eriotza erakarri zun Alos-Torre'ra berriro; bitartean ez zuan biotzean orretarako ausardirik izan.

Usua'k maite zuan bere aita Beltran jauna. Amarik eta anai-arrebarik ezean, bere biotzeko maite-indar guztiak altarengana biurtu zitun...

Onek eriotzak biotza leertu zion. Biotzetik odola dariola etorri zan etxera. Gau-illa eta ondorengo illetak ospatzeko.

Oitura zan Gau-illak egitea.

Gau artan bertsoetan ekin oi zuten, bakoitzak beuren miña erakutsiz eta ildakoaren goraltzak egiñaz.

Usua ez zan ixillk egon.

Gau artako bere eresiak gureganaiño eldu dira. Usua'k bazun esatekorik eta esan zitun guztiak. Onela asi zitzaigun:

"Etxe eder leio bage ontan
ez naiz sartu zazpi urte auetan,

eta zortzigarrenian
aita Beltran'en iltzian...".

Zazpi urte etxetik kanpo. Zazpi urte etxerik ikusi gabe. Zazpi urte Bidania'n ezkondua. Etxe eder kararri landuz egiña. Ate eta leio gutxi, burrukarako alabearraz. Ibaia alde batetik eta mendia bestetik.
Itsasontziak ate ondoan...

Zenbat gauza gogoratzen zizkion etxe eder arrek. Bere jaiotza lenengo ta bein.

"Amandrea neria
nitzaz bi erdi
egin zanian,
milla oillo il
eta eskeratzian...."

Festa aundiok egin zituzten Alos-Torrea'n. Milla oillo sukaldean, oillo asko dira. Zenbat salda-upel atera litezke milla oilloetatik...? Kanpoko eta erriko, ez zan inor falta. Oilloak orrelako jan-aldietan salda egiteko izan oi dira jateko baiño geiago. Izokiak (salmón) ibaian zeuden ugari, lupiñak, lagatzak, bixiguak... Txekorrak mendian, arkume eta antxumeak belardietan ugari, txakoliña eta sagardoa bertakoa, ardoa naparra, arraiña eraman oi zuten mandozaiñak ekarria...

Erri guztiek parte artu zuan festa aretan:

"Zazpi zezen
korritu ere
enparentzian..."

Bazan Deba'n enparatza; baziren zezenak; bazan zezenak korritzeko oitura. Eta ez dute, alajaiñeten, oraindik oitura ori galdu. Zezenak inguruko mendi guztietan daude Izarraitz'araiño: zezen txiki, gogor, gorriak histori-aurreko aien ondorengoak... Eta, zezenik gabe ez da festarik gaurko eguneko Deba onetan ere. Zezenak kalerik-kale enzierroan goizetik, enboladuak eguerditik zezen-korrituak arratsaldetik... Egunero.

Usua jaio zan egun artan ere zazpi zezen izan ziran enparantzan korrituak Ez da gutxi.

Oiek orrela dirala, zer egiten zuten ama-alabak bitartean? Ona zer dion:

"Ni ere banengoan
lumatxo atan
eta nere amandria
urre-gortiña artian..."

"Andre" esaten dio bere amari, errespeto aundiko itzez... Bera, lumatxo artean eta ama urrezko gortiña artean: urrez apaindutakoak edo urrezkoak... Aberastasuna dario.

Jaiotzetik eskontzara. Aitak Bidania'ra ezkondu zuan, bere etxetik alde egin aal izateko:

"Gero Bidania guzian
bat zan arerik eta zororik,
alta neriak aura
senartzat eman dit
baiña ez nuke trukatuko
obeagoagaitik".

Benetako maitasuna zion Usua'k bere aita Beltran'eri eta bere naia betetz gairik ezkondu zan zoro arrekin. Eta, alaz ere, pozik. Arritzekoa ere bada.

"Aita jauna neriak
nlri eman zidan
imiñan dotía,
ama andriak ere
ixilik bere partía".

Ondoren bere Bidania'ko ezkontzaren berriak eskeintzen dizkigu:

"Lanen gabean
begi-biotzak
loaren mendean
baita berriz ere
bigarreanean.
Irugarrena
igaro baiño len
ondo poztu ziñan
Alos-Torria
eldu zalako
neregan semia:"
Barri oiek eman ondoren intziria datorkio biotzetik eztarrira:
"Alos-Torria bai, Alos-Torria,
Alos-Torre'ko zurubi luzia,
Alos-Torria'n nengoanian
goruetan
bela beltzak kua, kua, kua, kua
leioetan.
Andik jaiki eta
urre-goruaz jo nuan.
Baiño andik laister
berri gaiztoak
jo ninduan".

Bela beltzak espiritu txarren irudi izaki, etorkizun gaiztoak agertzekoak. Gorua ere urrez. Goruakin aldendu zitun badaezpadako berrien emallla ziran bela beltzak... Bela beltzak aldendu zitun, baiña berri txarrik ez: "berri gaiztoak jo ninduan".

Zer berri txar? Aitaren eriotza edo gero esango duan berria? Alos-torrean, alegia, semea jalo zala ezkontzatik at, Beltran gudatean zebillen bitartean. Ondorengo bertsoak orrelakoren bat adierazten dutela dirudi:

"Ixo, ixo zaldun
odol txarreko guztia.
Ala ere gutxiago zan
zure aginpida".

Gau-illa aurrera doa eta Usua'k ez du ixiltzeko gogorik biotzeko mindura erabat uztu artean. Aurrean ditu bere aizpak. Irripar negargarri bat ezpañeten duela, onela die:

"Aizpa ederrak
or daude
ederrik eta galantik
atz ederrak
eraztunez beterik".

Ederrak eta galantak. Ondo jandakoak. Ederki jantziak eta apainduriz beteak: "atz ederrak eraztunez beterik": aberastasuna Alos-Torreak dario:

"Ez daukatela
mantuetan zulorik.
Alare gutxiago
begietan negarrik".

Ederrak, galantak, ondo jantziak, apainduak eta alaitasunean pozik aitaren illetak teatro bat besterik ez balira bezala. Eta, ugazama?

"Ama andria ere bal
poza dario".

Alargun preskatua, etxearen jabe, nagusirik gabe... Nor maite ez zitzaion falta

"Nere biotza bakarrik
mindura dario".

Illeteetara doazen guztiak ez dira "mindunak". Ildakoarekin maitasun-lokarrari: bilduta zeudenak, oietxek dituzu benetako "mindunak" segizioan dijoaztenak.

Beltran'en Gau-illan mindun bakarra Usua zan. Beste guztiak ez zuten "begien negarrik", alderantziz, baizik: "poza darlo"...

Usua'k ez ditu esateko guztiak amaitu. Gau onetan bera geldi araziko duenik ez dago iñor. Zigorra astinduko du ezker-eskubi:

"Aita jauna neria
Gaztela'n zanian
ixil askorik jaio zan
Alos-Torria'n semia.
Ala ere ixillagorik
dago bakian
ezitzen Zarautz aldian
gure jatorriaren
loitukerian...".

Mairuekin senarra burrukan dan artean, emazteak iruzur egiten dio. Alaba jakiñean egon eta ixildu egin bear. Baiña, gaur ez da ixilduko bere barruko oindura kanpora Irauli arte:

"Ai au mindura beltza,
al ene lotsa
alabak negarra ta
aitak lur otzel"

Alabarena beste negarrik ez da gaur Alos-Torrean: alabak lotsa biotzean, aitak lur otza gaiñean:

"Zeñek loitu zaitu zu
Alos-Torria?
Ai nere aita maite,
aita maitia)
Iltzea ondo egin dezu
aita jaun maitia".

Aurrekoen etxea zikinduta ikusi baiño, obe iltzea. Alabarentzat geldituko dira lotsa eta negarra. Aitak bere eginkizuna amaitu du.

Emen amaitzen dira bertsoak; baiña, gertakizuna bera ez da amaitu erriaren gogora eta pozera. Orregaitik edo, aizken muturra erri-jakintzak erantsiko dio:

Beltran jauna ez zegoan ilda, lozorro batek artuta baizik. Lozorrotik esnatu danean, Usua alaba ari zan izketan. Geldirik iraun du aitak alaba ixildu arteko guztian; orrela egin da bere etxeko berrien jabe...

Okerra zuzendu aal izan du, Usua'ren onerako eta zuzentasunaren argibi

Okerrak zuzendu gabe eta gaiztoak zigorrik gabe ez du onez eramaten errien biOtzak. Onak saria bear bait dute eta gaiztoak zigorra, justizia erren geratu ez dedin...

Ostatuko Mikela'rena esan beariko ote degu emen ere; "argia ba'zan sartu dedilla kalabazan...?"

Bertakoak or daude. Ez dira gaurkoak. Gertakizun baten ispillu ote dira?
Edo ta, asmakizun uts baterena?

Bertakoak ezik Alos-Torrea nun zegoan ere badakigu... baiña, historia asatza, asmakizun utsa edo bien arteko naasketa ote dan, orixe bai ez degula ziur sekula jakingo.

ARRINDA'TAR ANES



GABON KANTAK EUSKALERRIAN

Ba datoz gabonak.

Kristau sinismenean, egunik andienak. Urtien urtetan erri eta gizarteak, kezka eta preminaz itxaroten eban Messias bat, azkatzalle bat, salbatzalle bat jaio zalako.

Gizonak, bere bizitzan, utsune bat eukan. Igarleak, profetak, esanda, ba ekian utsune ori beteko zala; Jaungoikoak ez ebala laga berak egindako gizonak, egi, zuzentasun eta nortasun bidea erakutsiko eutsana bialdu barik.

Eta Mesías orren garra gure gurasoen gurasoak be igarriko eben, eta guk, kristautasuna Euskalerrlan sartzean, eta gertaera or gogoratzean, pozez ospatu.

Euskalduna ez da izan eskribatzallea. Bai aoz ao bere gertaera blzi eragiten alegindu dana. Batzutan ipuin lez, siniskera lez, berbaz, itz lauz. Bestetan kantari, bertsoetan.

Ikusi daigun ba, Yesus Umearen jaiotza dala-ta, gure erria zelan agertu izan dan bere kantuetan.

Ba dago kantu bat Messias'en etorrera, Yesus'en jaiotza, profeten aoz jakin lez adierazten datorrena:

Jesus jaio zan baño lenagotik
aditu zan profetaren agotik
ba zetorrela Jesus mundura
emakume baten erraietara.

Goazen aurrera

Begira Mutriku'n zer diñoen, bertsoetan, gabon bezperetan:

Aor goian etxea: jo daigun atea.
Gizonak leiora nekez lrtetzea!
Gizonak bentanatik digu erantzuten,
gabeko ordu onetan zer darabiltzue emen?
Dontzella eder bat dakart nirekin aldean,
semea dakarrela bere sabelean.
Semea ta dontzella nola izan liteke?
Enbustero faltsoa, ortikan zoazte!

Ara, Yesus jaio aurretik, amatasuna aurreratua dala, zelako ke eta naigabeak igarten ditun bertsolariak Yosepe eta Mari'ren artean.

Ibarrurin be ba dakie Jesus jaioteko dala eta esperantzaz dagoz. Onela kantaten dabe an:

Biak Belenera daude kaminadu,
eta an eldu daitezanean
ostatuaren itandu...

Ikusten danez, jaiotzaren aurreko kantak.

Naparroa'n be, Ituren'en, ba dauke susmoren bat. Ba dakie Josepe eta Mari eskale lez ibilliko dirala, jaiotza gertuten, eta erritarrei dei egiten dautse:

Agur, agur etxeoak,
atsa onean zaudete,
atalondoan pobreak
eta, arren, iratzarri zaitezte.

Ezin ukatu Mañari'n borondate ona agertzen ez dabenik. Eta emen Mari iruditzen dabe Yosepe adoretu nairik, sarri jazoten dan lez, emen be gizonak andrak baiño bildur geiago euki zeinkealako:

Alimu, arren, eukizu,
alimu Yosepe,
gaur gaben Jesus onak
gaur jaio bear leuke.

Gabon eguna eldu da. Eldu da Messias baten igarleak adierazitako eguna. Laster dira erri guztietan pozezko kantuz. Batak besteak baiño dotoreago agertu nai bere zintzotasuna, be eskerra eta bere poza.

Len Mañariarrak adorea sartu nairik ikusi doguz. Ona orain jaiotz ondoren, euren pozak noraiño eroaten dituezan euren irudietan:

Ea Maria, Jose,
Jose Maria,
ea Maria ta Jose.
Au da Gabon,
au zan Belenen,
Jesus jaio da Nazaren.
Birgiña andreak
bere semea aurtxo
dantzan erabillen.

Naparroan, Gartzain'en, Baztan aldean, laster jakin eragingo dauskue. An baserritarrak dira eta areik euren esakeretan:

Artzaiñak, berri onak,
aingeruak dio,
aurtxo bat guziz ona
Belen'en da jaio.
Jesus jaio da eta ama ori bakarrik,
suaren egiteko
etzeukan egurrik.

Salto egin daigun Naparroatik Ubidea'ra, Araba eta Bizkai mugara. Ia mendiz mendi. Eta Ubidea'n bertakoei entzun al izango dautsagu:

Asiko naz albiste au,
pekatariak, esaten:
zergaitik dagon Jaungoikoa
gizon eginda Belenen.

Erantzun alkarrerri
klariñagaz,
organuagaz,
musika konzertaduagaz.

Eta ori esanda gero, erria konturatu dala jakitean, oraindik be bertso oneik entzun al izango doguz, lenengotatik eskintza bat eroatera zirikatu nairik.

Pastoretxuak alkarri,
zer darotsezu Jaunari?
Kapote zarren azpian
dagoz arkume zuri bi.

Eta emendik Elgoibar aldera joaten ba gara, Alzola'n kantari billatuko doguz ango zarrak:

Ai au gabaren preziosoa,
Jesus jaio da Belenen,
etxe onetan sartu ete dan
billa gabiltzaz beraren.

Poztasun au zabalago da. Igaro daigun muga. Guazen Zuberoa'ra, Agur Zuberoa kantatu baiño len, entzun eurei gaurko kanta:

Gaur sortu da Jesus aurra,
oro egiten alegera,
goatzin adoratzera.

Aldudetan be kantari dira.

Oi Eguberri gaua,
bozkariozko gaua,
alegeratzen duzu
biotzean kristaua.

Eta Erronkari'n, nappar mendietan, begira zelan kantaten daben:

Ots aingerueki,
arkantxelieki,
gaur kantatzera
gure erregearen
Yinko Semea
aren adoratzera.

Etorri andik Otxandio aldera:

Abendu santu onetan
Jesusen jaiotzea
bertso biz kantadu
eta alegratu gaitean:
Ai Maria Jose,
Jose Maria...

Legutiano (Villarreal, Arabakoa) Otxandio'n ondoan dagon lez, ango bertsoak otxandiotarren antzeko dira:

Abendu santu onetan
Kristoren jaiotzea,
Semea jaiota ere
Ama da dontzellea.

Orañarte poztasunezko bertsoak dira. Baiña ba dator kezka. Ba dator kantuen artean Yosepe eta Mari'ren arteko pobretasun eta premiñen ardura, ango utsunea, ango ezerestasuna.

Gernika'n arbolak ez dauka oraindik orririk. Negua da. Baiña jai dan Umetxoari begira samurrez kantaten diardue:

Billotxik ba zagoz bere
etzara zu, Jauna, pobrea,
zeruan josirik dago
zeuretzako erropea.
Ea bada Josepe,
arotza zera zu,
aurtxo txiki onentzat
seaska egizu.
Ea Maria,
eta Josepe,
Jose Maria,
Maria Jose.

Ez da bakarrik kezka au Gernlka aldekoa. Goazen barriro Naparroara. An be urduri dagoz, umearen biziari begira, eta bere gurasoak adoretu nai dituez:

Jesus jaio eta Ama ori bakarrik,
sua ere egiteko etzeukan egurrik.
Jose ekarri zazu sortaño bat egur,
aurra otzak eten du, ni naiz agitz bildur.
Aur ori eztu otzak iñoiz ere ilten,
aur orrek berez dauka dibinidadea.

Ba dira kezkaren orde, samurtasunez kantuz dabizanak. Zeiñek eztaki gure kantu polit eta alai bat?

Birgiña maite, lotan dago zure Seme laztana;
seaskatxoan ipiñi zazu gure biotzen kutuna.
Ongi, bai, ongi igaro ditzan gau eta eguna,
poliki, poliki eragiozu egin dezan lo ona.

Beste kantu bigun bat:

Erraguzu Maria, aren sorlekua
ala zen palazio, ala gaztelua.
Oil Ez, ez zen orrela mundura agertu,
eia tipi bat zuen sorlekutzat artu.
Nor etorri zitzaion agur egitera?
Urbildu zen andirik besten amaitera?
Gizon eta emazte guti zen agertu,
esklaboei bezala zaukuten beatu.
Ez zen bada, Maria, bederen artzainik
Yesus adoratzera leiatsu zanik?
Bai, artzainak zituen leenik ikusi,
ekien biotz onak zituen onetsi.
Erraguzu Maria, bazen erregerik
zure Seme Yainkoa ikusi zuenik?
Iru errege ziren noizpet gutaratu
eta beren doainez Yesus adoratu.

Gure burutapena ez da or gelditzen.

Entzun bertso oneik:

Orriak alrez aire,
ifartxo dultzea,
landa-mintz ederrean
doa errekatxoa.
Antxe topatu neban
Birgiña Maria,
orraztuten ebala
buruko ulea.

Orrelaxe kantatzen daki gure erriak. Eta jakiña, erriak kantatu eta monjak ez?

Izarrak irtetzen du odeiaren erditik,
baita Semeak ere Amaren sabeletik.
Artzaintxuak alboka, gure monjak arpak,
zelebratu dezagun gaurko gaban gaba...

Ikusten danez, ez da iñor geratzen gabon egunean era batean edo bestean, pozez eta alaitasunez edo ta kezka eta arduraz, nai samurtasun eta bigunkeriz egun onetako gertaera agertu eta kantatu barik.

Arrasate'n, Mondragoen, bete betekoak dlra eta ez dabe nal kezka eta dudarik, ez zalantza eta ez negarrik. Entzun eurei:

Ana ta Joakin,
Peru ta Martin,
goazen zortziko dantzara,
Gabon gabeen zoro ezтана
zororik andiena da.

Orixe da egia. Kristiñau lez pentsatu, eta Jesus'en sortzeagaz poztuten ez dana, ezin esan kristiñau danik. Beraz ez da bere sentsu onean dabillana.

Bateko ba besteko kantatu eta bertsoak esan doguz eta gure ingurutakorik ez dogu agertu. Ez ete dago eurotan ezer?

Ara Markiña aldeko batzuk:

Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birgiña Maria zeuan
konsolasiño andian:
Bart Belenen,
bart Belenen,
jalo da Jesus Nazaren.
Jesus dibino, gauaren otza,
jausten da linetazia,
ordu bi orretan orrela ba da
il da ganadu guztia
Bart Belenen,
jaio da Jesus Nazaren.
Korralako ardiak bere
dantzan zebizen orduan,
salbatorea jaioa da ta
geugaz bizi da munduan.

Andik guazen beste aldera, Mutrikura. Burutasun oneko, imaginazio andi-koak dira mutrikuarrak. Ikusi:

Belengo portalean
arbola eder bi,
bata laranja eta
bestea madari.
Irikl zazu bada
kurtiña eder ori,
ikusi daigun bada
gure Jesus ori.

Ez ori bakarrik. Or dabiz aldrak etxerik etxe kantari, erriari adierazoten jaiotza eder ori:

Gabon gabontzeta
Errosa galtzeta,
aurra jaio da ta
jo daigun krixketa.
Etxetxiki onetan
jo daigun atia,
iriki al ba dezu,
ama-andre maitia.
Etxe onetan lau ardi,
laurak zortzi belarri,
etxe onetako etxeko andriak
topin baltza dirudi.

Orreik eta beste erri askotan be diru eskaliak kantaten dituen Jesus Marjak deitzen yakezanak:

Jesus Maria,
Maria Jesus,
Jesus Maria.
Izarra bularrian,
Semia sabelian,
a zer dontzella ederra
itxasoaren erdian.
Izarrak urteten dau
odeiaren atzetik,
Baita Semiak bere
Amaren sabeletik.
Jaio da, jaio jaio,
au dala jaiotzia,
Semia eginda gero
Maria dontzellia.

Eta bertso orrei beste batzuk oneik nastaten dautsez:

Oraintxe da sasoi
kapolak iltzeko,
ederki lumatuta
erreta jateko;
ekarri zazu bada
gizen gizenena,

orretzek eukiko dau
gustorik onena.
Guazen, guazen
guztiok Belenera,
Jesus adoratzera,
biotzak eskintzera.

Ez da bakarrik Mutriku ingurua kapoiekaz gogoratzen dan erria.
Otxandio'n be gogoan daukez eta euren kantuetan agertu:

Goazen goazen Belenera
zar eta gazte guztiok,
eramaten seintxuari
gabon sari kapoiok,
ardi bi ta lau bildots,
pitxar andi bat esne,
sagar, intxaur ta gaztaña
altzoa bete bete.

Eta Ondarru'n? Ez al dakie ezer kantaten? Ez al dakie arrantzaliak, artzai-
ñak lez, euren itxas bertsoak esaten?

Azken urteotan galdu egin da etxerik etxe "Abe Maria, kanta ala erreza"
esan eta gabon kantak aterik ate eta etxerik etxe abestuten joateko olturea.
Etxeko pozari jarraituz, abestu; eta etxe eriotzaren bat gertatu al izan ba da
urtean, lutoan ba dagoz, euren deduzkoen aldez erreztatu:

Gogoratu daigun:

Belengo portalian
estalpe batian
jaio da Jesus ona
ganadu artian,
astua ta idia
daukaz aldamenian,
arnasaz berotzeko
ostutzen danian.

Eta gero talde guztiak, kuadrillako guztiak, batean:

Alegratu gaitzen
gaurko gabarekin,
gure Jesus onaren
etorrerarekin.
Goiko mendietatik
pastoriak datoz,
esanik aingeruak
jaio dala Jesus;
Espiritu santuak
emonik grazia,
aren kontzeziñoia
beti da garbia.
Ogeta laugarrena
degu Abenduan
desio genduen
logratu doguna,

gabeko amabiak
jo daben orduan
gure Salbadoria
jalo da munduan.

Orreik sarri entzuten genduzan gure umetan eta geroago be bai, eta ez beti umeak bakarrik abestuta. Andra andiak be ba ekien euran kantaten aterik ate ibiltan eta gero, bestien antzera, gabonari beria emoteko, limosnatxuak batu ta eguna ospatu.

Beste errezago oneik be ezagunak dira Ondarru'n:

Ai au gabaren zoragarria,
Jesus jaio da Belenen,
erririk erri billa gabiltza
billa gabiltza beraren.
Aingeruak kanta,
artzai onak dantza,
guztiok alabantza,
Zuri zor dautzugu:
Astoak a,
idiak mu,
atsegiñik ba dogu.
Artu makillak eta
jantzi abarkak,
artzañak joan ziran
Jesusen billa.
Ai ze alegria dan
dantzan jente guztia
salto brinko egiñik
danak joan ziran.

Esan doguzan oneik, esate baterako, erri guztien kanta eta esate erak dira. Bateko ta besteko erriak jolastu, poztu eta zorionez bete eragiñez gaurko gau au gogoratzeko egiñak, Gabon gabeen jolasean lez gogoratu eta salto saltoka esaten ibilteko egiñak. Umorezko kantak esan leikioe, errondetan ibilteko eginak. Bestean onen antzerakoak:

Dringilin don,
gaur Gabon,
sabela betea daukat
eta besteak or konpon.
Mazkelo bete aza egosi,
ori, zuri ta gorriak,
bereala iruntsi neutsazan
azkenengo orriak.
Iru ortzeko tresnatxo batez,
morokil-ore bal litzan,
ezti lapiko anditxo bati
barrua uts-uts ein neutsan.

Edo ta Olentzero dalakoan esaten diran kidekuak:

Olentzero gurla

ezin degu ase,
bakarrik jan dizkigu
amar txarri gazte,
saiaski ta solomo
makiña bat este,
Jesus jaio dalako
konsola zaitzte.

Len esaten gendunari jarraituz, kantu oneik edozein errialdetan erabili leikezanak dira. Baina ba da emen, Ondarrun, arrantzale kutsuzko kantu berezi bat, itxastar bizitzari dagokion bat. Bertso fin finak dira, irudimen luzeko, eta fedean sartu eta jakintsu dan batek iruditu edo egiñak. Iruditu arrantzale bat, itxas ertzean, aitzetan, arrantzan. Eta gau ostian, norbait urreratzen yako, a be kezka eta zerbait jakin nairik edo ta argitu nairik:

Albako untzurrunian,
aitz baten ganian,
gizon bat arrantzuan
itxas basterrian.
Itandu bear diot
ete daben entzun
Belenen gaberdian
zer gertatu zaigun.
Kañabera orrekin
zagozan gizona,
Jaungoikuak dizula
zuri egun ona:
bart sentidu dezu
izeren zaratarik,
edo entzun zeruko
aingerun kantarik?
Gizon gazte eder bat
egoz jantzia zan,
bart gaberdian legez
emen igaro zan.
Aren kanta soñuak
pozez aditurik
gau guztia eman det
arrain bat gabarik.
Gizon gaztea etzan
gu lez gorputzduna,
bart emen igaro dan
gazte egaduna,
ari zan Espiritu
abisoa doiana,
ipar suestian
erregiak gana.
Neu ere juango nitzan
gaur a ikustera,
barrubina batzuek

banijua esatera,
baña erropa zarrak,
eskuak utziak,
nola sartu niteke
jaun baten etxian?
Neuk ere ardi narruak
neukazan soñian,
baña ementxe egondu naz
bartko gau guztian.
Abe Maria eginda
esan egiozu
arrantzale pobre bat
emen naiatortzu.
Arrantzale maitea,
neuk biotza nai det,
urria ez zidarra
ezerentzat ez det,
orain aurrerantzian
fedea bizi bategaz
bota tretza guztiak
Jesusen izenian.


Ara gabonak Euskalerrian. Batean eta bestean itxaropena eta poza. Alaitasuna eta fedea.

Amaitu daigun Aramaio'ko bertso bategaz:

Jesus, zure arbolea
neguaren erdian,
ekatxaren bildur baga
oraintxe dago loran.

Norbaitek pentsatu leike agortu dogula Euskalerriko Gabon kantaldia. Lotsa barík autortu bearrean gara, asi baiño ez gareala egin, eta beste urte baten, bizi ba gara, aldi oneri bere giroa kutsatuteko asmorik ez dogula gal-tzen. Tokí bakoitzak, inguru bakoitzak bere agerblde bereziak daukazalako egun oneitan, eta euretariko asko, benetan atsegin eta asmotxak.

ZUBEGI



MUNGIA ALDEKO SEASKA KANTAK

Zoriotzarrez gure errietako kantu zar eta atsegiñak galtzen edo beintzat erdi-aztutzen duaz. Igarten da gaurko amak ez dabela gure zarrak aiña denbora galtzen umeei lo eragin eziñik, eta orretan emoten dabezan orduak beste era baten igaroko dabezala. Baiña gure zarren kantak benetan samurrak ziran, politak eta umerik negartiena be samurtu, irribarrez ipini eta baketzen ekienak.

Gaurko onetan amar batu dodaz. Ez dauke bata besteagaz zer ikusirik. Bakarrekoak dira.

- 1.- Alboan dekoten senarra baiño maiteago zaittut zu, zeuk gura dozun orduren baten biyok egingo dogu lo ta lo.
- 2.- Amuma lepoan artute aitite dator iturritik amoma bidien galdute.
- 3.- Gure umetxue lo "tiritaña", ez egin lorik basuan. atsoren batek jan ez daitsun bildotsa zarelakoan.
- 4.- Lo-lotxu dau Aingerue, zeruan ze barri? Zeruen barri onak orain eta beti.
- 5.- Lobatsxue lo-lo egiñez zu zara gure tanboliñe, tanboliñe ta gaitie zu zara nire maitie.

- 6.- Arako sekuletan
neuk egin nuñian berba,
labañik asko zendula miñian.
- 7.- Txikitxu polit ori
norena zara zeu?
aittena ta amana
ta Jaungo!kuarena.
- 8.- Urrurun "corderito divino"
gaur jua eta biar erdu,
etxatzien dauen papaua baiño
gurago nendukezula zeu.
- 9.- Amona koitadia taloak erreten,
aitite koitadue kortatik dedanez,
katu demonlyuak talua dandarrez.
- 10.- Dinbilin donbolon zegon lo,
akerra Frantzian balego,
akerra kanta, idia dantzan
etzunda egizu zuk lo.

MUNGIALDEKO ESAERAK

- 1.- Aberatsa, popan atsa.
- 2.- Mungialdeko zekorra, txikia bala gogorra.
- 3.- Jakiñek ez deko kalterik.
- 4.- Ustea erdi ustel.
- 5.- Asto petrolio.
- 6.- Aurrian ederra, atzian gerra.
- 7.- Txitxean pitxean, txiri txiri, pltxike-pitxike.
- 8.- Eurie el da sano!
- 9.- Orrek buruek emoten ba deutso eiten dau.
- 10.- Orreri zoratu ein jako.
- 11.- Orrek dirue satsa deko.
- 12.- Oiñetako merkiak ez dau kaderia asko berotan.
- 13.- Saltu baten eroango zaittut.
- 14.- Alper batek esana: Nik izerdie oian baiño ez dot emoten.
- 15.- Txakurrak eulasike asteko desgrazí baten señaia da.
- 16.- Orrek berbia aiziak eroana. Orren berbak aiziak eroanak.
- 17.- Geldi zauz, "txintxilimaituori".
- 18.- Aittu katue, begi nabar-nabarrakaz.
- 19.- Ori ume makarra!
- 20.- Gizon orrek lupuek dekoz. Gizon ori lupu utse da.
- 21.- Kanpoak zureztat eta etxekoa iñuzentetzat.
- 22.- Geiau egotearren ez da obia.
- 23.- Ekiñau txarrau. (Zenbat eta)

- 24.- Ekiñe txarra da.
- 25.- Ikutu apurtu.
- 26.- Ondo ibili, gitxi gasteu eta sobrak amari.
- 27.- San Markoatan otzak auntze il zauen Gatiken.
- 28.- Ez dau inbidie baiño gaiso txarraurik munduen.
- 29.- Guzurre, eperdien erdien azurre.
- 30.- Saldue galdue. Saldukoa galdukoa.
- 31.- Orrek partikeria bero deko.
- 32.- Orrek aurrian dekon santueri baiño ez deutso eiten argirik.
- 33.- "Tomaki txakurre"; "Txipi katue".
- 34.- Sustentzi bako lagune.
- 35.- Asi ta ezi.
- 36.- Asi ta akabeu.
- 37.- Aita eta ama zelako, semeak alako.
- 38.- Buru asko, baia barruko gitxi.
- 39.- Bikoiztu, erditu edo erdian gelditu.
- 40.- Jaun eta jabe.
- 41.- Ori jutille tiroalez dabil.
- 42.- Au da etxe ingurue.
- 43.- Berana beti ondo ta bestiana beti txarto.
- 44.- Iñoiz ez da eiten iñogaitik ezer.
- 45.- Sentaillia!
- 46.- Gauze bat asi ba dozu akabeu.
- 47.- Zuri dituek boltsilloan min eiten deutsu.
- 48.- Gizon ori taketalea dau.
- 49.- Mutil ori iñestue baiño ariñau dabil.
- 50.- Iru ilebetako umian eperdie baiño garbiau deko orrek arpeie.
- 51.- Katuen moduen garbitzen dau orrek arpegie goizetan.
- 52.- Berezkorik ez dau ezer.
- 53.- Isilik zauz, sorki ostixori!
- 54.- Zu egunetik egunera iñuzentiau zoaz.
- 55.- Sietz-mietz.
- 56.- Kontakatillu ori!
- 57.- Zelako ipuñak dabilkoz ome orrek. •
- 58.- San Dios gure beiye!
- 59.- Bi ikusten izen dautsuz begi bategaz.
- 60.- Emen dau lupetzia (basatzia).
- 61.- Etorri sapa sapa.
- 62.- Lenengo etxekoa ta gero erbestekoa.
- 63.- Zer daki ta zer ez daki!
- 64.- Amorebietako eurie egun guztiko eurie.
- 65.- Lapuk txiak kastigatzeko nun-nai badago kartzela; aundiak or ikus-
ten ditut pasaian dabiltzala.
- 66.- ori ingo edo esango leiken aman semerik ez dau.
- 67.- Kontakatillu, Nontxebarri; txortxobasiku.
- 68.- Gizon ori "potixalez" dau.
- 69.- Belarri aundiak dekozan gizon bat ikusikeran: "Zelako aza orri xek
dekozan".
- 70.- Ogieri bueltia emon ezian, arimak sufrietan dauz.

ASIER LEGARRETA.

ESAERA ZARRAK

- 1.- "Urriko tenporetan zer aize, negu guztian alaxe".
- 2.- "Tripa utsa, entendimentu argia".
- 3.- "Inbiria sarna ba'litz, makiña bat sarnoso legoke".
- 4.- "Burrurik eza, bildurrik eza".
- 5.- "Asiak dirudi amaia, amaiak urregorria".
- 6.- "Tentaziñoak darakus nor nor dan". (Añibarroren liburu batetik artuta).
- 7.- "Urrilleko lanetan, agudo zopetan".
- 8.- "Agorako bidea, sasirik ez".
- 9.- "Lan baratza, lan aratza".
- 10.- "Utsak, onak obeagaitik".
- 11.- "Ala ez ba'litz, ala gerta dadilla".
- 12.- "Lastozko buztana daukana, suaren bildur".
- 13.- "Goizeko laiño gorri, gaueko iturri".
- 14.- "Urruneko eltzea urrez, gerturatu orduko lurrez".
- 15.- "Ogi gogorrari, agin zorrotza".
- 16.- "Abenduko eguna, argitu orduko illuna".
- 17.- "Abendua, jai uts eta gau uts".
- 18.- "Zozoak beleari ipurbeltz".
- 19.- "Nerea nere eta zurea gure".
- 20.- "Eskerrik asko Mari Belaskol Okela gutxi eta salda asko".
- 21.- "Do, re, mi, anka oker ori. Fa, sol, la zuzendu zaíola".
- 22.- "Ez benetan, ez olgetan, ez norbere berbetaz egin ixekan".
- 23.- "Paparduak lez, an zarean lakoan emen".
- 24.- "ESAERA ZARRAK, GUZURRIK EZ".
- 25.- "Kalean gertatzen dana ixiltzea, eziñezkoa biurtzen da".
- 26.- "Gauza zarrari, adabu zarra".
- 27.- "Oillaskoari muzin, zaldizkoari ezin".
- 28.- "Zelako jaubea, alako tresnea".
- 29.- "Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".
- 30.- "Luzaro nai ba'dozu bizi, gaztetik bear dozu asi".
- 31.- "Nai ba'dozu jan, egin bear dozu lan".
- 32.- "Lapiko txikia, laster gaiñez".
- 33.- "Odolkiak egiten diran bezelakoak izaten dira".
- 34.- "Madalena bero, agata gero".
- 35.- "Il gaiñean dagona, euliz beterik; bizi-bizirik dagona, euli barik".
- 36.- "Egia, erregarria".
- 37.- "Dirua nun dan, biotza bertan".
- 38.- "Abarrots aundi, intxaur gitxi".
- 39.- "Etxean daukana, ez dauko erosterik".
- 40.- "Gizona gizon bear dik beti, andreak joko ba'du ere".
- 41.- "Jaiotzen danak bizi nai izaten ornen du".
- 42.- "Idi zarrak ere ondo janda deskantsuan egon ezkerro, ipur-saltoka asten dituk".
- 43.- "Zaldizkoa nai, ta azkenean oiñezkorik ere inguratu ez".

- 44.- "Esandako berbea eta ixuritako ura, ezin dira batu".
- 45.- "Zarren itzak, zentzundun itzak".
- 46.- "Bakoitza beretzat, Jaungoikoa guztientzat".
- 47.- "Gaiztoa, gaiztakeriak berarekin".
- 48.- "Arrotzak, eskua latz".
- 49.- "Azi gaiztoa, bera sortzen".
- 50.- "Etxe utsa, asarre utsa".
- 51.- "Aditzale onari, itz gutxi".
- 52.- "Lur biguñean, zulo aundia".
- 53.- "Lotsagabeak, erria bere".
- 54.- "Ustea ez da jakitea".
- 55.- "Nori berea, da zuzenbidea".
- 56.- "Oloarl oloa, astoari lastoa".
- 57.- "Urri baiñan ongi".
- 58.- "Aberats izatea baño, izen ona obeago".
- 59.- "Oitura gaiztoa, berandu aztua".
- 60.- "Mendia mendiaren bearrik ez, gizona gizonarena bai".
- 61.- "Aizeak negua dakar".
- 62.- "Utzi zak ona, ohea artzeko".
- 63.- "Sugabeko etxea, gorputz odolgabea".
- 64.- "Etxe guzitan, laratzak beltzak".
- 65.- "Zakur aundiak, zaunka aundia".
- 66.- "Neke ondoren, poza".
- 67.- "Auntza larrera".
- 68.- "Norberak nolako, besteak uste alako".
- 69.- "Egia da latz eta garratz".
- 70.- "Ez itz egin, ez ba'da nai uts egin".
- 71.- "Jaio zera, ilko zera".
- 72.- "Berbarik onena, laburrena".
- 73.- "Itzontzi, utsontzi".
- 74.- "Azilla otz, negua motz, azilla bero, negua gero".
- 75.- "Zu zaran tokian, ez da koiperik faltako".

MALAX-ETXEBARRIA'TAR JON



OKERAKUGARI

Gure au eko lanean euzkerak dituen eta beti izan dituen arerioak zeintzuk ditugun aipatu genituen. Orain aurkako oyetatik nolabait euzkeraren bizian sortu diran oker batzuk nabari-erazi nai ditugu, lenengoz nolakoak diran eza-gutzeko ta gero bat-banaka edo zuzentzeko bidean sar ote gaitzeken ikusteko. Onela lantxo au au ekoaren bategaz itzat al diteke.

Nlre ustez alde batetik euzkerari berari zor diogu bea ezkoak diran zuzegitea; gero asmo batzuk obeto azaltzeko, ta azkenez gure izkuntza au garbitu ta egokiago erabiltzeko, gurean bizi bear dan bidezko yorana betetzeko.

Ba-dakigu, len bederen, apaizak izan zirala euzker az idazten eta beraren alde lanegiten asi izan zirala. Ta ain zuzen uzkurtzari dagozkion azpegi batzuetan sortu dira emen aipatu nai ditugun oke batzuk; noski, ene ustez oke diranak, gerta baliteke, aitzitik, nik diñodana oker izatea; auxe izan dite-kela iñoiz aitzu gabe, goazen nire aburuz oker diranak zeintzuk ikusten ditudan.

Auxe lenengoa: Mezatan Gure Ma otoya esan aurretik egiten dan beste otoya Laburdi, Benapa oa ta Zuberako eleizetan onela esaten da: "Unen bitartez, unekin eta unetan Yaungoiko Ma guzialdunari..." Siñisten dugunok ba-dakigu ongi "unen" eta "unekin" esatean apaizak eskuetan daukan opa-gai sagaratua aipatzen duela, ta sagaratua dalako Yosukristo'ren gorputza bera dala bertan dagoena. Orela dalarik, ori izaki zentzunduna da, ta zen

beti "unegan" esaten du, ez "unetan"; "unetan" zentzungabekoai dagokie bakarrik. Beraz argi agertzen da or egiten dan okera, ta oker ori Paris'en 1979'ga enean argitaratu zan J.M. de Latxaga apaiz jaunaren "L'exemple de la liturgie en basque" idaztian ere aipatzen da. Bidezkoa dirudi oke ori egokiro zuzentzea, ta orela ortan egoaldekoekin batasun aundiagoa lortu liteke, auek ori ondo esaten dutelako.

Bigaren oke a iparaldean ere egiten da beste otoi bat egiten ari diranean, "Miren Deuna Yainkoa'ren Ama" esaten eta onela ja aitzean: "Egizu otoi gu pekatorosentzat". Auxe parantzeraz esaten dan "Priez pour nous" esakunaren itzulpena dugu zuzen, baña ene ustez gaizki egindako itzulpena. Ona emen zergatik: "Pour" parantzerazko itz orek bi zentzun ditu, euzkeraren -gatik eta entzat atzizkien bitartez adierazten diranak. Eta aipatutako otoyen esaten danari lenengoa biga ena baño obeto dagokio; beraz obeki izango litake "gu pekatorosengatik" esatea orain esaten danaren orde. Beste alde-tik erdera utsa dan "pekatoros" itz ori erabilli orde egokiago izan bear "ogendun" euzkal-itz jato a esatea. Gañera, ba-dago euzkerazko beste era berezia asmoa politago esateko, onela: "gu ogendunon alde", egoaldean erabiltzen dan "alde" esanez; onela ere batasun aundiagoa lo rtuko litzake Euzkadi osoan gauza bera erabiltzean.

Uzkurtzari ere dagokiolarik, "Gure Aita" otoyen, ene iritziz, egokiak ez diran beste iru gauza dagoz oke bezela begira ditzakegunak, alde guztietan berdin age erazten diranak. Ona emen zeintzuk diran:

Otoyaren asieran onela esaten da: "Saindua izan bedi zure izena". Yainkoaren izena "saindu" izan dedin naya agertzean; baña siñizmenak irakasten digunaz ba-dakigu ongi Yainkoa'ren izena orain donea dala, len ere (Vela dala ta gero be berdin dala; ta naiz orain naiz len naiz gero "da"la diñogu Yainkoa'rentzat "len" eta "gero" zentzunik ez dutelako, Yainkoa betiko "oraingoa" dala zin-ziñez esan dezakegulako. Alakotz "izan dedilla" esatean oke azaltzen dan naya agertzen da. Ama Neskutsa'ren Abesti Ede ean argi esaten da: "Bere izena donea da".

Ondorioz beste era erabili bea -izango litzake esandakoaren orde, eta oso egokia izateko, geron aburuz, Arana Goiri'k ederki esondatu zuen au onartu genezake: "Donetsia bedi zure izena", ots, alde ta aldi guztietan "zure izena" "done"tzat guztien aldetik ona/ eta aldarikatu dezatela, asmoa ongienik aipatzean.

Gero, otoyaren biga/en zatian onela esaten da: "gure zordunai parkatzen dizkiegun ezker"; ta o fariseoen sunda dariola dlrudi, esango balkenuen: zu, guk gure zordunai parkatzen dizkiegu, beraz zuk ere parkatu bea(dizki-guzu gure zo ak. Guztiz apalago esan genezake asmo orl len esaten zanez, ots, bezela itza erabiltzean. Eta parkatu aditza erabili orde, azketsi beste aditza ere obeki esango litzake.

Azkenez, otoyaren amaitzean onela esaten da: "ez gu tentaldira eraman". Baña Yainkoa'k ez garama ziltzaldira, au ere ongi dakigu, eramango bagindu ogenean erantzukizuna izango lukelako, txe enak, aragiak eta lagunaba ak duten bezela, ta ori uierkaitza da oso. Askoz egokiago izango litzake "ez gu tentaldira eraman". Askoz egokiago izango litzake "ez gu ziltzaldian utzi" Arana Goiri'k be ondo ta apal esan zuenez, eta ziltzaldi itza erabiltzen tentaldi orde.

Ola, ene ustez, uzkurtzari dagozkion bost oke nabari-nabariak; beste amaikatxo aipa ditzakegu, geyenak erderarengatik sortuak; ona emen batzuen batzuk:

Egunero entzuten da "ikusiko gera" esaten, "alka ikusiko dugu" esan orde.

"Alta Patxi", "Aita Yulen" eta aba/ esaten da, "Patxi Alta", "Yulen Aita" eta aba(esan orde. Euzkeraz deiturak izenen atzetik jari bear ditugulako, ize-nondoak bezela.

"Deitura" itz ori "abizen" beste itzaren orde gaizki erabiltzen da; noski abizen guztiak deiturak dira, baña deitura guztiak ez dira abizenak.

"Otz-egiten du", "bero egiten du" ta aba(sa i entzuten da, ta asmo oyek euzkeraz "otz dago", "bero dago" ta abar esan bea(dira.

Orobat "euria egiten du", "edu a egiten du" ta aba/ nun-nai esaten da, "euria da", "edu a da" esan orde; edo "odeyai euria diñotse", "edu a diñotse", ta aba .

"I"az amaitzen diran bikondeai gediñen bat gañeratu ezker, "i" gedin ori "y" igidiñaz aldatu egin bea ; e.b.: dei + a = deya, otoi + ak = otoyak, sagardui + etan = sagarduyetan, eta aba . Gau/ bazte etan barna ez da eliztiaren arau au gordetzen, eta idazle geyenak be oke bera dagite; auen artean Olabide izan zan arau ori ongi gordetzen zuena.


Bikondeai buruz ba-dago baste arau bat askorentzat ez ezaguna bezela agertzen dana; auxe: "l"az amaitzen diran bikondeen atzetik "n" edo "l" jari ezkerro ta gero gediñen bat ipintzen bada, "n" "ñ" az eta "l" "ll"az aldatu bear dira, ta "i" ori kendu edo itxi diteke; e.b.: "artzain + a" = "artzaña" edo "artzaina", "erail + e" = "eralle" edo "eraille", "mardail + etan" = "mardalletan" edo "mardailletan".


"Bilbo" idatzita ikusten da nun-nai, uri oren izena euzkeraz orela dalakoan; baña izen osoa "Bilbao" da, ta "Bilbo" itzegitean egiten dan laburpena baño besterik ezta. Alde ta izkuntza guztietan egiten dira, mintzatzen, o elako laburpenak, idaztean iñun agertzen ez diranak.

Itzetan be amaika oker erderakadak sartzen diranean. Ipa alde'ko elize-tan, gogoz, "Berbo dibinoa" abesten dute, "Yainkoa'ren Itza" esan orde. Egitan, erderakada geyenak beste ainbeste oke ak ditugu, zuzendu bear-izango lirakenak.

Eta zer dala-ta ainbeste oker euzkeraz egitean? Euzkera zala ornen da ta zailtasunetan ari bea beti?; ala erderarako jokera erabilli ta indartu bear al da gurean beti ere? Dana dala oke ak ugari agertzen dira euzkeraz egitean, ta nire aburuz alegin aundienak egin bear-izango genituzke zuzentzeko, oso bidezkoa ta bea a baita.

URESTARAZU'TAR ANDONI





EUSKALDUNOK MAITE OTE DEGU GURE EUSKEREAA

Orixe da, bein eta berriro, nere buruari egiten diodan galdera; egunetik egunera, euzkerearen inguruan gertatzen dana ikusirik.

Idaz-lan onetan, alde batera itziko ditut euzkerearen olzko etsalak (U.A., PP., P.S.O.E. eta beren jarraitzaileak, esaterako), eurak ez diralako euzkerea dagoan egoera latzaren errudun bakarrak eta bai euskaldun askoren zabarkeria eta axolagabekeria salatu bearrean nagola.

Euzkerearen alde lan egiten ornen dutenen artean iru aipatu nai nituzke, bereziki. Auekek: Ikastolak, alderdi "abertzaleak" eta euskaldun zarrak.

Goazen banaka-banaka aipatuz.

a) **Ikastolak.** Egia da ikastolak toki guzietan zabaldua ditugula, aur asko joaten dirala eurretan euzkera ikastera eta ori poztutzekoa da, noski. Baita ere, "Araba euzkeraz", "Naparroa oiñez", "Kilometroak", "Erri urrats", "Ibillaldia", bakoitza bere erki edo probintzian eta orrelakoak egiten dira beren alde.

Ala ere, beren eragiña oso gutxi igartzen da kalean, eguneroko bizitzan. Gazteak, zoritxarrez, alde batera utzi egiten dute euzkerea, geure mintzarea-renganako maitasunik ez dutelako. Eta ori oso mingarri ta latza gertatzen zai-gula euzkera maitatzen degunoi, agerian dagoan gauza da.

Eta ori jakiñik zer ondoriorik atera genezake guzi orretatik? Erantzun erre-za. Gure euzkera aurrera egin bearrean, atzera dijoakigula eta nola gaiñera!

b) **Alderdi "Abertzaleak".** Ona emen beste adibide bat. Or ikusten ditu-gu Euzko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna, Euzkadikko Ezkerra eta Herri Batasuna, besteak beste. Eta denak euzkerearen alde ari dirala ba diote ere, egi-uts edo errealdadeak beste gauza bat darakusku. Guziz bestelakoa. Oso gutxi dira euzkera dakitenak eta bera menperatu eta darabilkitenak, politikeriz kutsatutzeko egiten dute.

Esaterako: Auen jokabide zitala eta maltzurra dala-ta geure ele ederrari gero ta arerio geiago azaltzen ari zaizkio.

c) **Euskaldun zarrak.** Emen irugarren adibidea... eta mingarriena ere bai. Eurak balt ditugu gure izkuntza maitagarriaren oiñarri sendoa ta errimean. Beti belaunaldiz-belaunaldi euzkera gorde edo zaitu dutenak.

Gaur egun, ordea, gauzak aldatu dira eta ez onerako, ain zuzen.

Denok ondo dakigun bezela, erderaren eragiña oso nabarmena da euskaldunen artean eta ori euzkerearen kaltez dijoa, zalantzarikan gabe. Orrela, geure euzkera ederra eta paregabea bazterturik, euskaldun askok gogotsu ekiten diote erderari. Bearbada. izkuntza "dotoreagoa" dalakoan. Eta orrek egundoko kaltea dakarkio euzkereari. Jatorrizko euskaldunak beren autuetan gero ta erdera geiago erabiltzen dutela ikusten bait det.

Adibide batzuk siñisteziñak dira. Bat aipatzearren auxe: Bizkaiko erri euskaldun batean, oso euskalduna gaiñera, gertatu zan.

Bein, nere aita eta biok joan giñan erri orretara (izenik ez det esango) senideai ikustaldi bat egitera eta errian zear egurastutzen ari giñala lagun batzuk topatu genituan. Eurekin mintzatzen asi giñan. Denok giñan euskaldunak, baiña (eta auxe da arrigarriena), guk euzkeraz mintzatzen giñan bitartean, eurak erdera utsean ari ziran. Eta orrela jarraitu gendun eurekandik banatu arte. Ez al da kezagarria?

Onekin ez det esan nal denak jokabide berbera daukatenik. Iñola ere ez. Oraindikan, ba ditugu, bai, euskaldun zintzo eta jatorrak, zorionez. Baiña, beldur naiz gero eta gutxiago izango ez ote diran. Euskaldun erdalzaleen orien adibideak oso ugari dira eta ori da arazorik latzena.

Errialde bateko biztanleak beren ama izkuntza maitatzen ez ba dute, izkuntza ori atzeraka joango da, abiada aundiz, guziz txokoratu eta aztua gelditu arte. Eta arrisku ortan ikusten det geure euzkerea. Zenbat eta gutxiago erabilliz, gero ta urbillago izango bait degu geure mintzaeraren bukaera.

Lerro auek egiten ditudanean, catalunyaldean naiz, eta emen ikusten dedanak inbiri edo bekaizkeri antzeko bat sortutzen dit nere barnean, batez ere geure Euskal-Erri eder eta jatorrean gertatzen ari diran gauz oker eta ganoragabeak gogoratutzen ditudanean.

Izkuntza alorrean, Catalunyarrak berezi-bereziak dira. Denak batera dijoazte. Denak beren izkuntza darabilkite, mailla guztietakoak: gazteak zein zarrak, langilleak zein dirudunak, salerosleak zein kirolariak. Itz batean esanda: Denak.

Ori bai dala norberaren izkuntza maitatu, gorde eta aldeztutzea. Erabat txalogarria. Eta guk zergatik ez egin beste orrenbeste? Ain axolagabeak izango ote gera geure euzkera iltzen lagatzeraiño?

Euskaldun zarrak: Ekin ezaiozute zeuen euzkereari!! Ederra eta garbia bait da. Eta ez lotsatu berataz, gaurko sasi-jakintsu batzuk txarra dala esaten dizuetelako. Ez orrelakorik. **Zeuekan geure ama euzkera bizi dalako** eta zeuon kalotiroa eta aolkuak oso bearrezkoak ditugulako euskaldun eta euskaltzale berriok.

Pentsatu dezagun, euzkerea iltzen ba zaigu, geure nortasuna eta euskal sena galdu egingo ditugula. Eta euzkerarikan gabe nola izan leike Euskal-Erria?

Ortxe dago koskea eta gure izkuntzaren geroa.

"KALAMUA"

SASKI NAS KI

Akademi sarrerako itzaldietan bigarrena esan eta egiña da aurtan.

Bat Mungla'n, Olazar'tar Martin lendakariak.

Bigarrena Ondarroa'n, Zublkara tar Augustin lendakari ordeak.

Datorren urtean beste birenak entzuteko zoria euki daigula.

Orrela, bakoitzak bere giroan, atsegin dauan lanen bat agertzeko aukera izango du eta araudietan eskatzen dana bete.

Gure aldetik esan daikeguna au da: Bal Mungia'n eta bal Ondarroa'n atsegiñez eta jakin-miñez entzun zirala itzaldiak.

ERRI EUSKERA KASETETAN

Gure arteko batzuk ba diardue toki eta inguru ezberdiñetan euskaldun zarretatik jardunaldi jakingarrak kasetetan artu eta gero paperetara aldatuaz azterketak egiten.

Euskeraren ezaupiderako eta batez ere euskeraren tokian tokiko berezitasunen oarmenerako lan neketsua ba da ere, eginbearreko lana dala uste dogu.

Ikus, adibidez, gure aldizkarl onetan eta zenbaki onetan agertzen dan "Erri euskeraren azterketa" eta ezin ukatu izkuntzalarlei eta erri jokabideen oarlariel atsegin izango yakoenik. Orrelako lanekin erraztu eta zeaztu egiten dira jakintsuak ain gogoko izaten dituen izkuntzari buruzko mapa eta jakingarriak.

Ezin ukatu lan neketsu eta zailla danik. Zeaztasun asko eskatzen dauana. Batetik itz egiten dabenen aukeratzea ondo aztertua izan bear da, al danlk inguruko euskera jator eta kutsatu bakoa jasoteko, eta bestetik paperera aldatzean be gaitasun berezia bear da alik eta zintzoen biurtzeko. Esan bear baita be, ordu asko eskatzen dauan zeregiña dala.

LIBURU BARRIAK

Uno Akesolo'ren lan idatzien irugarren liburua kaleratua da, Julen Urkiza karmeldar liburu zale eta kondalra zale aspergabearen alegiñei esker.

Gure aldetik ezin ukatu benetako atsegiñez artu dogula agerpen orl, batez be lanen jasoteko gogo bizia igarten dalako egin dan alegiñean.

Beste lankide ekintsu bat, Jakakortaxarena tar Txomin ere, ez dago geldi Berastegi'ko bere txokoan.

Oraingotan erderatik euskerarako itzulpena da berea, "Edozein euzkaldun baten bizikerak" (Vivencias de un vasco cualqulera).

Bere aurkezpen lanean Urrestarazu'tar Andoni'k esaten denez gure edestiaren zati mingotzenaren egiazko "Lekukoa" da.

Jakakortaxarena'ren luma zorrotz, zuzen eta jakintsuak eta jariotsuak, alako alaitasun eta irakur zaletasuna sortu araziz, euskaldun askok atsegiñez irakurriko dabent liburua dala esan bear.

URTE BARRI

Igarri barik ba doa urtea. Eta barria galñean.

Joanak joan, ba dakigu zer daroagun lepoan lengoari begira. Eta datorrena? Batez ere euskerarentzako?

Or dago askoren kezka. Bildur izateko giro baten sartzen gara, iragarkiak aldatzen ez ba dira beintzat.

Dana dala, ez daigun illetarik jo. Aurrera ta ekin.



EUSKEREA NORA...?

Lengo egun baten, Bilbao'ko kale Ñagusjan zear niñoala, etxe eder bateko aurrekaldean, idazkun auxe irakurrj neban:

"Instituto Ñacional de Seguridad Social", eta gero,

"Gizarte Segurantzaren Instituto Ñazionala"

Orduan auxe itaundu neutsan nire buruari: "Zelako jakintsuek edo sasi-jakintsuek, euskera-aurkako eraso au egin dabe...?"

Lenengo ta bein, argi dago españarrek "Estatal" eta "Ñacional" artean egi-ten daben naasketea, au da, "Laterri" ta "Abenda" artekoa. Izan be, España ez da abenda bat, abenda batzuen laterria baiño, arein artean Euzkadi bat izanik.

Zelan esan, beraz, erderaz, aipatutako idazkuna...?

Asteko, "Seguridad" ori ez dago ondo erabillita. "Seguridad" beste gauza bat da. Aipatutako idazkunak, nire ustez, onetaraxe jarri bearko leukie:

"Instituto Estatal de Protección Social"

Eta euskeraz, zelan esan...? Ñire ustez onetaraxe:

"Gizarte-Babesaren Laterri ko Erakundea"

Euskaldun uts edo jator batek, askozaz argiago ulertuko leuke orren esan-naia, sasi-jakintsuena baiño.

Edozeiñek irakurriko ditu orko bazterretan milla ta millaka sasi-euskeraz edo euskera endekatuaz idatzitakoak. Badirudi, euskeraz jabetu diranek zitaldu gura dabela berariz, izkera jatorrari muzin egiñez, eta erdal itzak parrastaka erabilliz, gure euskerea erdalki utsa biurtzerañño.

Non dagoz, baiña, gure izkuntza zaindu bear dabenak, olako astakeriai esi bat ez ipinteko...? Ñon dagoz gure mintzairaren begiraleak euren mintzoa ez adierazoteko...? Ñon dagozan...? Ara... on-gaitzaren gaiñetik euren Olinpo'ko besaulkietan jesarrita, gain-gaiñeko arranoak bai'litzazan, an beeko eltxoai jaramonik egjteke. Bai, gaindegietan ikusiko doguz burua urratzen, euskereari zelan "H" geiago sartzea, oraingoak gitxi dira-ta. Izan be, ez dabe astirik euskeraren zitaltze, endekatze orreri aurka egiteko, eta an darraie euren Olinpo'ko besaulkieta, iñongo epaiketari erantzun barik, iñongo salakuntza aintzakotzat artu barik, on-gaitzaren gaiñetik baidagoz, eta bitartean, gure euskerea erdalki bat biurtzen ari da...

Izan be, gure euskera gaixoak jagole arduratsuagoak merezi dauz...

Zubiri'tar Iñaki